



**ELBIRA ZIPITRIA GOGOAN**  
Piageten argitan

*Jesus M. Larrazabal (argitaratzailea)*





# **Elbira Zipitria**

## **Gogoan**

Piageten argitan

*Jesus M. Larrazabal*  
(argitaratzailea)



# Elbira Zipitria Gogoan

Piageten argitan

*Jesus M. Larrazabal*  
(argitaratzailea)



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
A R G I T A L P E N  
Z E R B I T Z U A  
SERVICIO EDITORIAL



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Liburu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin ematen da argitara

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiazea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edota liburuaren ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako haimena aurretik eta idatziz eman.

Ninguna parte de esta publicación, incluido el diseño de la cubierta, puede ser reproducida, almacenada o transmitida en manera alguna ni por ningún medio, ya sea eléctrico, químico, mecánico, óptico, de grabación o de fotocopiado, sin permiso previo y por escrito de la entidad editora, sus autores o representantes legales.

© Margaret Boden

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
ISBN: 978-84-9082-870-0

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	9
<b>Lehen Zatia:</b> Elbira Zipitria Gogoan .....	17
1. Elbira Zipitria gogoan .....	19
<i>Dionisio Amundarain</i>	
2. Ikasleak lekuko .....	37
2.1. Gure Ikastola txiki klandestino.....	37
<i>Garbiñe Anza</i>	
2.2. Elbira: ene andereño baino zerbait gehiago .....	40
<i>Idoia Mendizabal</i>	
2.3. Zipitria'tar Elbira, bere eskolak. Jenialitatearen onurak... jenioaren prezioan .....	43
<i>Mikel Plazaola</i>	
3. Elbira Zipitria zenaren eskolaren familia testuingurua ....	51
<i>Leire Alviz</i>	
<b>Bigarren Zatia:</b> Piageten Argia .....	79
4. Piaget: pertsona, lana, teoria .....	81
<i>Pello Huizi</i>	
5. Piageten epistemologia genetikoa.....	99
<i>Mikel Haranburu</i>	
6. Piaget eta hizkuntza .....	117
<i>Feli Etxeberria</i>	
7. Piageten logika .....	135
<i>Jesus M. Larrazabal</i>	
<b>Hirugarren Zatia:</b> Itzulpenak.....	149
8. Adimenak, Balioa, Ikerketaren Filosofia (Richard Evans eta Jean Piaget).....	151
<i>(itzultzailea: Jesus M. Larrazabal)</i>	



9. Zer garrantzi du Piagetek? (Margaret Boden).....	161
<i>(itzultzailea: Larraitz Zubeldia)</i>	
<b>Eranskinak</b> .....	169
Lehen eranskina: Elbira Zipitriaren ikastolako ikasleak.....	171
Bigarren eranskina: Elbira Zipitriaren eskolako abestiak ....	177

## HITZAURREA

Aurtengo Maiatzaren 28an ehun urte betetzen dira Zumaian Elbira Zipitria Irastorza jaio zenetik. Aitaren lanbideak eraman zituen haren gurasoak geure herrira. Hiru senideetatik gazteena, ordurako Donostian jaiotako anaia eta ahizpa zituen, 1902an lehena eta hurrengo urtean bestea.

Gipuzkoako Diputatu Nagusia den Joxe Joan Gonzalez de Txabarriri esker, niri egokitu zait, irakurle, eskuetan duzun liburu hau atontzea eta omenaldirako egitarau nagusia proposatzea. Ohore handia da niretzat eta eskerrak ematen dizkiot diputatu nagusi eta adiskideari. Hiru arrazoi izan ditut kontuan lan hau egiten laguntzeko, unibertsitatean ditudan eguneroko beste lanak alde batera laga gabe. Lehenbizi, goitik behera zumaiar den eta sentitzen den batek bere burua harro ikusten duelako Elbira zumaiar ospetsua zenaren alde zerbait egiteko aukera duenean. Bigarren, neure moduan Donostian irakaskuntzan eman zuelako hark bizitza, euskararen alde eta euskal hezkuntzaren alde, nire kondizioetan baino mila aldiz okerragoetan. Hirugarren, aspaldi etengabe errepikatzen ari naizena neuk egiteko abagune aproposa delako oraingoa, hau da, geure herri oroimenean —eta, ahal bada historian: bai, geuk egindako geure historian— behar-beharrezkoak ditugun eta egunero eraiki, hedatu eta berritu behar ditugun unibertso sinbolikoetan Elbira izandakoa eta hark egindakoa behar bezala sartzeko okasio paregabea daukadalako eskuartean.

Lehenbiziko eta bigarren arrazoiak seguruenik motibo afektiboetan oinarrituta daude. Ez da gauza batere txarra, arrazoa gero tarteko sartzen bada, buruak bihozari berea aitortuz. Hirugarren arrazoa da, ordea, nagusia. Ezinbestez, filosofia eta logikara emandako baten kasuan. Norberaren oroimena lantzea oso garrantzitsua da, jakina. Nahitaezkoa, ondoren, oroimen kolektiboa lantzeko. Ez gaude euskaldunok historia eta gizartearen aldetik momenturik onenean geure banakako eta herri oroimena suspertu eta sendotzeko. Geure izaterako, izanerako eta izan gaitezkeenerako garrantzitsu izan diren eta diren gertaera asko errazegi ahazten ditugu eta ahaztuarazten dizkigute inguru hurbilean nagusi bihurtzen laga ditugun fribolo eta neoziniko galantek, norberaren bizimodua horrela lasaiago eta erosoagoa delakoan, jakinaren gainean, bai, horrek herri ukatu baten etorkizuna errotik ahultzen duela. Erne neozinikoez ari naizenean, ez baitira Diogenes zinikoaren jarratzaile berriak, ezta gutxiagorik ere. Oraingo hauen inmoralitate, boteretsuen lagun bihurtuz, beren negozioak egitera zuzentzen da eta boterean bat edo bestea egon eta nola egon, demokraziaren arabera edo armen indarren arabera, berdin jokatzeko dute, inolako arazo moralik ez balego bezala. Esana dute: moralitatea pertsona ahulen kontua omen da, jopuena; indartsuek moralala urratu eta hautsiz lortzen omen dute historia egitea. Gatozen geure harira: hitz batez esanda, hirugarren arrazoa izan dut nagusia, berau delako osorik 'arrazionala'. Ni neure tokian nago. Eta egia aitortu behar badizut, irakurle, esango dizut lan nahikoa eta neke handikoa dudala eguneroko bizimoduan arrazionalitatea defenditzen bai teoriarik bai praktikan, batez ere —nork esan?— unibertsitatean publikoan.

Liburu hau prestatzeko ardura hartu nuenetik bi zati ikusi nizkion lanari. Lehenengo zatian Elbira Zipitria zena izan nahi nuen gogoan: pertsona eta hark egin-

dakoa. Bigarrenengan haren pentsamoldearen azpian egon zitezkeen teoria psikologiko eta pedagogiko batzuen berri eman nahi nuen. Asmo hau betetzerik ez dut izan. Aurten bertan hilabete gutxitan egin beharreko lana izan da hau, garaiz liburua argitan izan zedin.

Horregatik, azkenean, honako hiru zati hauetan banatuta atera da liburua. Lehen zatian —*Elbira Zipitria gogoan*— hiru ekarpen biltzen dira. Lehena Dionisio Amundarainen eskutik dator eta honetxe eman dio zati osoari izenburua. Amundarainek oso ongi ezagutu zuen Elbira eta era ezin hobez eman digu haren berri: pertsona eta lana, lau aro ezberdinetan bereiztua: 1936ko gerra aurrekoa; gerra aldikoa; gerra ondokoa, 1942tik 1970era bitartekoa eta, azkenik, aro tristeko Elbira, 1970etik 1982an hil artekoa, bizitzan gainbehera bere inguru hurbilean gertatzen ari zena onartu ezinik, euskararen batasunaren inguruan nahiz euskal hezkuntzak legeztatutako ikastoletan hartu zuen ildo berriaren aurrean. Datu zehatzez ongi hornitua dago Amundarainen testua eta aurrerantzean Elbira Zipitria zenari buruz egingo diren azterketek gogoan izan beharko dute testu hau. Lehen zatiko bigarren ekarpena garai ezberdinetan Elbira andereñoaren ikasle izandako hiru pertsonen eskaini digute, etxe-eskolari buruz bakoitzak bere oroitzapenak idatziz. Garbiñe Anza, Idoia Mendizabal eta Mikel Plazaola ditugu, hurrenez hurren, oroimena lanean jarri eta lekukotasuna labur-labur eman digutenak. Badira antzeko gauzak eta baita ezberdinak ere hiru ekarpen horietan. Guztiaren azpitik, ordea, denek halako estimu berezia azaltzen diote *Andereñori*. Ezin esan gabe utzi bide egokia zabaldu dutela Anza, Mendizabal eta Plazaolak aurrerantzean, lekukotasuna bakarrik ez, Elbiraren ikasle izandako guztien oroitzapenak bildu, aztertu eta hezkuntzaren psikologiak, gizarte psikologiak eta soziologiak bideratzen dituzten metodoak erabiliz, behar-beharrezkoa den lan mardula egin ahal izateko. Lehen zatiaren bukaeran

Leire Alviz pedagogoak Elbiraren ikasle izandakoen bost guraso elkarrizketatu ondoren, datu berriak jasotzen ditu etxe-eskola haren familia ingurunea ezagutu ahal izateko. Datu hauek garrantzitsuak dira gizarte pedagogiaren ikuspegitik begiratuta eta, hastapenetik daukaten muga —izan ere, ikasle izandakoen bost ama mintzatu zaikio— nola konpondu argi uzten du Alvizek. Oraindik garaiz gabiltza azterketa hau bizi diren guraso guztiei zabaltzeko, euskal hezkuntzaren historiaren onerako eta geure herri ezagupen sakonago baten mesederako.

Liburuaren bigarren zatian *Piageten argia* jaso nahi da, lau ekarpen berezien bidez. Elbira ez zen irakurtzen zuenaren berri ematen zuen horietakoa, ezta adimen sentitzailearen bidez (Zubiriren eran edo) jasotzen omen zuenaren berri ematearen aldekoa. Isilean gordetzen zituen gauza hauek, bere gustuko apaiz, fraide edo lagunartekoren batekin (esaterako, Karlos Santamaria irakasle eta idazle zenarekin) noizbehinka eztabaidatzen bazituen ere. Elbirak, handik edo hemendik, Piageten berri izan zuelakoan nago eta, frantsesez oso ongi irakurri eta mintzatzen zenez, Piageten lanen bat edo beste irakurri zuelakoan nago. Piaget bakarrik ez, eskola eraketaren arloan eta askatasunean oinarritutako pedagogia berrien inguruan informazio frankofono zehatza ere bazuelakoan nago, agian Maria ahizpa mojaren bidez eta Parisera, politikaren kariaz, egin behar izan zituen bidaiei esker. Liburuan Piageti heldu diogu lau irakaslek eta honen argia bere horretan luzatu diogu Elbiraren etxe-eskolan egiten zenari. Garbi esan behar dut esatekoa honetaz ere. Piaget esparru jakin batzuetan soilik aztertu dugu, baina Piageteekin ez dugu agortu nahi izan Elbirak jaso zezakeen argi guztia. Etorriko da, seguru nago, luze gabe beste argi horien azterketa egiteko garaia, bai orduko pedagogia, psikologia eta eskola ikuspegia zorrotz aztertzeko, bai orduko kristau pentsamolde filosofikoek 'intelektual' en bidez zabaltzen zuten gnoseologia eta etika zehatz-me-

hatz arakatzeko, batez ere bigarren mundu gerra bukatu ondorengo krisi egoera ilun hartan.

Pello Huizik Piageten izaera pertsonala eta obra nagusia azaltzen dizkigu liburuaren bigarren zatiko lehen ekarpenean. Piagetek egindakoa ulertzeko, haren autobiografia eta adituen lanak kontuan hartuz, lau aldi bereizten ditu Huizik haren lanean, bakoitzaren ezaugarriak eman eta landutako gaiak adieraziz, haurren pentsamoldearen azterketatik hasi, adimenaren garapenaren eta oinarri biologikoen ikerketarekin segi eta egituren eraikuntzaren analisitik pasa ondoren, azkenik ezaguerak dituen oinarri eta alderdi psikologiko zabaletara heldu arte. Bukatzeko Huizik Piageten teoriaren ikuspegi orokorra eskaintzen digu, jaso dituen kritikak ahaztu gabe. Bigarren ekarpenean Mikel Haranburuk Piageten epistemologikoa genetikoaren berri ematen digu. Ez dago esan beharrik zenbaterainoko garrantzia eman zion Piagetek epistemologia genetikoa egiteari eta Epistemologia Genetikorako Nazioarteko Zentroa sortzeari. Ez zen hura filosofia modernoaren hasieratik epistemologiara nagusiki lotutako filosofoen antzekoa. Haren arazoa ez zen izan, eszeptizismoari aurre eginez, ezagutzea zer den eta nola oinarritu eta justifikatzen den aztertzea. Ez zen filosofoa izan, bai psikologoa. Psikologia genetikoa egiteak ematen zion abantaila filosofiaren gainetik. Eskola eta korrante ezberdinetako filosofoek ez omen zituzten psikologia berriaren emaitzak ezagutzen eta, hortik, haien gabeziak, bereziki oso nabarmenak positibismo logikoaren kasuan. Haranburuk argi azaltzen du epistemologia genetikoak ezaguera bere forma eta maila ezberdinetan aztertu nahi duela, arazoa ezagutzaren sorreran eta garapenean dagoelako, ezagutzaren hazkortzean bai egitura berriak eraikiz bai hauen inguruko arau sistemak indartuz. Bukatzeko Haranburuk ikuspegi piagetarraren ahulezia batzuk aipatzen ditu eta horiek konpontzeko berrikuspen batzuen berri ematen du. Hirugarren ekarpena

Feli Etxeberriarena da. Piagetek hizkuntzari buruz duen teoria azaltzen du. Hasteko, pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa nola ikusten zuen, lehendabizikoa genetikoki aurretik datorrela, bigarrena sortzen denean aurrekoaren bitartekari bihurtzen delako. Haurrekin egindako behaketa eta esperientzia askoren ondoren, hizkuntzaren erabilpena garapen kognitiboan sartzen diren faktoreen arabera esplikatu zuen Piagetek, batez ere erabilpen horrek komunikazio funtzioa betetzen duenean. Hizkuntzaren egitekoa ez da primitiboa haurraren adimenaren garapenean, deribatua baizik sailkatzearan, segidak egiterakoan, asimilazioan, moldatzean eta orokortze nahiz abstrakzioan. Etxeberriak ongi jasotzen du Lev Vygotskyk 1934an hizkuntza egozentrikoaz Piageti egindako kritika zorrotza, barne hizkuntza defendituz eta honen semantikaz arduratuz. Piageten ikuspegi psikologiko nagusiaren barruan hizkuntza ez da elementu garrantzitsua, beti beste zerbaiten menpe dago. Ez da esplikatzailea, esplikazioa behar duena baizik. Azken zatian Etxeberriak Piageten jarratzaile batzuen emaitzak aipatzen ditu, haurren hizkuntza garapenerako behar diren eragiketen azterketaren premiaz jabe gaitzen, horrela Piageten ekarpenekin batera mugak ere aipatuz. Laugarren ekarpena neuk egina da. Piageten logika operatiboa dut aztergai, ez hainbeste logikan proposatu zituen bideak azaltzeko asmoz (Piaget ez zen logikaria izan eta logika formalaren barruko ezagupen askorik ere ez zuen izan), logikari buruz eta arrazoitze matematikoari buruz zituen ikuspegiak modu kritiko batez adierazteko baizik. Horregatik, lehendabizi hark logikaz zer hartzen zuen aurkezten dut, ez eragiketa konkretuen aldiaren haurrak zazpi bat urtetik hamaika bat urtera bitartean egiten duen horretan eta bai eragiketa formalen aldiaren azken fasean, gaztaroaren hasieran hamalau bat urtetik hamasei bat urtera eragiketen jabe egin ondoren egiten duena kontuan hartuz. Piageten ustez, logika ez dago hizkuntzan,

ezta munduan ere: logika ekintzan dago. Ezagutzaren garapenari lotutako ekintzaren logika omen da aztertu beharrekoa, horrela eraikitzen diren egiturak eta egitura hauen funtzionamendua aztergai bihurtuz. Etsai gogortzat jotzen zituen honetan ere positibista logikoak, baina Piagetek ez zuen gogoan hartu etsaietatik kanpo Frege, Russell, Hilbert eta Tarskiren ondotik egindako logika asko ezin zitekeela azaletik ezagutu eta alboratu.

Liburuaren hirugarren zatian bi itzulpen labor emanen ditugu argitara. Hauetatik lehena neuk egin da, ingelesetik euskarara. Houstoneko Unibertsitateko Richard Evans psikologia irakasleak Piagetekin izandako elkarrizketa luze bat eman zuen argitara 1973an *Jean Piaget, The Man and his Ideas* izeneko liburuan. Sarreraz gain, zortzi zati ditu liburuak. Azkenengoa Piageten argitalpenen berri ematera mugatzen da. Hirugarren zatia da nik itzuli dudana: *Adimena, Balioak, Ikerketaren Filosofia*. Bigarren itzulpena Larraitz Zubeldiak egin du. Kasu honetan Piageti buruz eta hain zuzen izenburu horrekin, *Piaget*, Margaret Boden Sussexeko Unibertsitateko psikologia eta filosofia irakasleak 1979an argitaratutako liburu kritikotik hartutako azken kapitulua da itzuli dena: *Zer garrantzi du Piagetek?*

Elbira Zipitriaren eskolan ikasle izandako pertsona batzuei esker, bi eranskin interesgarri sartu dira liburu honetan. Bietako bakoitzean azaltzen den zerrenda behin-behinekoa da. Hori bai, abiapuntu ona zerrenda zuzen eta osoak lortu ahal izateko. Lehenbiziko eranskinean Elbiraren eskolako ikasleen izenak jasotzen dira, 1943tik 1967ra. Bigarrenean, berriz, haren eskolako abestiak (61 guztira).

Ezin bukatuko dut hitzaurre hau aurretik esan dudana errepikatu gabe. Ea etortzen zaizkigun laster Elbira Zipitria zenaren eskolari buruzko eta eskolaren inguruko lan monografikoak. Ez gaude, kopuruz behintzat, unibertsitate faltan Euskal Herrian. Falta zaiguna unibertsitate



horien herri norabide argia da. Geurea geuk aztertzen ez badugu, ahaztua geratuko zaigu edo, gehienetan gertatu zaigun bezala, geure erroak ezagutzen ez dituzten kanpotarrek egindako azterketaren menpean geratuko gara: oker, ahul eta itxuragabetuak, herri oroimen bihurritu eta desitxuratuarekin eta historia propioa arrotz bihurtutakoarekin.

Ez dut bukatuko eskerrak eman gabe nirekin batera liburu hau benetan egin dutenei: Dionisio Amundarain, Garbiñe Anza, Idoia Mendizabal, Mikel Plazaola, Pello Huizi, Mikel Haranburu, Feli Etxeberria eta Larraitz Zubeldia lankideei. Baita eranskinetan azaltzen diren zere-  
renden egileei ere. Eskerrik asko bihotz-bihotzez elkar-  
rriketatuak izan diren Maria Luisa Castro, Maria Luisa Estornes, Maria Josefa Olabiaga, Maria Jesus Otaegi eta Itziar Rementeria andreei. Eutsi goiari.

**Jesus Mari Larrazabal**

**LEHEN ZATIA:**

Elbira Zipitria Gogoan



# 1

## ELBIRA ZIPITRIA GOGOAN

*Dionisio Amundarain*

Elbira Zipitria andereñoa haurren irakaskuntzan egin da ezaguna, batez ere; 1936ko gerra aurreko irakaskuntzak asko zor dio; askoz gehiago 1942-1970 bitartekoak.

Elbira ez zen mugatu, ordea, haurren irakaskuntzara. Lerro hauetan, hain zuzen, irakaskuntza horrez kanpo haren lanaz arituko naiz.

### **Ingurunea**

Labur-labur bada ere, hitz bi Zipitriaren kokagune sozio-linguistiko-politikoaz.

Elbira 1906an jaio zen, Zumaian, eta 1982an hil, Donostian, ospitalean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako bekaz egin zituen maistra-ikasketak, Donostian berean.

Ikasketa horiek amaituko orduko, 1926an, Migel Muñoa euskal mezenas handiaren euskal ikastetxean (1914-1936) hasi zen irakasle.

Pil-pil zegoen, garai hartan, Eusko Pizkundea (1876-1936) deitu izan den euskal mugimendua, esparru askotan gauzatua. Han eta hemen aspaldidanik, era etenean bazen ere, agertzen hasiak ziren urratsak trinkotu egin ziren 1876an Euskal Foruen azken aztarrenak galtzarekin.

Bizi-bizi sumatu zuen, hain zuzen, jende buru-argienak Nebrija espainol gramatikariak, Salamancan 1492an, Isabel erreginari bota zion hura: «después que Vuestra Alteza metiese debaxo de su yugo muchos pueblos bárbaros i naciones de peregrinas naciones, y conel vencimiento aquellos tenían necesidad de recibir las leies que el vencedor pone al vencido i con ellas nuestra lengua, entonces por esta mi *Arte* podrían venir enel conocimiento della»<sup>1</sup>. Jende buru-argia esan dut, baina jende xehea ere kontzientziatua zegoen arazoaz, neurri handian. Bertsolariek etab.ek bizi agertzen zuten atzerritarren eraso.

Foruen kontrako eraso bortitzak biziago bihurtu zuen herri-kontzientzia; baita euskal herritartasunean euskarak duen garrantziaren ustea ere. Jakina, foruak desegiteaz gain, izan zen bestelako akuilurik ere, baina aski izan bedi esandakoa, oraingoz.

Mugimendu aski zabala izan zen Pizkundea; bere nortasunari eusteko erronka sentitu zuen Euskal Herriak. Eta, besteak beste eta bere baitan ikusten zion garrantziaz aparte, herri-nortasunari eusteko tresnatzat hartu zuen euskara. Hala, euskararen aldeko hainbat baliabideri ekin zioten: kultur aldizkari, euskal jai, lore-joko, egunkari, euskal ikastetxea...

Egin zen Erakunde publikoetan euskara sartzeko ahaleginen bat ere: Foru Aldundietan, Udaletan... Baina ahalegintxo huts gertatu zen guztia. Arrakasta handiagoa izan zuten erakunde pribatuak sortzen: RIEV (Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria), 1907an Julio Urkixok fundatua; Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1919an Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuan sortua; Euskaltzaindia, 1919an sortua...

---

<sup>1</sup> Euskaltzaindia, *Euskararen liburu zuria*, 1978, 107. or.

Lau arotako Elbira bereiziko dut: gerra aurrekoa, gerra-denborakoa, 1942-1970 bitartekoa eta azken aro tristea.

## I. Gerra aurreko aroa: Elbira Zipitria garaiko ingurunean murgildua

Giro bizi horretan murgildu zen Zipitria buru-belarri. Ez zen esparru itxi batean egonean egoteko emakumea.

«*Elbira proselitista*»

Horrela ezaugarritzen du Elbira on Manuel Lekuonak<sup>2</sup>. Oiartzuna joaten zen, baina ez adiskide bezala, «proselitista» bezala joaten zen. Abertzaletasuna Oiartzunen erakutsi eta gauzatzera.

Horrelakoa zen Elbira. Harat-honat ibiliko zen, hazia non ereingo. Ohikoa zen, nonbait, garai hartan jarduera hori; bai Gipuzkoan, bai Bizkaian.

Mendira, taldean, egiten zituen ibilaldiek ere xede bera izaten zuten: bere eta besteen epelaldiei astindua ematea.

Eragiteko zen guztiak baliatuko zituen: kantak zirenean kantak, antzerkiak zirenean antzerkiak, dantza zenean dantza.

*Euskaltzaleak* taldeko eginik, Tolosan ere ibili zen, Aitzolekin batean, hango ikastola sortzeko arazoei aurre egiten.

---

<sup>2</sup> LEKUONA 'tar MANUEL, Elbira Zipitria, *Zipitria 'tar Elbire «Andereñoa» omenaldia*, Euskerazaintza 1986, 101. or.

### *Elbira idazle eta mitinlari*

Ez zen izan idazle oparoa, ezta idazle handi horietakoa ere. Baina artikulua koxxor bat baino gehiago idatzi zuen: *El Dían, Argian...* IRA ezezenez argitaratzen zizkioten lanak. Ez dakigu zein arotakoak diren, baina Iratzederrek dio, Elbiraren 89 eskutitz gorderik dituela.

On Manuelek dioskunez, Elbiraren proselitismoak fruitu ederrik utzi zuen Oiartzunen. Jende-sailak ekin omen zion idazteari: Tolosako *Euskal Esnalean* (1908-1910 eta 1911-1931) zela, *Zeruko Argian* zela...

Elbirak diosku, 1936an Donostiatik alde egin aurretik, erre egin zuela berekin zuen eskutitz-saila.

### *Elbira euskaltzale sutsu*

Garbizale itsua izan zen. Sabino Aranaren neologismoen zale: *bultzia* (trena), *zalburdia* (autoa), *izparringia* (egunkaria, periodikoa), *urrutizkina* (telefonoa), *txadona* (eliza)... Halakoak ziren garaiko *Euskaltzaleak*.

Haiantzat, euskararen arazo guztia-edo horretan zegoen: euskara garbi gordetzen, gaztelaniaren kutsutik gordetzen (nagusiki, Hego Euskal Herriaz ariko naiz). Jakina, gerora ere tinko eutsiko zion Zipitriak joera horri. Bazen bestelako joerarik bizi eta agertzen zuen jenderik. Beste joera batekoa zen Azkue, adibidez. Eta gogokoa zuen Elbirak Azkue. Baina honetan bai, hartan ez. Ez zen gehiegi finkatzen printzipio linguistiko zientifikoetan. Aurreratu dezadan: Koldo Mitxelenak, ezagutzen zuen arren, ez zion sortu erakarpen handiegirik; Euskara Batuaren kasuan ikusiko zenez. Lerro hauek irakurtzen jarraituko duen irakurlea konturatuko denez, ingurukoei egiten zizkien

zuzenketetan ere bazituen euskal egitura batzuen, gaur ontzat ematen ditugun batzuen, kontrako fobia batzuk ere. Esan daiteke, eragin handiagoa zutela «arrazoi» estralinguistikoek. Gaztelaniari zerion usaina zeharo uxatu behar zen.

### *Elbira emakume erlijioso suhar*

Euskal Ikastetxeak ez ziren sortu euskararen defentsarako bakarrik. Erlijioa ere auzitan ikusi zuten. Karlisten eta liberalen arteko borrokan ere ez zen falta erlijio-arazorik. Laizismoa arazo larri gertatu zen. Mendearen hasieran jadanik —nire honetan ez dut kontuan hartzen Ipar Euskal Herriko arazoa—gobernu espainolak debekatu egin zuen erlijioa irakastea. Errepublikak ere garai hartako euskaldun askoren kontrako jarrera agertu zuen erlijio-arazoetan.

Arrisku hari aurre egin beharra ikusi zuten. Migel Muñoaren ikastetxean, adibidez, euskaraz irakasteaz gain, helburuetarik bat zen erlijioa irakastea.

Elbirak sutsu bete zuen helburu hori. Bizitza osoan bete ere.

## **II. Gerra aldia**

Itolarria ekarri zuen 36ko gerrak. Beste askok bezala, Donostia eta bere lana utzirik, hanka egin behar izan zuen Zipitriak. Ez urrunera, ordea. Ipar Euskal Herrian aterpetu zen, Saran, Tolosako bere adiskide Labaiendarrenean.

Ez zen, han ere, besoak gurutzaturik egon. Berekin eramán zuen *Xabiartxo* liburu kutuna, Isaak Lopez Mendizabalek 1925ean idatzia, Muñoaren Euskal Ikastetxean erabili ohi zuena, eta ohiko bere lanean jarraitu zuen: Antonio Maria Labaienen eta haren emazte Pilar Sansi-



nenearen bi semeekin, Ramon eta Matxinekin. Oso go-goan izango dute bi hauek Zipitria bizitza osoan.

Bestelako lan asko, jakina, alde batera utzi behar izan zuen. Baina aurkitu zuen inoiz baino sakonkiago eta patxadatsuago gauzatu zuen lana: euskararen ezagutzan sakontzea eta Frantzian ziren pedagogiako bide berriez arduratu eta jabetzea.

On Josemiel Barandiaran labaiendarren *Prefetenea* etxetik hurbil bizi zela aprobetxatuz, harengana jotzen zuen sarri, euskararen inguruko haren iturrian edateko. Bide batez, aukera ona izan zuten han, beste euskal iheslari askorekin topo egiteko: Koldo Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Orixe etab. Ez zen Zipitria solasaldietan isilik egoten direnetakoa, baina bazekien entzuten ere. Josemiel Barandiaranen iloba Pilarrekin ere harreman onak zituen; gustukoa zuen Pilar; harekin ikasi omen zuen toka eta noka hitz egiten.

Orixerekin aparteko harremanak izan zituen. Jakin behar da, Orixe ez zela, guk ezagutu genuenean behintzat —gaixotasunagatik edo dena delakoagatik— harremanetarako oso gizon erosoia, eta Zipitriak ere, guk ezagutu genuenean, bazituela bere zailtasunak —bere irizpidea finkatu-finkatua, bere ikusmoldeari atxikia—. Halere, bidelagun ona izan zuen Orixe, baita Orixek ere hura. Jakintza-harrobia zen Orixe, eta jakin-min aparteko Zipitria.

Bestalde, bazuen ahizpa bat ere: Maria. Zaharragoa. Moja. Marseillan bizi zen garai hartan. Harreman onak zituen harekin; Jorge nebarekin baino hobek; pintorea zen hau eta, izaeraz, oso irekia, kanporakoia, estroberti-doa; Elbiraren alderantzizkoa; horregatik, ez zituen hain gogoko nebarekiko jendaurreko harremanak; jokabide nabarmenegiak izaten zituen nebak Elbiraren ustez. Baina Maria ahizpaz ari nintzen. Harekin harreman estuak zituen. Eta asko lagundu zion hark Frantziako pedagogi jarrera aurrerakoienez jabetzeko.

Hain zuzen, ahalegin handiak egin zituen Elbirak, «erbestealdian», pedagogia aurrerakoi horretaz ondo janzteko. Ahizpak asko lagundu zion zein argitalpen, zein eskola... ikusi adierazteko. Behin baino gehiagotan joan zen Elbira Parisko eskola jakin batzuk in situ ikusteko. Harrigarri samar ere gertatzen zaigu hori: pedagogian hain aurrerakoi agertu zena, ez bakarrik Sarako aldian, baita bizitza osoan ere, beste arlo batzuetan tradizio itsuari hain itsu lotua ikustea, batez ere 60. hamarkadatik aurrera; baina horretaz geroago ariko gara.

Aipatu hiru jarduera horiez gain, izan zuen besterik ere Sarako aldian. «Sarako neska gazteekin abesbatza eta dantza taldea sortu ditu», dioskute Resuk eta lagunek<sup>3</sup>.

Azkenik, ezin ahaztu Zipitriaren mendizaletasuna eta Aberri Egunarekikoa. Ezaguna zuen, Donostian bizi zenetik, Ori mendia eta hara joan zen Aberri Eguna ospatzera, Antonio Maria, Pilar eta Orixerekin.

### III. Donostiara berriro (1942-1970)

Halako batean, ordea, maleta eskuan zuela, «Banoa» esanez agertu zitzaien Zipitria labaiendarrei. Bere kabu hutsez hartutako erabakia? JEL alderditik iritsi zitzaion abisua? Ezin argitu izan dut. 1942a zen; zorrotzak ziren artean diktaduraren atzaparrak. Ausarta izan zen Elbira, giro hartan Donostiara etortzeko. Baina handia zuen ausardia. Halere, ausardiaz aparte, bazuen egoeraren zentzu garbirik ere. Klandestinitatearen zentzupean jardungo zuen aurrerantzean.

---

<sup>3</sup> RESU ABASOLO, JUANA LOPEZ DE MUNIAIN, ARANTXA URBE IRAZUSTA, *Ilunetik argira. Elbira Zipitria*, Hik Hasi, 2004, 18. or.

Gerra aurreko etxe bera egin zuen bizileku: Donostiako Parte Zaharreko Fermin Kalbeton 26a. Han gelditua zen Elbiraren lehengusua, Gregorio. Eta elkarrekin jarraitu zuten luze.

Zuhur, baina ausart, laster ekin zion lanari Elbirak. Etxez etxe lehenik, bere etxean gero. Baina, egoerak hartaraturik, gerra aurreko alde anitzeko lanbidea murriztu beharra izan zuen. Funtsean, irakaskuntzari lotu zitzaion. Atsegin zuen, ordea, mendira joatea ere; naturaz gozatzeaz gain, hiriko poliziaren jazarpenetik urrun, eta adiskide-taldetxo baten inguruan, kantuz eta abar aritzeko aukera ematen ziolako mendiak: asteko hertsapen gogorraren ondoren, arnas hartzeko egokiera izaten zuen irtenaldi haietan. Gainera, mendira ez zenean, herrietan han-hemen zituen lagunetara jotzen zuen asteburuetan.

### *Elbira irakasle*

Haurrei hezkuntza eta euskal irakaskuntza emateaz gain, bazuen bestelako egitekorik.

Hasiera beretik, arreta berezia behar zuen mutiko baten heziketaz arduratuko zen galdetu zioten. Saran, «erbestealdian», beren etxean hartu zuten Antonio Mariaren eta Pilarren lagun batzuen, egiatarren, semea zen: Migelmari Egia Kareaga. Urte askoz hartu zuen mutila Elbirak, egunean bi orduz. Harekin egindako lanak gainerako bere lanbidean asko lagundu ziola aitortu ohi zuen Elbirak.

Horrez gainera, bere irakaskuntza etxez etxe gauzatzeari utzi eta, 1946az gero eta, batez ere, 1947az gero —Gregorio lehengusuaren hiru ilobak Ameriketara joatean—, Fermin Kalbeton kaleko etxea ikastola bihurtu zuenetik, iluntzetan heldu-jendearen alfabetatzea eta euskalduntzea antolatzen hasi zen; bere etxean, jakina.

Donostialdeko jende asko pasatu zen etxe hartatik, euskal gramatikaz —deklinabidea, aditza, joskera— eta euskal kulturaz jabetzeko.

Bestalde, gero eta haur gehiago zetorkiola ikusirik, andereñoak prestatzen hasi zen. Egunez, praktikak eginenez —aldiko bat bakarrik eta urte betez— eta iluntzetan taldetxoan. Ondoren, Zipitriaren eskolan prestaturiko andereño asko hasi ziren nor bere etxe-eskolak irekitzen. Mari Karmen Mitxelenak, andereño horietakoak, *andereñoen trebatzaile* deitzen dio<sup>4</sup>. Esanguratsua da Mitxelena andereñoaren paragrafo hau: «Hasieran esan zidan, «malas maestras españolas zarete zuek»... azalpena hemen dator: «Malas» garai hartako Irakasle-eskoletako prestakuntza erabat atzerakoia zela zerizkion eta «españolas» gazteleraz jaso genuelako formakuntza»<sup>5</sup>.

Helduak eskolatzen egin zuen lanaz ari garela, ezin utzi aipatu gabe Lazkaoko beneditarretan jaso genuen laguntza. Bi ikasturtez, 1952-53 eta 1953-54 —liburuetan bi ikastaro horien urte-zifrak dantzan ibili ohi dira, batek urte bat, besteak beste bat emanenez—; laguntza ona izan dut Lazkaoko Joan Jose Agirre, liburuzaina, data horiek egiaztatzeko. Ni neuk ikasturte bakarrean, 1952-53an, izan nuen irakasle Zipitria. Aditzarena izan zen garrantzizkoena. NOR-NORI-NORK metodoa begietatik sartu zitzaigun. Ezin esan zerotik Zipitriarik sortua denentz metodo hori. Lazkaoko ikasle haietakoa izan zen Isidro Baztarrikak 1932an, gutxienez, nabari du aurrekari bat (ARRIGARAI, BONIFACIO DE ATAUN, Gramatica del euskera, San Sebastián 1932,

---

<sup>4</sup> MITXELENA, M.<sup>a</sup> KARMEN, *Bidegileak. Elbira Zipitria (1906-1982)*, Eusko Jaurlaritzak, 2005, 5. or.

<sup>5</sup> *Ibidem*

100-101 or.)<sup>6</sup>. Nolanahi ere, Zipitriak jarri zuen abian metodoa. Geroztik, arrakasta handia izan zuena. Ikus, adibidez, Isidro Baztarrikaren artikulua.

Guztien artean, ezin utzi aipatu gabe biok. Lehenik, *BAZTARRIKA TAR ISIDOR*, Aditza. Método NOR-NORI-NORK o el secreto del verbo vasco, Lazkao´ko Benedittarrak, 1968. Harritzekoa: liburu osoan behin ere ez du aipatu Elbira. Zergatik? Nago, maistrak metodoaz liburu bat argitaratzea, ez berak ez beste inork, gustukoa ez zuelako izan zela Isidrok ez aipatzeko arrazoia, haren mina ez areagotzeko; gainera, bospasei urtez plazaratu gabe eduki zuen Isidrok bere lana, nonbait, aipatua dudan arrazoia gatik. (Ikus geroago, *Elbira lanean xinurri* delako atalean, irizpide hau indartzen duten datu batzuk). Halere, Isidrok (gure artean Isidro zen eta ez Isidor) garbi agertzen du Elbirarekiko bere zorra, hura hil ondoren (Ikus Euskerazaintza...). Bigarren, *José Maria de Latxagaren* tesia, Parisko Sorbonan frantsesez defendatua eta gaztelaniaz argitaratua —*JOSE MARIA DE LACHAGA*, La representación del tiempo en el verbo vasco, Bilbao 1994—, zeinetan oinarritzat Isidro Baztarrikaren liburuan ikusitako NOR-NORI-NORK metodoa hartzen baitu oinarritzat.

Markel Izagirrek<sup>7</sup> esaten duen bezala, ez zuen euskara irakasten ingelesa irakatsi ohi den bezala, baizik zapaldurik dagoen hizkuntza baten irakasle bati dago-kion bezala; euskal ohiturez etab.ez arretatsu agertu ohi zen. Hasieran gerra aurreko liburuez —Zabala-Arana, Arrigaray-Ataun...— baliatzen zen; gerora, horiek ere baztertu zituen; helduentzat ere bide berriak urratu nahi zituen: errazagoak, arinagoak. Ezin eraman zuen eus-

---

<sup>6</sup> ISIDOR BAZTARRIKA, Elbire Zipitria. NOR-NORI-NORK Metoduaren Sortzaile, Euskerazaintza 1986, 87-88 or.

<sup>7</sup> IZAGIRRE, MARKEL, Elbira´ren Gau-Eskola, Euskerazaintza, 25-29 or.

kara irakasteko erdara erabiltzea. Euskarekiko senaz, euskararen beraren legeez nahi zituen hornitu ikasleak. Gramatikariaren hitz dotoreak —sujeto, transitivo, intransitivo, complemento etab.— baztertu. Horien ordez, lehenago aipatu ditugun NOR-NORI-NORK terminoen tankerakoak erabiltzen zituen. Apaizengatik hau esaten omen zuen (nik neuk ere entzun izan nion iritzi hori beste hitz batzuez adierazirik): «Gizajoak! Ez dute erraza nere iritziok artzea, latinez leporaño kutsatuak ditugu-ta». Azkue, Altube eta Elizalde zituen iturri; baina bere erara birmoldaturik emango zien ikasleei haien irakaspena.

Honen inguruan bada bitxikeria polit bat. «El Agente ertzainarekin naastutzen zuten (haurrek). El Paciente berriz ortxen nunbait gaixotegiarekin elkartzen zuten. El Recipiente beste aldetik barreñua, pitxerra edo zernai tresnarekin naasten zuten»; Latxagaren hitzak, Elbirari entzunak<sup>8</sup>.

Euskal literatura ere ematen zuen. Lizardi eta Orixe zituen gogokoenak. Han eta hemen, bere harremanetan, jasotako esapideak askotan komentatzen zituen.

Berekin hartu zituen haurren gurasoei erdaraz hitz egiten entzuteak sutu egiten zuen.

### *Elbira ikasle eta solaskide*

Oso mendizalea zen Elbira, esana dugunez. Baina bazuen joera asteburuetan lagunak ikustera joateko ere. Horietako bi On Josemiel Barandiaran eta Pilar iloba zituen. Josemiel asko miresten zuen. Pilar, berriz, ahozko hizketaren eredutzat zeukan; Donostiara ere askotan joanarazten duen etxe-eskolakoen ispilu.

---

<sup>8</sup> LATXAGA, Elbira Zipitria ta Euskal Aditza, Euskerazaintza, 94. or.

Beste bat, Orixe. Hau Lazkaora, beneditarretara etorri zen orduko —Lazkaoko beneditarretara 1955eko urtarrilean etorri zen, eta urtebete inguru egon—, hemen zuen bisitan Elbira. Orduak eta orduak egingo zituen, entzun eta galdetu, galdetu eta entzun

Bai, gustura joaten zen Lazkaora. Bazituen hemen familiarrekoak eta. Bazuen, hemen, adiskide min bat ere: Miren Garate; izatez Zarauzkoa, baina Lazkaon, urte askotan eskola estataletan irakasle zena, bertan bizi zena. Harreman beroak zituzten.

Gogoko izaten zuen, orobat, beneditarretara joatea: meza entzun eta, segidan, batekin edo bestekin, batez ere aita Mauro Elizondorekin, hitz-aspertu bat egiteko.

Bazuen beste solaskide bat ere, gogo-gogokoa. Bazuen Sollube ondoko herrixka batean, Mañun, apaiz ezagun bat, Gotzon Garitaonandia. Honen bidez ezagutu zuen herrixka berean bizi zen Bizkaiko edota Euskal Herriko Amama, 106 urtekoa ezagutu zuenean. Sarri joaten zen Amamagana. Bera ez ezik, haurrak ere eramaten zituen harengana, baita ikasle helduak ere. Gozatu egiten zuen hari entzuten. Eta aurreratu dezadan: beraren gogoia betez, Amamaren ondoan lur eman zioten gure andereñoari 1982ko abenduaren 27an.

Baina ahuntzak beti mendira. Ez zuen aukerarik galduko solaskideak euskarazko akatsen bat (Elbiraren usteko akatsa, esan nahi dut) egiten bazuen, hari auto-zuzenketa eginarazteko. Adibidea: —Zertaz hitz egin du apaizak hitzaldian?, Elbirak. —Ama Birjinaren gainean, solaskideak. —Ze, Ama Birjinaren gainean jarri al da apaiza?, Elbirak.

Bai. Zorrotza zen. Hitzak ondo neurtu behar izaten ziren haren aurrean. Baina ez pentsa: benetan maitagarri egiten zen; asmo onez, xede handi baten atzetik, bere burua eskainiz... ari zela antzematen zitzaion. Hori bai: tamaina hartu behar izaten zitzaion.

## *Elbira abertzale*

Gerra aurrean bezala, bere alderdiari loturik, jelzale sutsu jarraitu zuen. Eta abertzale. Ez zuen huts egin Aberri Egun bakar bat ere. Bere erlijiotasunean Pazko-jaiari aparteko garrantzia ematen bazion ere, eta jai horren erlijio-ospakizunari garrantzi txikiagoa ematen ez bazion ere, Pazko-egunean aberri-eguna zen gailurra. Poliziak bideak itxiko zituela-eta bezperatik hurbilduko zen behar zen lekura. Adibidez, 1966-04-10eko Aberri Egunerako, Gasteizen ospatu zen hartarako (bestea Irun-Hendaian ospatu baitzen), Estibalitzen eman zuen gaua, adiskide min zuen Lazkaoko Miren Garaterekin batean. Ibiltzeko ere trebea zen, eta Estibaliztik Gasteiza bitarteko 8/9 km-ak oinez egingo zituen.

Munduko Euskal Biltzarra egin zen Parisen 1956an. Han elkartu ziren erbestean bizi ziren Euskal Herriko ordezkariak E.H.ko egoera aztertzeko. Han zen Zipitria ere. Aukera ona ezagun zaharrekin egoteko eta herriari zegozkion gauzetan egunera egoteko.

Jose Antonio Agirre lehendakaria hil zela entzun orduko, 1960-03-22an, negarrari eman zion Elbirak, mundua gainera erori balitzaio bezala. Laster itzartu zen, ordea, eta «Zerbait egin behar dinagu» esanez, bazterrak astintzen hasi zen: honi eta hari eskutitza, beste hari abisua...; bezperatik joan behar zela Donibane Lohitzunera hiletak ospatzera, etab. Baita joan ere bera, lagun batzuekin, jakina.

Ez zen ibili, gerra aurrean bezala, mitinak ematen, baina edozein aitzakia zuen aukera on inguruko jendea berotzen eta astintzen hasteko, jende askoko ingurune handitan ez izatekotan. Aukera guztiak zituen on euskararen alde jarduteko. Elbiraren eta lagun batzuen eraginez hasi ziren, Donostian, San Ignazio elizan meza euskaraz ematen hilaren lehen ostiraletan, baita Jesuitetan ere igandetan.



## *Elbira feminista*

Dakidala, ez zuen idazkirik argitara eman deskribatzen ari naizen aldi honetan, 1942-1970 bitartean. Eta ezin esan dut zertaraino zuen sakondua gai hau. Baina aski bitez ahozko pare bat pasadizo.

Lehenengoa Donostian gertatu zen. Lehenengoz meza euskaraz ematen hasi zirenean. Apaiza, mezakoan, «anaiak» gora eta «anaiak» behera aritu omen zen. Meza amaitu orduko, Elbira sakristiara, eta gizona zkoentzat bakarrik aritu ote zen galdezka apaizari, moko-zorrotz. Hurrengo igandean, apaiza «anai-arrebok» esanez. Zipitria sakristiara berriro, «anai-arrebok» esan orde, ez ote zekien «senideok» esaten.

Bigarrena, Lazkaon, beneditarretan. Hemen ere apaiza «Anaiok, egin dezagun otoitz...» esanez. Zipitria, meza bukatzean, sakristiara ez, baizik monasterioko harrera-gelara. Sakristian aurki zezakeen lagun bakar baten orde, gehiago harrapatu nahi harrera-gelan. Eta ikastaldi osoa han.

Bai, gaurko feministen aitzindari gure Elbira. Begiak aurrera begira. Gauza askotan. Baina ez, haatik, gauza guztietan.

## *Euskara batuaren aurrean ernegatua*

Pedagogian garaiko biderik aurreratuenen bila ibili zen. Sarako aldian, orduan punta samarrean zebilen Maritain filosofoa ere irakurri zuen. Donostiara itzultzean, Karlos Santamariarekin solasaldiak izan zituen.

Baina 50. hirugarren herenetik aurrera Hego Euskal Herrian garatzen hasi zen mugimenduak —kulturalak, sozialak, politikoak, militarrik? (ETA 1959)— atzera eginarazi zion. Ezin jasan izan zuen. Neurri handian Txomin Agirrerren GAROAn gaitzesten zena ari zen ikusten begi

aurrean, eta ideologia harekin zegoen bera, neurri handian, ezkondua.

Eta 50/60. hamarkadetan urratsak ematen hasi zen euskara batua, mugimendu zabal haren mirabe zen El-biraren, eta beste askoren, ustetan. «Euskara Batua, historikoki, ez da soilik arazo linguistiko hutsa, zerbait askoz zabalagoa baizik. Euskal bizitza osoaren instantzia kritikoaren bideratzaile bilakatu zen: alderdi politikoena, forma sozialena, ohiturena, literaturarena, etab. Euskara Batua «urbanoa» dela esaterakoan eta aurreko hura «baserritarra», auzipean dagoena ez da bi forma desberdinen arteko kontua, bi mundu edo bi eduki baizik»<sup>9</sup>. Zipitria, esana dudanez, Sabinoren garbizalekeriaren aldekoa bazen ere, ez du ematen batuaren/euskalkien kontuan haren iritzikoa zenik. «Egitura federala aldarrikatu zuen Aranek Euskal Herriarentzako eta hizkuntzaren plangintzan ere egitura horri eustearen aldekoa zen. Sei ziren... Aranaren ustez eraiki beharreko literatur euskalkiak»<sup>10</sup>. Bazuen kezkarik Zipitriak euskara batuaren gainean, Orixerekin Lazkaon izandako solasaldian agertu zuenez, baina ez zuen jakin errealitatea irakurtzen eta interpretatzen. Buru-argia zen, baina zerbaitek huts egin zion Munduko Bigarren Gerratearen ondoren Euskal Herria egosten hasi zen mundu-ikuskerari, urrun samarretik bazen ere, antzemateko. Arriskuaren aurrean trikuak egin ohi duena egin zuen: bere arantza artean bil-bil egin. Galera handia izan zen hori, bai beretzat bai euskararen alorrean egin zezakeenarentzat. Hipotesien mundura joz, Zipitriak, gerra ondoko urteetan solaskidetzat Aitzol bezalako bat izan balu, gaindituko zituzkeen hein handian, segur aski,

---

<sup>9</sup> LARRINGAN, LUIS MARIA, Euskara Batua eta euskalkiak, in JAKIN, 76 maiatza-ekaina 1993, 25. or.

<sup>10</sup> ZUAZO, KOLDO, Euskalkiak. Askatu gabeko korapilo, in JAKIN, 76 maiatza-ekaina 1993, 53. or.

bere ideia hertsia: «(Aitzol) Ikertu dutenen zenbaiten ustez, II. Errepublikara garaian, aurreko mendean foruen erregimenaren galerarekin galdutako subiranotasuna berreskuratzea lortu balitz, Aitzolek ideia zaharkituxeok aldatuko zituzkeen...»<sup>11</sup>

### *Elbira lanean xinaurri*

Saratik Donostiara itzuli zenetik, klandestinitatean jardun behar izan zuen. Horregatik-edo, natura edo izaera berri bilakatu zen Elbira. Gerra aurretik jendaurrean ibiltzen zen hura, ezkutuko eta isileko inurri bihurtu zen. Etxez etxeko eskola. Fermin Kalbeton kaleko bere etxekoa eskola. Lazkaon beneditarrei emandako ikastaroak; esparru itxian. Hortik ez zen atera, esateko, lane-rako. Ikastaro bat edo bi eman omen zituen Donostian Círculo Guipuzcoano-n; besterik ez.

Esana dut, Isidro Baztarrika beldurrez bezala ibili zela aditzari buruzko liburua argitaratzeko. Ez zuen nahi izaten Elbirak bere izena jendaurrean aipatu ere egitea. Manuel Lekuonak hau diosku: «Nerekin bi aldiz asarretu zan; eta bietan batean, nere itzaldi batean, Elbira Zipitria izena aipatu nualako izan zen»<sup>12</sup>. Gauza bera esan izan du urte askotan irakasle izan den Lazkaoko M.<sup>a</sup> Karmen Aranburuk: Hitzaldi batean Elbira Zipitria aipatu, entzule batek horren berri Elbirari eman eta eskutitz gogorra idatzi ziola: nor zara zu nire izena aipatzeko? esanez.

Bai, oso ezkutuan gordetzekoa zuen bere burua. Argazkiak ere ez zituen batere gogoko; oso gutxitan onartuko zuen berari argazkirik egitea. Nago, klandesti-

---

<sup>11</sup> SUDUPE, PAKO, «Aitzol Errenazentista», in JAKIN 97, azaroa-abendua 1996, 80-81 or.

<sup>12</sup> LEKUONA´tar MANUEL, aip. Euskerazaintza 99. or.

nitatean bizi behar hark bigarren izaeradun bilakatu zuela gure andereño handia.

«Moxorro-moxorro beti... lanean aritzekoa zen», diosku On Manuel Lekuonak<sup>13</sup>.

#### IV. Elbiraren itolarria (1970-1982)

Gauza jakina denez, Zipitriaren amets eta xede nagusi-nagusia, haurren eskola zen. Haurrak euskaraz hezi eta euskaraz hazten laguntzea. Baina Espainiako Gobernua, 60ko hamarkadaren azken aldera, haur guztiei Eskolaratze Agiria eskatzen hasi zenean, Donostian eta Euskal Herri osoan ziren etxe-eskola guziek dilindan ikusi zuten beren geroa. Legeztatu beharra. Eta horra Elbirarentzat eta lagunentzat erronka handia. Elbirarentzat mutur-muturrekoa.

Amore eman behar izan zuen azkenean. Eta 1970ean legeztatua zuten «Orixe» ikastola. Baina ezin irentsi izan zuen egoera berria. Jarriegia zegoen, hainbat urtetako jardueraz, gauzak bere erara eta moldera antolatu eta erabakitzen. Egoera berrian, hegoak moztutako txoria bezala ikusi zuen bere burua. Eta lehen aukera etorri orduko, alde egin zuen ikastolatik. 1971n, 65 urte bete zituela eta, erabat utzi zuen ikastolekiko harremana.

Ez zuen gogoko ez «Orixe» ikastola. Ez bestek. Esateko, Lazkaoko ikastola ere ez zuen gogoko. Hartaraino, non Lazkaon zuen ahaide bat ikastolan buru-belarri sartua zebilelako, ordu arte familia harekin zituen harremanak, hautsirik ez, baina ospindurik gertatu baitziren.

---

<sup>13</sup> Ibidem

«Elbira gaztetan txoria bezain alaia zen, beti abeslari, gerora goibel biurtu bazan ere»<sup>14</sup>. Bai, benetan goibel. Gorputzez eta gogoz gainbehera hasi zen. Bera ere jabetu zen.

Ez zen jadanik lehengo emakume argi hura. Azken hilabeteetan egonaldi luzeak egin zituen erietxean. AGUR aldizkarian eta Euskerazaintzaren bileretan parte hartu ohi zuen. Baina ez zion horrek guztiak batere onik egiten. Sendagileek ere esana zioten euskarari eta Euskal Herriko beste arazoei buruzko tirabirez ez jarduteko, estuegi hartzen zituela.

Azkenean, Donostiako ospitalean zegoela, 1982ko Egu-berri-egunean, apaizari deitzeko esan zien ondoan zituen bi adiskide minei. Apaizarekin egon zen. Eta 1982ko abenduaren 26an itxi zituen begiak. Biharamunean Bizkaiko Mañu herrixkan, Amamaren ondoan lur eman zioten.

Euskaldun eta euskaltzale handi batek utzi gintuen. Euskaltzale eta pedagogo handia. Asko zor diot. Asko zor dio Euskal Herriak. «Askok eta askok zor diote Elbira´ri beren pedagogi-jarrera, eta askok eta askok, zoritxarrez, jakin gabe nori zor dioten» (andereño batek, Jauregi Arzelus´tar Mertxe-k aipatua, in Euskerazaintza 65. or.).

Neure baitan, gorabeherak gorabehera, pertsona orok dituen ahuldadeak ahuldade, Tolosan frantziskotarren komentuan sakristau bukatu zuen baina proselitista-lanean jarduen zuen Elbirekin gaztetan Oiartzunen harreman estuak izan zituen Antonio Lasaren iritziz honekin geldituko naiz funtsean: «Neska zoragarria zan. Nolako giro gozoa sortzen zuan inguru osoan! Zeiñen ederki pasatzen zan denbora arekin!»<sup>15</sup>

---

<sup>14</sup> AGIRRE´tar M.<sup>a</sup> DOLORES, Buru argia eta zorrotza, Euskera-zaintza 32. or.

<sup>15</sup> GARATE, AITA JOXE A., Elbira Zipitria Irastorza (Andereño ospetsua gogoratuz, Euskerazaintza, 109. or.

## 2

### IKASLEAK LEKUKO

#### 2.1 GURE IKASTOLA TXIKI KLANDESTINOA

*Garbiñe Anza*

TXIKI, andereñoren etxebizitzako gela txiki bat besterik ez zelako. KLANDESTINOA, berriz, noizean behin, «inspektorea» zetorreanean, denok bai sukaldean, bai komunean, gorde behar izaten genuelako; baita ere festa espainoletan ikastolara xorrerik gabe, disimulatzen, joan behar izaten genuelako.

Ikastolakoak lau taldetan osatuta ginen. Arratsaldeko txikiak (bost urte), arratsaldeko handiak (sei urte), goizeko txikiak (zazpi urte) eta goizeko handiak (zortzi urte). Talde bakoitzeko bost, sei edo zazpi haur.

Orokorki, ikastola erlijiosoa, diziplinatua, pedagogia erabat aurreratukoa eta nonbait merkea zen. (Ezin zezakeenak ez zuen ordaintzen.)

Ostegun goiza berezia zen, Gaztelura joaten baiginen. Ez jolastera bakarrik, askotan lan egitera ere bai. NATURA han ikasten genuen, libururik gabe noski.

Oso garrantzitsua da aipatzea guk erabiltzen genituen material eskasak, baina bidez batez nahikoa zirenak. Arratsaldeko bi taldeetakoek, esate baterako, *Martin txilibitu* liburuxka bakarrik erosi behar izaten zuten. Beharrezko beste gauzak andereñok zeuzkan: txotxak, arbela eta igeltsua (karea) eta bere dohain berezia abesti eta olerkiak,

ez abestu eta esateko bakarrik, antzezten ere erakusteko baizik. Aipagarria da belarri txarra zeukatenei isilik ahoskatzea eskatzen ziela. Horrela, koru txiki zoragarri bat osatzen genuen, itxuraz, denok parte hartuta.

Goizeko bi taldeetakoek zertxobait gehiago erosi behar izaten genuen: *Xabiartxo* liburua, *Kristau Ikasbidea*, *Itun Zarreko Kondaira*, Bloka (marrarik gabeko orriak zituen), arkatz gorri-urdina, arkatz beltza, axota eta borragoma. Axota zortzi urtekoek bakarrik erabil genezakeen. Blokak ondo zaindu eta aprobetxatu behar genituen. Ezin genuen lanak gaizki egiteagatik orririk kendu. Borratu eta berriro egin. Lau urtetan, guztira hamazazpi bat blok izan nituen.

Beste ezeren beharrik ez genuen. MATEMATIKA arbelean erakusten zigun. Lutelestia (mapamundia) berak zeukan eta oso ume gutxi ginenez eta lurrean borobilean eserita (baita andereño ere), ez genuen arazorik ludi guztia ikusteko. Beti azpimarratzen zigun lehenengo gure geografia ikasi behar genuela eta ondoren beste guztiak. HISTORIA ez genuen ikasten (hala uste dut behintzat).

Azkenengo mailan, zortzi urtekin, erdara sartzen hasten zitzaigun, batez ere GRAMATIKA aldetik. Ortografia, irakurketa, analisi morfologikoa, sintaktikoa eta abar.

Matematika, berriz, euskaraz ikasten jarraitzen genuen. Eta ondo asko gainera. Hura logika! Bai batuketak, bai kenduketak, bai batuketa laburrak eta baita zatiketak egiteko ere. Badaukat nik muestra ederra blok batean. Batetik zazpi edo zortzi zifraz (dibidendoan) eta bestetik hiru edo lau zifraz (dibisorean) osatutako zatiketa, hitzez idatziz egina. Pentsamolde guztia hitzez idatzita. Noski, horretarako aurrelana asko sakondua genuen. Kaniken bitartez (txikiak batekoak, erdi tamainakoak hamarrekokoak eta handiak ehunekoak ziren) eta *Andre Joxepa Tronpeta* abestiaren bidez, trukutzen oso ondo genekien. MATEMATIKA euskaraz irakasteak ez dut uste kezka handirik sortzen zionik. Baina oso ondo gogoratzen dut

behin nola esan zigun: kolegioan «transposición de términos» entzuten duzuenean, gogoratu Gazteluko atiaz. Hantxe erakutsi zigun hitz handi horren esanahia. Gazteluko bidean egurrezko ate bat zegoen, aurrera eta atzera kisketarik gabe mugi zitekeena. Gutako hiru alde batean eta beste hiru bestean kokatuz, talde bakoitzak bere aldera indar egiteko esan zigun. Atea, noski, erdian, bi aldeko indarrak berdinak baitziren. Halako batean, isil-isilik, baina denok entzun ahal izateko moduan, gutako bati beste aldera pasatzeko baina indarra bere taldearen alde egiteko esan zion. Ondorioa: atea geldu erdian. Hauxe zen «la transposición de términos». Hau anekdota txiki bat besterik ez da, baina, esan bezala, haren pedagogia izugarri ona zen.

Notarik ez genuen jasotzen hilabete bukaeran. Hori bai, etxeko lanak zuzentzerakoan zorrotza zen edo ginen (batak bestearen bloka zuzentzen baikenuen. Akats guttiak arkatuz gorritz adierazten ziren. Lana orokorki narras edo gaizki bazegoen, andereñok berak idazten zuen gorritz eta diagonalean (*OSO NARRATS*, *GAIZKI*, edo horrelako gauzak). Oso ondo zeudenean, berriz, (oso gutxitan) urdinez zihoan *ONGI* edo *OSO ONGI*.

KRISTAU IKASBIDEA, goitik behera eta behetik gora, buruz jakin behar izaten genuen, zazpi urtekin lehenengo jaunartzea egiten baikenuen Santa Teresa elizan. Oso zorrotza zen gai honetan.

IRAKURKETA bezala *Xabiartxo* eta *Itun Zarreko Kondaira* erabiltzen genituen batez ere.

Ikusten den moduan, material oso gutxirekin zer ikasi handia genuen. Hasieran diziplina aitatu dut. Egia esan oso zuzena zen bera eta halaxe hezi gintuen. Baina traumarik ez dut. Garrasirik ez genuen egiten, ezta ergelkeriarik ere. Komunera behin joaten ginen, txandaka txandaka, gogoia izan edo ez. Hortik kanpo, norbaitek berriro joatea eskatzen bazuen, haren ustez ume hori gaixorik zegoen eta, beraz, gurasoei abisua ematen zien.



Abesti, olerki eta antzerkiei garrantzi handia ematen zien. Aipagarria da horietako gehientsuenak iparraldekoak zirela.

Ikastaroaren bukeran, urtero ARANTZAZUra joaten ginen; Elizan otoi egin ondoren, paella bazkaltzera joaten ginen restauranterara eta postrea bukatuta *Arantzazuko Herri Irratia* antolatzen genuen, benetako irratsaio bat balitz bezala; tarte honetan bakoitzak eskatutako abestiak abesten genituen. Bukatzean, frontoira jolastera eta gero autobusa hartu eta etxera.

Gutxi gora behera haxe zen gure ikastola. Burutik kendu ezineko ikastola eta andereñoa. Txikia, xinplea, baina kategoria handikoa, berari esker. Bederatzi urtekin mojetara edo fraideetara joaterakoan nabarmen zen nondik genitozen. Alde batetik, noski, gure gaztelania oso eskasa zelako, baina bestetik gure buruak, gauza askotan behintzat, oso argi genituelako.

## 2.2 ELBIRA: ENE ANDEREÑO BAINO ZERBAIT GEHIAGO

*Idoia Mendizabal*

—«Amatxo» ez da esan behar. Ama, AMA da, ez «amatxo».

—«Ñoñokeriak alde batera!»

—

Hauexek izan ziren aditu nituen lehenengotako esaldiak eskola klandestino hartara eraman nindutenean....

«Keri» atzizki despektiboa maiz erabiltzen zuen. Alderdikeririk etzuen onartzen, baina alderdikeriak jan zuen, bakardadean geratu arte. Denok ditugun kontraesanak. Gizakia zen, azken

Jakin izan balu izen arabiarra zuela... Ah! Eta «uvez» idatzia!

1952an, Faustina andereñorekin nengoela, Elbira-rengana eraman ninduten eta 7 urtetan zehar jasotako euskal-eskola nire heziketaren zutabea izan da. Fermin Kalbeton kalean Martin Arrazola —a zer nolako zaplastekoak jasotzen zituen!—, Joxemi Zumalabe, Elixabete Alba, Maite Rekarte, Mikel («Martxatrás»-en semea) eta besteak topatu nituen.

Eraz-eraz gizarteratu nintzen: ondo pasatzen nuen lurrean eserita, kantatzen, Lizardiren olerki zoragarri haiek buruz ikasten, pottokaka kontatzen.

Dantzatzea eta kantatzea ikaragarri dibertigarria zen. Dantza saioak bi motatakoak ziren: agerraldiak gurasoen aurrean Urgullen, eta bestalde txangoak zeuden: herriz-herri, plazetan dantzan eginez, bapatean agertzen ginen ikusleak erakarritz, haien artean euskal folklorea zabal-tzeko asmoz.

Besteetan mendira joaten ginen; nire mendiko botak, erosi berriak, ridikulizatu zituen denon aurrean. —«Abarkak eraman behar dira!»— «Zapata egokiak eta ez ñoñokeriak!». Ez nion jaramonik egin: harro nengoan.

Behin batez, Lourdesera joan ginen mirari baten eske: Mikel-ek («Martxatras»-en semeak) zuen gaitza senda zedin eskatzera.

Oroitzen ez dudan herri bateko komentu batera bere ahizpa —moja— ikustera joan ohi ginen baita ere.

Plazetan gure kantaldiak egiten genituen. Diska bat grabatu genuen, beste aldean, euskal kantu zaharrak eta euskal olerkia sakonki eta aktiboki lantzen baitzituen . Nire euskal altxor kulturala garatzen zihoan...

Nemesio Etxanizen «Aixa, dijoa Felixa» aurrerakoie-gia omen zen gure andereño abarkazalearentzat. Apaiz ausart honek abesti alaiak umorez berregiten zituen eta...Oso axaleko letrak edo...

1956: Lehen jaunartzea (euskaraz, jakina!) Santa Teresan; nire jantzia ezohikoa zen, baina harro nintzen eta berak onartzen zuen. Haren irizpidea jarraitzen nuen, ez beti, baina estimu handia nion.

Goizero aitaren gozotegitik croissant hartu eta gosaltzeko eramaten nion. Aldi berean, «gela» prestatzen ere laguntzen nion: kaikua astindu, berak lo egiten zuen alkobako kortinak itxi...eta abar. Haren lehengusua azaltzen zela ere oroitzen dut. Atarian egon ohi zen indar polizialak zelatatzen.

Ikusgarria zen nola eraikitzen zuen gure Elbirak bere mototx berezi hura, mugiezina, haize nahiz euri, sekula suntsitzen ez zena. Jantzkerak ere guztiz esanguratsua zen: bere idealismoaren sinbologia. Jantzkerak bere pentsamendu eta usteak irudikatzen zituela esan nahi dut.

Bera, bere osotasunean ikur hutsa zen, idealismo handikoa, aberria kemen handiz maite zuena.

Bere misioa bete behar zuela garbi zuen. Ongi bete gainera. Misio historikoa.

Betebehar historiko batez jabetuta. Betebehar horrek, eskolak ematera eramaten zuen, oztopo guztien gainetik...

Ez zituen haurrak gogoko, eta halere, lan hori egiteko mundura ekarri zutela zinez uste zuen, nire ustez behintzat. Beste dena utzita, bakar bakarrik, aurrera, bere lanari ekin zion oztopo ororen aurrean, bere bandera partikularra etengabe altxatuz.

Eta benetan... bere buruari jarritako misio historikoa burutu zuen, ezta?

Gu, dirudunak, «pijoak» ginen haren aburuz. Martinen masailak beti gori ikusten nituen, baina ni ez ninduen sekula jo. Elkar estimatzen genuen.

Paperezko txori laranja oparitu zidan sari gisa eta azkenengo urtean gutun hunkigarria bidali zidan, hori bai, gorriz idatzia. Kolore hori erabiltzen baitzuen ohar garrantzitsuak adierazteko. Nonbait ikasle ohiek utzi egin zuten eta bakarrik sentitzen zen.

1959: San Bartolomera joan nintzen; gustura: «Ingreso»-a erdaraz gaintitu eta harengandik jasotako ikasketa guztiak bete nituen. Haien artean (lehen gauza!) Espainiako bandera kentzea... kar kar kar.

Nire ama haren euskara eskoletara joaten zen (gauzez jakina!) eta Valverde margolariak —besteen artean ikaskide-, gupil bat asmatu zuen (gordeta dut) aditzak menperatzeko: oso bitxia eta praktikoa.

Frogatu zuen bitarteko urriekin baina entrega eta dedikazioz lorpen handiak gauzatu daitezkeela.

Oroitzapen gozoak, ahaztezinak, eredu-garriak... Bere izaera indartsua miresten nuen. Malenkonia apur batez oroitzen ditut urte haiek: nire bizitzaren euskal kultur oinarria andereñori esker lortu bainuen. Bere nortasun izugarria biziki baloratzen nuen eta nigan ereindako bizietika gogor hura, leunduz eta egokituz joan da urtetan zehar, jakina! Mende erdia pasa da!

### 2.3 ZIPITRIA'TAR ELBIRA, BERE ESKOLAK.

#### JENIALITATEAREN ONURAK... JENIOAREN PREZIOAN

*Mikel Plazaola*

Umoretsu gonbidatu ninduen Jexux Marik (J.M. Larrazabalek, hain zuzen) Elbira Zipitriari buruz zerbait idaztera, bere eskolei buruz lekukotasun xume bat ematera. Hasieratik erakargarria egin bazitzaidan ere, segituan ohartu nintzen Jexux Marik *Pandoraren kutxa* ireki zuela, eta Elbirak barka nazala gazteleragatik (horretan hain zen zorrotza...) baina «*Un soneto me manda hacer Violante, que en mi vida me he visto en tanto aprieto....*» moduan zeren, zer esan?, nola jardun? Duela lau hamarkada bizitako esperientzia erabakigarriez bost orrialdetan soilik?.

Liburu bat, tratatu mardul bat balitz, tira; baina bost orritan bakarrik, halako esperientzia baten mamia esateko aukera... hautatu, zentsuratu, erabaki egin behar beraz.

Jexux Mariri lehen oharra:

—«Gai honetaz idatziz gero, egiaz idatziz gero, agian ez dituk «post mortem» espero daitezkeen gorai-pamenak bakarrik sortuko, agian mingostasun izpiren bat ageriko duk...»

—«Ez haiz hala pentsatzen duen bakarra!» berak..., tira ba.

## **Horregatik izenburua**

Norbere burua analisi luzeetan sartu ondoren haurtzaroaren eraginaz bere (eta besteen) nortasunaren egitura-tze bidean, gauza jakina da, baita esperientzia hauetan ere, lehen eskolaratzea, ikastolaratzea hain zuzen ere, erabakigarri den esperientzietako bat dela. Gurean ere halakoa izan zela, urteen poderioz nabari azaldu izan zait zenbaitetan, begien aurrean. Baina oroimen nahas-mahasa ardazterakoan, agian hiru puntuz balia naiteke: batetik, ezin al-bora utzi gure heziketarako bidaltzen gintuztela gurasoek, «Heziketa berritzailerik berritzaileenaren eta kontrakulturalenaren laborategira», Fermin Calbetoneko bigarren pisu hartara; bestetik, argizarizko arimatxo haietan suertatutako markak urteen poderioz hormigoizkoak bilakatu gineneko aztarna batzuei buruzko aipamen bat; eta azkenik testuinguruak emango lieke garai hartan ulergaitzak eta zenbaitetan jasangaitzak izan ziren bizipenei, esanahia.

## **Didaktika. Jenialitatearen onurak**

Ondoren bidaltzen gintuzten Ikastetxe nagusien esanetan, Ikastolan, nahiz eta euskaraz jardun, oso ongi

prestatuta iristen omen ginen ikastetxe berrietara eta horretan zatzan Elbiraren jenialtasuna eta korrante-kontrakotasun amorratua.

Jenioak bere garaitik at suertatzen omen dira eta ikusmolde nagusiaren aurrean bereari ekiteko eta be-reagatik beharrezko guztia jokoan jartzeko gai direnak omen jenioak. Elbira anderearena honen isla garbia zen, bai ikasleen antolaketan, zein metodoetan, bai gaietan zein didaktikan. Berritzaile eta asmatzaile orok, inspirazio, nahiz ereduren bat baduela esan ohi da. Sarritan pentsatu izan dut nondik sortua zitzaion halako irakaskuntza sistemarako pentsamoldea, zein iturritan edana ote zen?

Hala, batetik ikasle kopuruaren banaketa talde txikitik: lau multzotan banatutako seikote edo zazpikoteak, Goizeko Handiak, Goizeko txikiak, Arratsaldeko Handiak, Arratsaldeko txikiak, gaur egun pribilegiatua litzatekeen kopurutan.

Han ez zen ez pupitre ez aulkirik, lurrean yoga posturan eserita (nire gusturako, denbora gehitxo zenbaitetan), baina bizkar eta giharretarako onena omen zen... eta tira...

Irakaskuntza bizitua: antzerki, marrazki, abesti bidez antolatua. Buruz ikasi beharreko olerki eta gaiak, marrazkiz, abestiz eta antzezpenez jorratzen ziren.

Gaur irakaskuntzaren zailtasun handienetakoa ikasleen partaidetza, ikasleak irakaskuntzaren prozesuan subjektu gisa, hau da beren bizipenez, bustiak egotea dela dio zenbaitek. Agian, gaur egungo positibismoa subjektuaren ukazio ahalegintzearen ondorioetako bat ez ote? Irakaskuntza sistema hartan, aldiz, bazen inplikazio ugari, nahiz jokoak nahiz beharturik, egin beharra zegoen, ez zen lotsarako edo nagikeriarako aukerarik. Ikasitakoa, lehenik bakoitzaren bizipenez busti beharra zegoen. Hunkipenen, sentipenen, gorputzaren partaidetza zegoen jokoan ikasterakoan. Gaur bertan irakurtzen ari izan naiz, Dolto haur psikoanalista ospetsuaren testu batean,

haurrari, zerbait adierazterakoan, adierazpen modu ezberdinak (marrazkia, musika, plastilina...) eskaintzearen garrantzia, subjektu bezala adieraz dadin.

Aipagarria dira baita ere ezagutzazko hainbat arloren garapenerako lan berariazkoak. Irudimenean bezala, oroimenean ere. Hala, hurrengo eguneko etxeko lanez oroitzeko ez zegoen notak hartzerik. Zenbaitetan esaldi luzeen multzoa, olerkiak, abestiak, eragiketa matematikoak, e.a. buruz ikasi beharra zegoen, gero etxean blokean idazteko. Haien buruhaustek etxerako bidean, plaza zeuden zaldi eta astoekin distraitu ondoren, zer ikasi behar zen ahaztua zegoelaz jabetzean. Ezkerrak ordurako hainbat etxetan telefonoa zegoen (Elbirak barka nazala, bai hala jarduteagatik eta baita telefonoa, *urrutizkin* ordez esateagatik) eta zenbat ordu egin ote genituen batak besteari deika, ariketak nola ziren galdezka.

Matematika ikasteko sistema bitxia. Lehenik benetak kanikekin: lurrezkoak batekoak (garai hartan bai baitzeuden lurrezko kanikak), orain unitateak esango genukeena, baina hori erderismo hutsa zen; kristalezkoak hamarrekokoak, eta kristalezko kanikoiak ehunekoak. Ondoren blokean marraztu, edo txotxex prozesua berriro egin, eta eragiketei «dale ke te pego...»

Edo erlijioa, Itun zaharra eta bere kontakizunak bereziki. Handik urteetara telebistan «El santo» esaten ziztaionean azaltzen zen marrazki berdinez osatutako gure bigarren liburu sakratua (lehena noski, *Xabierto*): «*El catecismo por el dibujo*». Han Itun berrian azaltzen zen Jaiotza, edo han zihoazen Maria, Jesus eta Jose Belendik ihesean, han talentoen parabola eta beste asko, eta abar luzea...

Pedagogia eta didaktika berritzailearen goraipamenak egun ezagunak eta publikoak dira, eta urteen poderioz denok onartuak. Baina esperientzia orotan bada isileko bizipena, gizabanako bakoitzak bizi duena eta zenbaitetan ikusmolde eta goraipamen orokorretik zerbait (edo era-

bat) aldentzen dena. Eta horren adibideren bat azaltzeak gatz pixka bat ekar dakieke oroitzapen hauei.

### **Jenioaren prezioan...**

Andre hari irakaskuntza sormena nondik zetorkion inoiz jakin ez banuen ere, denok pairatu genuen bere kemen hura, soin ttiki hartan, halako modukoa nondik sortu ote zitekeen inoiz ulertu ez genuen arren.

Norberaren neurosiaz gain, zorrozetas hark utzitako markak, 40 urte ondoren oraindik erraz aurki daitezkeela uste dut haren zenbait jarraitzaile eta bere eskutik pasatakoaren artean.

Gogoan dut nola behin, neska-mutilon lehen sexu jakin-minak suspertu eta beroturik, ezkutuan izandako elkarrizketa lizunak, norbaiten bekatari estutasunagatik, bere belarrietara iritsi zirela eta orduan pairatutako epaiketa sumarisimoa, gurasoen partaidetza eta oniritzia medio! Inoiz gertatu ez zena, *Goizekoak* izan eta *Arratsaldean* nola izan ginen deituak!, hirugarren graduko «interrogatorio autoinkulpatzaile» batera. Goizean egirikoa, benetan larria nonbait. Freudek zioen kulturak sexu irrika menderatzeko, neurosiaren prezioan, erruduntasun barneratuaz eta angustia edo larritasunaz baliatzen dela. Gurean behintzat argi ikusi genuen, hainbeste berotu gintuen elkarrizketa hark, munduko basapizti nazkagarriena ere lotsatuko lukeela.

Psikomotrizitatean ere gogoan dut sistema didaktiko apropos batez nola gozatu nuen. «Inguruxo» dantzan, eskuinera jira egin behar zen bakoitzean nik, traketsa betidanik, ezkerrera buelta. Hirugarren edo laugarren nahasketan, aspertuko zen halako batean gure Elbira eta zapla! belarrondoko ederra eta ferietako txotxongillo baten gisan, masailekoaren indarrez, buelta bide zuzenetik..., behin, bitan, hirutan...



Ziurrenik metodo gisa ez zen txarra, baina aitortu behar dut oraindik ere ezker eskuin bueltatan, zalantza maiz dudala eta belarrondoko gidari baten zain aurkitzen dudala nire burua.

Edo ikaskide bati suertatutako pedagogia sistema solidarioa. Bazituen mahaitxo batean bi *bieira* oskol, Donejakueren Erromesak daramatzaten horietakoak. Kide hura, zerbait ongi egin ez eta errietaren ondorioz negarrari eutsi ezinik zebilen, luzaroan...Nazkatu zen halako batean gure Elbira eta denok kideaz barre egin arazi nahian, malko haiekin perla bat egitea lortuko zuela eta, begi azpian txirla handi haietako batekin gure kidearen malko biltzeari ekin zion, eta han eduki zuen gizajoa eskolean putzua egin arte. Nik ez nuen perlarik osatzen ikusi, baino lagun haren lekuan ez nintzela inoiz aurkituko nire buruari zin egin nion, eta negarti izateko aukera betirako uxatu zen.

Hala ere garaiak halakoak ziren eta esaten denez «ondoren etorriko dira, onak egingo gaituztenak» eta apaiz, fraide eta mojen kolegiotara joan ginenean azkar ohartu ginen esaldiaren egiaz, eta oroitzapen haiek anekdota irribarregarrian gelditu ziren. Baina hori beste kontu bat da.

## **Testuinguruaren baldintzak**

Irrotasun hura beharrezkoa izan zitzaiola ondorengo belaunaldietan bere lanaren etekina bermatzeko garbi da, eta orduko baldintzak ez zirela egungoak bezalakoak, gardena. Gogoratu, garai hartan bizi izan genuen giroa eta testuingurua, bibotedun ipotx lotsagarri eta inpresentablearen garaian (nahiz haren segurtasun indar eta inspektoreak lotsagarri baino beldugarriagoak izan...).

Nire begietan Elbirak antolatutako Ikastola, Klan gisako familia multzo baten hainbat pentsamolde eta ba-

lioen jarraipena zen. *Pepito Grillo* zorrotz baten zeregina eskatu ote zitzaion edo bere kabuz Ayatolen Iraultzaren Zaintzaile gisa hartu ote zuen bere burua, ez da hori garrantzizkoa. Gerra galdu baten hondakinetatik, beste hainbatek bezala, aberri bat birsortzea, bai familien eskaeraz bai bere senaz, Elbiraren bizitzaren zeregina zela nabaria zitzaigun. Honek, oroimen ahaztu eta ukatuetatik izate bat (kolektibo nahiz banakakoa) sortzea, hizkuntza nahiz kultura birsortzea, historia berridaztea eta abar luzea esan nahi zuen. Hala orain ikus daiteke hauek zirela gure bostetik bederatzi urte bitarteko eskola gaiak. Ingu-ruan berriz gure auzokideek beste Herri bat, beste kultura bat, beste hizkuntza bat bizi zuten; beste metodoz, pupi-trez, aulkiz, testuliburuz, «*tablas de multiplicar*», *Enciclopedia*z eta abarrez gauzatuak, baina batez ere gizarte oso baten oniritziz, diskurtso ofizialek ematen duten babes eta baliabidez. Gurea, berriz, hartan ere okerreko bidetik edo, hobe esanda, biderik gabeko sasi eta basoe-tan, lainopean, mendian gora, nora iritsiko ginen inolako ziurtasunik gabe.

Jack Londonen *Otso-Larsen* patroiak bere belauntzia gidatzeko moduan agintzen zuen Elbirak bai gu eta bai familia tropel haren gainean. Itsaso haietan ez baitzen txantxarako aukerarik.

Hala gogoan dut nola noiz behinka, nahiz eta ikasle taldea 6/8 lagunekoa izan, halako batean gutako bakarren bat edo bi alboko gela batera bideratzen gintuen, isilik eta mugitu gabe egoteko aginduz, aldika, eskaileran zarataren bat edo norbait ate joka zetorrenean. Urteetara jakin genuen Hezkuntza Ministerioak inspektoreak bidaltzen zituela eta bost ikasleko taldeak klase partikular modura onartuak baziren ere, handik gorako taldeak itxi eta irakasteko lizentzia kentzea zen zigorra. Inspektorearen bisitan beldur, han egoten ginen ezkutaturik, militantzia pribilegiatu modura, arriskua desagertu arte.

Eraso guztien eta kaltegarriagoak diren pronostiko beltz guztien gainetik, historiak kemenari arrazoi eman dio edo hobe esana: Elbirak historiari arrazoia emanarazi dio. Lekukotasun hau adierazle.

Agian hauxe da oharkabea, planifikatu gabeko irakaskuntzarik nagusia, bai Elbira berak eta bai beste hainbat garaikide eta lagunengandik jaso ahal izan genuena: «Eutsi goiari» esan ohi den moduan, norbanakoarentzat zilegi diren helburu eta nahiei kementsu jarraitzea, munduak eskatzen duen ordaina emateko prest egonik. Hiru Erregeen ipuinean Elbirak zioen bezala:...» baina Aztiak izarrari zintzo, kementsu jarrai zitzaizkion...» edo psikoanaliaren hitzetan jarrita, «norbere desioari uko egitea da neurosiaz ordaintzen den bekaturik nagusia».

Negarren bat gehiago, masailekoren bat gehiago jaso izana, azken finean herri honen eta bere kulturaren birsortzean partaide pribilegiatuak izatearen ordain xumea besterik ez da.

Total, azkenean berriro ere, nahiz zenbaitetan gogoz kontra, eskerrak eman behar Elbirari! (eta berak gure oroimenean ordezkatzan dituen beste zenbaiti).

# 3

## ELBIRA ZIPITRIA ZENAREN ESKOLAREN FAMILIA TESTUINGURUA

*Leire Alviz*

I.L.C.L.I. ([www.sc.ehu.es/ilcli](http://www.sc.ehu.es/ilcli))

Euskal Herriko Unibertsitatea

### 1. Helburua eta metodologia

Liburuaren atal honek helburu nagusi bat du: Elbira Zipitria zenaren eskolaren familia testuingurua azaltzea. Gure asmoa aurrera eraman ahal izateko, gizarte ikerketa mota batean oinarritu gara, hau da, narrazio elkarrizketan. Elkarrizketa mota honek elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua batera sortzen ditu eta ikerketa objektu bezala definitzen denak elkarlotutako egitura du. Gure lan honetan, hiru ezaugarri hauek azpimarra ditzakegu:

- Elkarrizketa egiteko eran eta elkarrizketatzailearen jarreran ez dago arau finkorik.
- Elkarrizketa solaskideen arteko prozesu baten produktua da, eta ez hipotesi eta irizpideen kontrastatzea.
- Elkarrizketaren emaitzek ez dute izaera orokorrik.

Elkarrizketak hiru maila ditu:

1. Kontratu komunikatiboa. Elkarrizketa paradoxez josia gertatzen da, eskatzen eta interesgarria den barreneko informazioa ematen duelako, nahiz

eta barreneko informazio hori ematerakoan, hain zuzen barrenekoa izateari uzten dion. Hitzarmen egoera batera iritsi behar da, topaketa eta elkarrizketa errazteko. Ondorioz, elkarrizketa komunikazio eran hartzen da, egokitasunaren araua horixe delako. Horregatik, elkarrizketatzaileak paper garrantzitsua jokutzen du.

2. Ahozko elkarrekintza. Elkarrekintza komunikazioaren oinarria da eta arau batzuen gainean egiten da. Elkarrizketa gizarte ekintza da. Horregatik, berariazko elkarrizketa batekin hasten da pertsonaren egunerokotasunean sartu ahal izateko. Baina elkarrekintza hau oso arriskutsua eta estrategikoa da. Ondorioz, elkarrizketan ondoko elementu guzti hauek hartzen dute parte: ahozko komunikazioa, begiradak, keinuak eta rolak. Elkarrizketari hasiera ematen diogunean interesatzen zaizkigun gai guztietaz informazioa lortu behar dugula kontuan hartu behar da, baina ez nahitaez orden zehatz bat jarraituz, baizik eta elkarrizketa aurrera doan heinean komeni diren gaiak sortuz.

Ahozko elkarrekintza hori bi kontzeptu hauetan oinarritzen da: alde batetik, kontsigna edo jarraibideak (elkarrizketaren gaiak zehazten dituzten argibideak) eta, bestetik, iruzkinak (elkarrizketatuaren hitzek azpimarratzen dituzten argibideak, behaketak, galderak eta oharrak). Elkarrizketatzailearen ahozko ekintzak hiru mota hauetan bereizi ditzakegu: deklarazioa, bere iritziak azaltzen dituen; galdeketa, elkarrizketatua erantzun bat ematera behartzen duenean eta berrestea, elkarrizketatua emandako iritziak elkarrizketatzaileak bereganatzen dituen. Hiru ekintza hauek bi diskurtso erregistroetan banatzen dira: erreferentziala eta modala. Ondorioz, aztertutako ekintza motek eta erregistro motek sei elkarrekintza ezberdin hauek ematen dizkigute:

- Osaketa*: erreferentzia mailan egindako adierazpena.
- Interpretazioa*: moduaren mailan egindako adierazpena.
- Edukiari buruzko galdera*: erreferentzia mailan egindako galdera.
- Jarrerari buruzko galdera*: moduaren mailan egindako galdera.
- Oihartzuna*: erreferentzia mailako berrestea.
- Islapena*: moduaren mailako berrestea.

3. Erreferentziaren gizarte unibertsoa. Pertzepzio eta konparazio funtzio batean oinarritzen da eta, ondorioz, elkarrizketak gizarte mailako hitzak —garrantzi handiko zerbait— emateko balio du<sup>1</sup>.

Guk geure lanerako metodologia zehatz bat erabili dugu: elkarrizketa irekia. Hau da, edozein etnografia lanetan lehenengo urratsa hain zuzen ere. Elkarrizketa irekia izaera pragmatikoa duen informazioa lortzeko tresna oso baliagarria da, hau da, elkarrizketatuak bere giza irudikapenen sistema banakako praktiketan bihurtzen du.

Giro malgua, lasaia eta erosoan lortu nahi izan dugu, nahiz eta giro honek desabantailak eta abantailak batera eduki. Neurri batez, elkarrizketa irekian nahigabe datu asko esan gabe geldi daiteke, ikerketa soziologikoetan ez bezala. Guk galderak modu ireki batez azaldu ditugu inolako presiorik egin gabe. Ondorioz, lehen aipatu dugun bezala datu batzuk, agian garrantzi handiagokoak edo garrantzi gabekoak ere bai lortu gabe geratu dira eta, beraz, ikerketa honetan aztertu gabe gelditu dira.

---

<sup>1</sup> Ohar metodologiko hauei buruz gehiago jakiteko ikus: Luis Enrique Alonso, *La mirada cualitativa en sociología*. Madrid: Fundamentos, 1998.

Baina bestaldetik, lortutako giro malgu, lasai eta erosoan bai elkarrizketatzailea eta baita elkarrizketatua ere, elkarrekintza joku egokian sartzeko aukera izan dugu. Elkarrizketa irekiak, esperientzia eta narrazioaren bidez, lotura biokognitiboa esaten zaiona sortzen du, aldi berean, elkarrizketatzailea eta elkarrizketatuaren artean lotura komunikatiboa bat sortuz. Horregatik, estrategia komunikatiboen joku bat bihurtzen da elkarrizketa irekia.

Prozesu komunikatibo argia lortu nahi izan dugu eta prozesu honen bidez elkarrizketatzaileak elkarrizketatuarengandik informazioa lortzea. Informazioa subjektibitatean oinarritzen da, elkarrizketatuak zuzenean ematen digun informazio guztia subjektibitate marka batez horniturik dago. Puntu honetan, elkarrizketatzailearen funtzio emotiboak eta expresiboak zeregin garrantzitsua daukate. Modu natural batez adieraziz, emozioak begien bistan uzten dira eta, ondorioz, elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren arteko elkar lotura barnekoa bihurtzen da. Elkarrizketatzaileak enpatia beti kontuan hartu behar du eta hiztun ona izan behar du, hau da, elkarrizketa bizi-bizi mantentzeko gaitasuna eduki behar du.

Pierre Giraudek<sup>2</sup> ongi aipatzen duenez, funtzio autoexpresiboa komunikazioan oso garrantzitsua da. Guk erabilitako metodologia honek aztertu nahi genuen giza errealitatea askoz gertuago ikusteko aukera eman digu. Horregatik, protagonisten ahotik zuzenean jasotako datu guztiak entzuteko eta aztertzeko aukera izan dugu, geure artean lotura berezi bat sortzen zen bitartean.

Atal honetan aztertzen ditugun aspektu guztiak aurretik ikertuak izan ez direnez, hau da, dokumentu idatzietan jasota ez daudenez, gure azterketa egiteko ahozko iturriak erabili ditugu, neurri handi batez datuak lortzeko bide bakarra zelako. Izan ere, ahozko iturriek, beste iturri

---

<sup>2</sup> Giraud, P., *La semiología*. México: Siglo XXI, 1979.

motekin konparatuz, giza errealitatea gertuago ikusteko aukera ematen dute sarritan. Hala ere, ahozko iturriek badituzte desabantaila batzuk ere. Hala nola, guk elkarriketatutako pertsonak adineko pertsonak izan dira eta, honen ondorioz, beraien oroimenaren menpe egon gara denbora guztian zehar. Beraz, egindako galdera bazuetan erantzun eta istorio oso ezberdinak jaso ditugu. Aldi berean, subjektibitatearekin jokatu behar izan dugu eta honek datuak alde batean edo bestean kokatzeko aukera ematen du. Horregatik, jasotako informazio guztia kokatu, testatu eta egiaztatu egin dugu.

Jean-Baptiste Fagesek<sup>3</sup> zazpi entrebista mota bereizi ditu: klinikoa; ez-zuzeneko entrebista; gai konkretuetan oinarritutako entrebista; behartutako eta azalpen askeko erantzunetan oinarritutako entrebista; segida bat jarraituz, galdera irekietan oinarritutako entrebista; zerrendatutako galderak dituen entrebista; eta galdera itxietako entrebista. Guk burututako entrebista irekia izan da, galdeketa formal aske samar batean oinarritua. Galderak hurrenez hurren segidan daude eta erantzunak era estandarizatu batean jasotzen dira, baina beti aitortze moduko batean eta ez itaunketa egoera batean bezala. Elkarrizketatzaileak galderak zalantzarik gabe egin behar ditu, era honetan elkarrizketatuak beldur edo zalantzarik ez sentitzeko. Galderek zeharo ulergarriak izan behar dute eta orduan erantzunak era antolatu batean jaso behar dira. Helburua hau da: galderak egoera bakoitzarentzako zentzu aproposa edukitzea, elkarrizketa benetan praktikan jarri ahal izateko eta modu erraz batean erantzunak jaso ahal izateko.

Elbira Zipitriaren etxe-eskolan eskolatutako ikasleen familia zerrenda zabal bat gure eskuetan eduki ondoren,

---

<sup>3</sup> Fages, J.B., *Communiquer entre personnes en groupe*. Toulouse: Privat, 1990.



hautatze prozesu batean sartu ginen. Informatzaile tipo bakar baten bila genbiltzen: gurasoak. Kontuan izan genuen, aurtan Elbira jaio zela ehun urte betetzen direnez, nahikoa zaila izango zitzaigula guk bilatzen genuen informatzaile tipoa kopuru handi bat lortzea. Ondorioz, zerrendatik pertsona ezberdinen izenak atera genituen eta telefono deiak egiten hasi ginen. Dei asko egin ondoren, gure informatzaile tipoa osotasunean lortzea aski zaila zela ikusiz, gure elkarrizketatuen kopurua murriztu egin genuen, azkenean bost familia ezberdinen esperientzia jasotzeko eta aztertzeko, eskola garai diferenteak gogoan hartuz.

Honen ondotik datorrenean zortzi atal ezberdin aztertuko ditugu<sup>4</sup>, Elbira Zipitria eta berarekin eskolatutako ikasleen familiei buruzkoak. Lehenengo atala ezagupenari buruzkoa da. Bertan gurasoek Elbiraren berri eta bere eskolaren berri nola izan zuten aztertzen da. Bigarren atalean zergatia, denbora eta balorazio orokorra jaso nahi da, gurasoei beraien haurren eskolarizazioaren zergatia, iraupena eta hari buruzko iritzia eskatuz. Hirugarren atalean heziketa alderdiak aipatzen dira. Bertan, euskararen garrantzia eta Elbira Zipitriak eskolaz zuen ikuspegia jasotzen da. Laugarren atalean familiaren inplikazioa aztertzen da hiru alor ezberdinetan: etxeko heziketan, euskarekiko jarreran eta Elbiraren eskolari emandako laguntzan. Bosgarren atala kostu ekonomikoari buruzkoa da. Seigarren atalean elkarrizketatutako familien gizarte ingurunea garai hartan nolako zen jasotzen da, ideien aldetik, erlijioaren aldetik, hizkuntzaren aldetik, politikaren aldetik... Ondoren, zazpigarren atalean familia bakoitzak Elbira Zipitriaren eskolaz adierazi nahi izan duena

---

<sup>4</sup> Elkarrizketetan jaso beharreko gai nagusien zerrenda Jesus Mari Larrazabal irakasleak konfiguratu zuen, datuak jasotzerakoan eta aztertzerakoan gogoan erne izan beharreko ohar metodologikoak erantsiz. Eskerrik asko.

azaltzen da eta, bukatzeko, zortzigarren atalean azken hitzak eransten dira balorazio moduan.

## 2. Ezagupena

Hemendik aurrera lan honetan azaltzen ditugun datu eta azterketak Elbira Zipitria Andereñoaren ikasle izandako bost pertsonen gurasoekin egindako elkarriketetatik ateratakoa da. Zehatzago esanda, ikasle horien amen hitz egin dugu. Eskerrik asko benetan Maria Luisa Castro, Maria Luisa Estornes, Maria Josefa Olabiaga, Maria Jesus Otaegi eta Itziar Rementeria andreei<sup>5</sup>. Familia guzti hauek Elbira Zipitriarekin harreman estua izan zuten. Bi harreman mota bereizi ditzakegu: zuzeneko harremana eta zeharkako harremana.

Zuzeneko harremanetan helburu nagusi hauxe zegoen: euskara ikastea. Hau da, Elbira Zipitria zuzenean ezagutu zuten familiek arrazoi berdinarengatik egin zuten, berarekin euskara ikasi nahi zutelako. Guraso gehienak, beraien seme-alabak ez bezala, gaztaroan hasi ziren Elbirarengandik euskarako klaseak jasotzen, gehienak gutxi gora behera 20-30 urte inguruan. Donostiako alde zaharreko Fermin Calbetón kalean Elbira Zipitriak sortutako etxe-eskolako gaueko saioara joaten ziren ikastera, batzuk euskara hastapenetik ikasteko eta beste batzuk euskara hobetzeko, baina denak helburu berdinarekin: beraien seme-alabei euskaraz hitz egiteko aukera eduki ahal izateko. Hala ere aipatzekoa da bazirela gurasoak txikitatik Elbirarekin edo inguruko irakasleekin ikasi zutenak, beraien ingurua oso euskalduna zelako eta

---

<sup>5</sup> Esker ona bakarrik ez, aitorpen hau ere bai: giro ezin egokiagoan izan genituen elkarriketak eta atsegin handiz egin ziren, bost guraso horiek buru onarekin bezainbat bihotz zabalarekin ere hitz egin zigitelako.

jaunartzea euskaraz egin behar zutelako, baina kasu honetan Juan de Bilbao kalean kokatu behar da hau, Elbira Joxe Migel Barandiaranekin batera hasi zen garaian.

Beste alde batetik, zeharkako harremanetan tartean beste pertsona baten itzala nabari dezakegu. Hauxe esan nahi da, Elbira ezagutu zutela beraien artean tarteko pertsonaren bat zutelako: anai-arrebak, lagunak, gurasoak... Baina denborarekin zeharkako harreman guztiak zuzeneko harreman bihurtu ziren. Elkarrekiko batera zuten pertsonaren bidez Elbira ezagutu zuten eta berarekin harreman ezberdinak sortu ziren, bai ikasle bezala bai beste moduren batean.

Ondorioz, gurasoek, beraien seme-alabak eskolatzeko orduan, gauzak garbi zeuzkaten: beraien seme-alabak Elbira Zipitriarekin eskolatuko zituzten. Era batez edo bestez, guraso guztiak Elbirak bere etxe-eskolan erabiltzen zuen irakasteko formaren berri bazuten, batzuk era sakonago batean (Elbirarekin euskarako saioak jaso zituztelako) eta beste batzuk, berriz, azaletik. Baina denek, beraien seme-alabentzako aproposa eta oso egokia zela pentsatuz, eta beti ere euskararen garrantzia azpimarratuz, Elbirarekin eskolatu zituzten haurrak. Ikasle askoren ikasketak, ordea, ez ziren Elbirarekin hasi, Andereño Ixiar eta Andereño Amalen Arzelus, Andereño Jone Forkada, Andereño Karmele Esnal edo Andereño Faustina Carrilekin baizik. Bi edo hiru urteekin hasi eta ondoren lau edo bost urteekin Elbiraren etxe-eskolara pasatzen ziren haurrak. Hala ere, baziren ikasle batzuk bere ikasketak zuzenean Elbirarekin hasi zituztenak. Ikasle guztiak bertan egon ziren bederatzirterera arte, hau da, batxilergoko 'ingreso' garaia iristen zen arte, jaunartzea egin eta pare bat urtera. Aipatzekoa da Elbiraren ikasle izan zirenek jaunartzea euskaraz egin zutela. Elbirak bere ikasleak jaunartzea euskaraz egiteko prestatzen zituen, nahiz eta aurretik gurasoak eta Elbirak hori horrela gauzatzeko arazo asko eduki.

Aztertutako guztiaren ondoren, ondorio nabarmen bat azpimarra dezakegu, hau da, familia guztiek helburu finko bat zutela, beraiek hasieran euskararen inguruan egindako bidea seme-alabekin jarraitzea. Bide hori egiteko beraien buruetan gidari hauxe: Elbira Zipitria.

### 3. Zergatia, denbora eta balorazio orokorra

Elbirarekin eskolatzearen zergatiaren atzean erantzun berdina aurkitu dugu familia guztietan. Denek helburu berdina zuten: beraien seme-alabek ikasketak euskaraz jasotzea. Garai hartan, helburu hori lortzeko bide eta bitarteko gutxi zeuden. Erantzuna zuzena eta garbia zen, tartean zalantzarako momenturik gabe. Guztiek beraien seme-alabentzako aukera berdina bilatzen zuten, dudarik gabe. Hauxe: euskaraz bizi ahal izateko egin behar zena egitea.

Gure hezkuntzaren historian zehar, Elbiraren metodologia oso garrantzitsua izan da, berezitasun asko eduki zituelako, baina gurasoek beraien seme-alabak eskolatzeko orduan ez zioten metodologiari begirutzen. Aldiz, ikasketen hizkuntzari garrantzi handia ematen zioten. Gurasoek normalean ez zekiten oso garbi Elbirak bere etxe-eskolan erabiltzen zuen metodologia edo pedagogia nolakoa zen, baina, hori bai, denek oso ondo zekiten Elbirak ikasketak euskaraz ematen zituela. Ondorioz, desio edo helburu hori lortu nahi zutenek berehala Elbirarengana jotzen zuten. Aipatzekoa da Elbirak, nahiz eta euskaraz irakatsi, bere ikasleak gaztelanian ere ondo prestatzen zituela, azkeneko urtean gaztelania ikasten zutelako. Beste ikasgai ezberdinetan ere oso ondo prestatuta ateratzen ziren, bazekielako ondoren batxilergoko «ingreso» zetorrela. Baina gurasoek aipatzen duten bezala, Elbiraren ikasleek ezin zieten eduki inongo bekaizkeriarik garai hartako kolejoetako beste ikasleei, beraiek edozein ikasgaitan oso ondo prestatuta ateratzen zirelako.

Elbira ikasle talde bakoitzarekin egunero bi ordu egoten zen, batzuk goizean eta beste batzuk arratsaldean. Hala ere, gurasoek Elbirarekin eskolatzen zituzten haurrak, nahiz eguneko beste ordu guztietan Elbirarekin klaserik ez izan. Gurasoek aipatzen dutenez, sakrifizio bat zen seme-alabek bi ordu klase bakarrik izatea. Baina hori horrela izanda ere, ez zuten eskolaz aldatzen, Elbirarekin jarraitzen zuten. Argi esan digutenez, berarekin ikastea pribilegio bat zelako. Horregatik, familia guztiek Elbirarekin jarraitzen zuten, egunean bi eskola ordu edukiz eta, horren ondoren, batzuk beraien seme-alabak beste gauza ezberdinak ikastera bidaltzen zituzten, gehienak frantses hizkuntza ikastera eta beste batzuk —kasu honetan denak neskak ziren— josten ikastera.

Denek, ordea, ez zuten lortu beraien seme-alaba guztiak Elbirarekin eskolatuak izatea. Elbiraren ikasle kopurua ez zen oso handia izaten, beti sei edo zazpi bat ikasle hartzen zituen. Elbirak berdintasun kontzeptua asko bultzatu nahi izan zuen eta, ondorioz, familia guztietako seme-alabak hartzen saiatzen zen. Baina ezinezkoa zenean, hau da, jadanik sei edo zazpi ikasle zeudenean eta familia baten haurra ezin hartzea gertatzen zitzaionean, orduan hurrengo urtean edo urteetan familia horrek beste seme-alabarik baldin bazuen bertan eskolatzeko asmoarekin, zuzenean hartzen zuen, aurretik beste seme-alabarik ezin izan zuelako hartu. Aipatzekoa da familia kopuru txiki batek bere haur guztiak berarekin eskolatzeko aukera izan zutela. Beraz, seme-alabak hartzerakoan bere iritzia zehazki zein zen esatea oso zaila da, nahiz eta egoera gehienetan berdintasunaren arabera jokatu.

Horrela, Elbirarekin eskolatuak izatea ezinezkoa gertatzen zenean, guraso askorentzat hori buruhauste bat izaten zen. Nora eraman beraien seme-alabak ikasketak euskaraz jasotzeko? Familia askok aurreko atalean aipatutako andereño ezberdinengana bidali zituzten, hau da, Andereño Ixiar eta Andereño Amalen Arzelus, Andereño Jone For-

kada, Andereño Karmele Esnal eta Andereño Faustina Carrilengana, kontuan hartuz, jakina, aipatutako andereñoek Elbirarekin erlazioa zutela. Aipatzekoa da legalizazio garaia iritsi zenean, seme-alabak Elbirarekin eskolatzea pentsatuta zeukaten familia askok Orixe ikastolan eskolatu zituztela, hemen ere ikasketak euskaraz egiten zirelako.

Elbirarekin eskolatutako ikasle gehienak lau urte egon ziren bertan, bost urtetik bederatzi urtera arte, hain zuzen. Ikasleen hasierako adina eta eskolatutako urte kopurua ezberdina izan zen kasu batzuetan, batzuk lau urterekin hasi ziren, beste batzuk bost urterekin... ikasle batzuk zazpi urterekin bukatu zuten eta beste batzuk bederatzi urterekin... Ondorioz, oso zaila da finkatzea urte kopuru eta adin finkoak, kasuz kasu egin behar denez, nahiz gehienek Elbirarekin bost urterekin eskolatuak izan eta bederatzi urterekin bukatu, garai hartako hezkuntza plangintzan batxilergoko ikasketak hasten zirenean, hain justu.

Gauzak horrela, bederatzi urterekin eskola aldaketa beharrezkoa gertatzen zen. Gurasoei aukera egitea zaila egiten zitzaaien, bederatzi urterekin seme-alabak beste eskola ezberdin batera eramateko prozesua zaila bihurtzen zitzaielako. Ikasle askok erlijiosoen kolejoetan jarraitu zuten, gehientsuenak San Bartolomera edo Jesuitengana joanez. Hala ere, garai hartan kolejio asko zeuden Donostian eta, hortaz, batxilergoko ikasketak egiteko aukera asko zegoen: eskola frantsesa, teresianak, jesuitinak, marianistak, lasallekoak... Eta legalizazio garaia iritsi zenean asko izan ziren Orixe ikastolara pasa edo zuzenean bertan hasi zirenak.

Gurasoek aipatzen dutenez, Elbiraren etxe-eskolatik batxilergoko ikasketak egiteko kolejoetarako aldaketa oso nabaria izaten zen. Familia guztiek aitortu digute Elbiraren irakaskuntza beste gauza bat zela, konparatu ezina. Hala nola, Elbirarekin ez zuten testulibururik, bakarrik 'Xabiartxo' euskaraz irakurtzeko eta, ondorioz,

material ezberdin asko erabili eta manipulatzeko zuten; aldiz, kolejoetan ikasgai bakoitzarentzat liburu berezia zuten. Dena askoz teorikoagoa zen eta Elbirarekin berriz gertuagokoa zen, naturala. Elbirak metodologia berezi bat erabiltzen zuten, hau da, bizitzako momentu bereziak, urtaroak, ikasgaiak... modu natural batez irakasten zituen. Adibidez, matematika ikasterako orduan ez zuten ariketak egiteko liburu bat, baizik eta txotx edo pottoken bidez ikasten zuten. Askotan, urtaroaren arabera, pottokak erabili beharrean fruitu ezberdinak erabiltzen zituzten. Beti lurrian eserita egoten ziren eta idazteko garaian bakarrik gelako mahai handia jeisten zuten, parretara itsatsita zegoelako. Aldi berean kontuan izan behar da Elbirarekin gelan sei edo zazpi ikasleko kopurua izaten zela eta kolejoetan, berriz, hogeitamar inguru izaten zirela gela bakoitzean.

Bestalde aipatzekoa da baita ere geografia ikasteko garaian ez zutela libururik hartzen. Euskal Herriko mendi edo leku ezberdinetara joaten ziren. Hau da, mendiak ikasi behar zituztenean mendietara joaten ziren (ostegunero Urgulera) edo itsasoko historia edo bizitza ikasterakoan hondartzara joaten ziren eta bertan klasea ematen zien, edo azokora joaten ziren... Elbirarekin kalera asko irteten zuten eta lekuaren arabera gauzak ezberdinak ikasten zituzten. Hau da, Elbirak modu natural batez irakasten zuten eta garai hartan ez zen hau oso arrunta. Kolejoetan hori ez zen horrela ematen. Hemen, ikasleek azpimarratzen duten bezala, teoriak, ariketak eta kontrola (uniformea edo mantala, zigorrak...) nagusitzen ziren, beti beldur eta ezberdintasun puntu batekin. Lehen aipatu dugunez, gogoan izan behar da Elbirarekin sei edo zazpi ikasle batera izaten ziren bitartean, kolejoetan berriz hogeitamar inguru izaten zirela eta faktore honek irakasle-ikasleen arteko harremanetan asko eragiten zuela. Elbirarekin etxe eta familia giroan bezala murgiltzen ziren, ikasle gutxi zirelako, beraien artean harreman

handia zegoelako eta berdintasunezko heziketa jasotzen zutelako. Gero, kolejoaren aldaketa etortzen zenean egoera hura apurtzen zen eta ezberdintasuna azpimarratzen hasten zen.

Aldi berean, gurasoek Elbirarekin zuten harremana eta kolejoetako irakasleekin zuten harremana erabat ezberdina zen. Elbirak ez zituen guraso bilerak egiten, baina hala ere harremana oso gertukoa izaten zuen. Kolejoetan, ordea, bilerak egiten ziren, baina harremana askoz hotzagoa zen. Adibide nabarmen bat jar dezakegu: kolejioko bileretara joateko gurasoek zer arropa jantzi oso kontuan edukitzen zuten. Elbirarekin hitz egin behar zutenean, berriz, ez zuten horrelako kezkarik, beraien arteko harremana oso estua zelako.

Baina aldaketarik nabariena hizkuntzan eman zen. Esan beharrik ez dago Elbirarekin ikasgai guztiak euskaraz ematen zituztela eta momentu guztietan euskaldun giroan murgilduta zeudela. Baina kolejoetara pasatu zirenean, egoera asko aldatu zen. Ikasgai guztiak erdaraz ikasten zituzten, bakoitza bere ikasmahaian eserita, beti ilarak ondo mantenduz.

Gurasoek balorazio moduan hauxe aitortu digute, Elbira oso naturala eta espeziala zela. Denak oso gus-tura egon ziren Elbirak beraien seme-alabei emandako irakaskuntzarekin, nahiz sarritan guraso askorentzat sakrifizio handia izan. Guztiek, dudarik gabe, diote Elbirarekin bizi izandako esperientzia berriro errepikatuko luketela. Ikasle izandako batzuek esan digutenez, gogorra eta berezia izan omen zen esperientzia hura, nahiz gehienek azaldu, gurasoen eran, bizi izandako esperientzia berriro errepikatu luketela, gehienek Elbiraz eta berak sortutako etxe-eskolaz oroitzapen oso ona daukatelako.

Hala ere, balorazio atal honetan, gurasoek bi Elbira mota bereizi dituzte: Elbira irakasle bezala eta Elbira pertsona bezala. Pertsona bezala, iritzi ezberdinak jaso ditugu, batzuk Elbirarekin harreman oso ona izan zute-



lako eta beste batzuk harremana bai baina mugak jarrita, irakasteko metodologian bezala Elbira pertsona moduan oso berezia izan zelako. Ondorio nagusi bat ateratzeko orduan, Elbira izaera bereziko eta genio biziko pertsona izan zela esan digute. Hori bai, denek pertsona aparta izan zela azpimarratu ziguten.

Irakasle bezala, familia guztiak ados zeuden espeziala eta oso-oso aurrerakoia zela azpimarratzeko. Haren metodologia ez zen garai hartan nagusi zenaren antzekoa, oso aurrerakoia zen (hain aurrerakoi eta berezia gaur egun ikastola askok ez dute oraindik praktikan jarri). Guraso guztiak oso gustura eta lasai egon ziren metodologia horrekin. Ez du honek adierazi nahi hiriko beste familiek bazekitenik familia gutxi hauek haurrak eskolatzeko Elbirarengana jotzen zutenik. Alderantziz, familia askok ezkutuan eramaten zituzten beren haurrak, beti aitzakiren bat asmatuz kalean jendea galdezka hasten zitzairenean. Ez dugu ahaztu behar Elbiraren etxe-eskola garai hartan eskola klandestinoak zela eta, beraz, polizia joateko susmoa zegoenean, berehala haur guztiak beren etxetara bidaltzen zituen andereñoak. Gauzak horrela, guraso askok, jendeak hori jakitea nahi ez zutenez, modu ezkutu batean eramaten zituzten beren seme-alabak etxe-eskolara. Azpimarratzeakoa da Elbirak ez zuela horrelako arazorik, beste familiek zer jakin edo ez jakin, bere ikasleak beti kalera eta leku ezberdinetara eramaten zituen, beti euskaraz hitz eginez noski. Gurasoek aipatzen diguten bezala: entzun nahi zuena entzuten zuen eta entzun nahi ez zuenaren aurrean beste alde batera begiratzen zuen, inolako arazo handirik gabe.

#### **4. Heziketa alderdiak**

Atal honetan hiru puntu ezberdin jorratuko ditugu. Alde batetik, euskararen garrantzia heziketan. Bestetik,

Elbira Zipitriak irakasteko zeuzkan metodoak. Bukatzeko, Elbiraren eskolari buruz familiek duten ikuspegia.

Euskararen garrantzia nabarmena izan da alor guztietatik begiratuta. Lehen ikusi dugun bezala, horixe izan zen familia guztiek beren seme-alabak Elbirarekin eskolatzeko izan zuten arrazoi nagusia, bakarra ez esateko: euskaraz ikastea. Beraientzat euskarak heziketan zuen garrantzia oso handia zen. Horren atzean arrazoiak ezberdinak zeuden. Nagusiena, familia giroa euskalduna zela eta, halaxe nahi izanda, ezin zutela onartu ingurune euskaldun hori galtzea. Garai hartako euskaldun giroko familia askok azpimarratzen dute beren etxeetan erdaraz hitz egitea debekatuta zeukatela eta kalean jende guztiak erdaraz hitz egiten zuela. Horren ondorioz, familia hauek beren etxeetan ez zuten kaleko egoera hori ontzat eman eta buelta emateko modu bakarra etxean erdara debekatzeari zela uste izan zuten, gero kalean hizkuntza hori gehiago entzungo zelakoan.

Beste familia askok, aurreko kasuan ez bezala, euskara galdu egin zuten eta damututa bizi izan zuten beren gaztaro osoa. Seme-alabak izan zituztenean, ez zuten onartu beren haurrei beste horrenbeste gertatzea eta horregatik haurren ikasketak euskaraz izatea erabaki zuten, horrela galdutakoaren sentimendua gainditzeko eta bizi epealdi berri bat hasteko. Aipatzekoa da familia askok seme-alabak izan aurretik Elbirarekin euskara klaseak jasotzen zituztela, ondoren beren haurrei euskaraz hitz egiteko gauza izateko. Asko izan ziren, seme-alabak jaio zirenean, euskara klaseak utzi egin zituztenak, baina beraien Elbiraren eskolan utzitako lekua seme-alabek bete zuten.

Familia askok seme-alabak euskara eta euskaraz ikasteko aukera paregabea ikusi zuten Elbiraren etxe-eskolan eta konfidantza eta lasaitasun guztiarekin berarengana jo zuten, garai hartan debekatuta zegoen hizkuntza ikasteko. Kasu batzuetan galdutakoa berreskuratzeke eta

beste batzuetan familiaren ildoa eta euskararen bidea jarraitu eta mantendu ahal izateko.

Elbira Zipitriak irakasteko zeukan metodologia bi hitzetan labur daiteke: aurrerakoia eta apartekoa. Garai hartan metodologia hori aplikatzea berrikuntza bat izan zen eta esperientzia hori bizi izan zuten gehienentzat, again guztientzat, pribilegio bat izan zen. Elbira oso zorrotza eta gogorra omen zen bere ikasleekin, baina bere metodologiaren poderioz irakaskuntza berezia ematea lortzen zuen. Familiek gogoratzen dutenaren arabera, bakarrik arkatz gorria eta urdina (alde batetik urdin eta bestetik gorri) erabiltzen zuten ikasleek, arkatz beltza idazteko soilik erabiltzen zelako. Aldi berean, bakarrik eraman zezaketen txorrozkil bat eta borragoma bat, ez bi (bat aski zelako). Alderdi honetan Elbirak oso zorrotz jokatzan zuen eta horrela ikasle guztiek material kopuru berdina edukitzea lortzen zuen. Berdintasun kontzeptua bere ideia guztien oinarrian zegoen. Bera berdintasunaren bultzatzaile izan zen bizitzaren alde guztietan: gizon-emakumeen artean (garai hartan, gizonei eguneroko bizitzan ontzat ematen oso zail egiten zitzaiena), familien artean (denak berdinak ziren, estatus soziala kontuan eduki gabe), ikasleen artean (familia jatorria gogoan izan gabe)... Horregatik, Eguberrietako jaien ondoren haur bakoitzak erregeek oparitutako jostailu bat bakarrik eraman zezakeen eskolara, ez gehiago, horrela ikasle guztiak maila berdinean egon zitezten. Honekin batera azaltzekoa da baita ere Eguberrietan kalera abestera ateratzen zirela eta lortzen zuten dirua hiru zatitan banatzen zutela: heren bat etxe-eskolarako (beraiek ere behartsuak zirelako), beste heren bat auzoko behartsuentzako eta beste heren bat beste lurraldeetako behartsuei bidaltzeko (askotan, Vietnamera). Elbiraren etxe-eskolan ez zegoen desberdintasunik.

Elbiraren hezkuntzan eta metodologian beste atal garrantzitsu bat erlijioak osatzen zuen. Elbirak bere ikas-

leak jaunartzea egiteko prestatzen zituen. Meza, abestiak, oroigarriak... prestatzen zituen, beti berezitasun batekin: euskaraz. Oso erlijiosoak izan zen bere bizitza guztian, baina ikasleen familiakoek ondo azpimarratu digutenez, ez Francoren elizak ezartzen zuen erlijioaren arabera. Kristautasuna barru barrutik bizi izan zuen. Elbirak mezak prestatzen zituenean, bazekien oso ondo zein apai-zengana jo, inolako dudarik gabe.

Gauzak horrela, familia guztiek Elbirak aplikatutako hezkuntza metodologiarekin oso pozik egon ziren. Lehen aipatu dugunez, Elbirarekin bizi izandako esperientzia berriro errepikatuko zuketena, beraientzat esperientzia oso aberasgarria izan zelako eta aldi berean, gaur egundik ikusita, aurretik finkatutako helburuak beteta ikusten dituztelako: beren seme-alabak euskara jakin, ondo hitz egin eta euskaraz oinarritzko heziketa hartu dutelako. Hala ere, askoz gehiago lortu dutela diote, beren ilobak gaur ikastoletan ikasten ari direlako eta ondoko ikasketak ere euskaraz egiten ari direlako, hau da, familiaren hurrengo belaunaldiek beraiek hasiera emandako bideari segitzen diotelako.

Elbiraren eskola hain berezia izan zenez, familiek ezin dute garai hartako beste eskola edo kolejoekin konparaketarik egin. Oso berezia eta aurrerakoa izan zen, hau da, bakarra. Dena txukun eta garbi edukitzen zuen eskolan, haur kopuru murrizta eta, batez ere, dena oso ondo antolatuta. Elbiraren pedagogia beste gauza bat zen, berezitasun apartekoa zuena. Kolejoak, berriz, ez ziren horrelakoak (hezkuntza sistema ofizialaren eskolak zer esanik ez), metodo tradizionaletan oinarritzen baitziren. Hala ere, lehen aipatu dugunez, aldaketarik nabarmenena hizkuntzan ematen zen. Konparazioa labur honela adieraz daiteke: Elbiraren ikasleak euskaraz metodologia aurrerakoi batekin ikastetik erdaraz ikastera eta metodologia tradizional batera aldatu zirela. Guztiak ados daude Elbira ondo prestatuta zegoela irakaskuntzan

urte gehiagoko ikasleei klaseak emateko, gai zelako eta aldi berean pertsona oso jakintsua zelako. Hain zuzen, bere buruari buelta asko ematen ziolako, azkenean gaur egun harrিতта uzten gaituzten erakuste metodoak lortu arte.

## 5. Familiaren inplikazioa

Familiaren inplikazioa hiru puntu ezberdin hauetan aztertuko dugu: batetik, eskolarekin etxeko heziketan zuten lankidetzaz; bestetik, euskarekiko jarrera eta bukatzeko Elbira Zipitriaren eskola laguntzeko orduan.

Elbiraren etxe-eskolarekin batera, garrantzi handikoa etxeko heziketa zen. Kontuan hartu behar dugu etxe-eskolan egunero bi ordu bakarrik egoten zirela eta horregatik gurasoen papera heziketan gelditzen ziren beste ordu kopuru guztietan pisu handikoa zen. Ikasleek etxean etxeko lanak egiten zituzten; ariketa guztiak txukun eta garbi egin behar zituzten. Blokak erabiltzen zituzten, hau da, ikasgai bakoitzarentzat ez zuten ariketa liburu bat. Dena blok batzuetan egiten zuten, beti kolore urdina eta gorria erabiliz, arkatz beltza, lehenago esan dugunez, idazteko soilik erabiltzen zelako.

Elbirak eskolarekiko gauzetan ez zien inoiz gurasoei laguntzarik eskatu etxeko heziketan. Hau da, gurasoek etxean ez zuten ezer berezirik egin behar beren seme-alaben eskola heziketarako. Andereñoak klaseko bi orduetan ikasgaiak azaltzen zituen eta ondoren egunero etxeko lanak bidaltzen zituen ikasle bakoitzak bere etxean egin zitzan. Etxeko lanek berezitasun bat zuten, hain zuzen ere, dena marrazkiaren bidez egiten zutela. Adibidez, matematikan (aritmetikan) batuketak egiterako orduan ez zituzten bakarrik zenbakiak idatzi behar; ariketa hiru tximeleta gehi lau tximeleta baldin bazen tximeletak marraztu behar zituzten, hau da: hiru tximeleta marraztuta

gehi lau tximeleta marraztuta, ondorioz zazpi tximeleta marraztuta agertu behar ziren. Gurasoek ez zuten ezer berririk erakutsi behar, bakarrik kontuan izan etxeko lanak zuzen eta txukun egiten zituztela.

Bestalde, euskararekiko heziketan bi jarrera ezberdin aurkitu ditzakegu. Alde batetik, familia kopuru bat betidanik giro euskaldun batean murgilduta egon direnek osatua eta horregatik bai seme-alabekin eta baita gurasoen artean beti euskaraz hitz egin dutenak. Familia hauen kasuan, egiten zutena gauza naturala zen, beraiek aipatzen zuten bezala: euskaldunak bagara, nola hitz egin behar dugu, ba?. Beste aldetik, beste familia kopuru bat zegoen seme-alabekin euskaraz hitz egiten zutenak baina beraien artean erdara erabiltzen zutenak. Gehienek beren gurasoekin erdara bakarrik erabiltzen zuten eta, hortaz, familia hauek izan ziren Elbirarekin euskarako klaseak jaso zituztenak. Hau da, euskara bazekiten baina oso oinarritzko era batean, gauza ziren seme-alabei hitz egiteko, baina beren artean elkarrizketa normal bat izateko ez. Ondorioz, seme-alabak hazi zirenean bazekiten egoera eta pertsonaren arabera noiz euskara erabili eta noiz gaztelania erabili (askok beren aiton-amonekin erdaraz hitz egin behar zutelako). Hala ere familia hauek kalera ateratzeko orduan beti giro euskalduna bilatzen zuten eta horrela lortzen zuten beren seme-alabak euskaraz hitz egitea beste haur guztiekin. Laburtuz, Elbirak bi ikasle mota eduki zituen: alde batetik, euskaraz bakarrik hitz egiten zutenak eta, beste aldetik, ingurune elebidun batean heziak zirenak, euskara eta gaztelania erabiliz.

Nahiz eta garai hartan euskaraz hitz egitea neurri batez edo bestez debekatuta egon, familia guztiek bai etxean eta bai kalean euskaraz hitz egiten zuten inongo errepresiorik gabe, batzuk seme-alabekin bakarrik eta beste batzuk familiako pertsona guztiekin, beti saiatzen zirelako giro edo talde euskaldunetan murgiltzen. Aipatzekoa da Elbiraren ikasleak batxilergoko ikasketak

hasten zituztenean larunbat arratsaldeetan Elbirarekin euskara ikasten segitzen zutela. Ez dugu ahaztu behar kolejoetan ikasgai guztiak erdaraz ikasten zituztela eta, beraz, bederatzi urte arte ikasitako guztia ez ahazteko, euskal kulturaren inguruan gehiago ikasteko eta beren arteko harremana mantentzeko, Elbirak larunbat arratsaldeetan bi orduko klasea ematen ziela. Esan dezakegu bai Elbirak eta baita familiek ere garai hartan ahalegin asko egin zituztela euskara ez galtzeko eta beraien artean bizirik mantentzeko.

Hala ere, Elbirak ez zuen inoiz laguntzarik eskatu. Hau da, gurasoek ez zuten ezer berezirik egin behar Elbiraren eskolari laguntzeko, berak eskatzen ez zuelako eta, gainera, haren ustez eskolak laguntza berezirik ez omen zuelako behar. Gurasoak irekiak zeuden edozer gauzatarako, prest zeuden Elbirak zerbait eskatu orduko beraiek berehala laguntza eskaintzeko, baina Elbira, familiek azpimarratu digutenez, ez zen oso eskalea izan. Ez zuen laguntzarik behar, berak bere burua gauza ikusten zuelako berak bakarrik bere etxe-eskola aurrera eramateko, laguntza berezirik gabe. Pertsona oso jakintsua izan zen eta esperientzia handikoa ere bai. Ondo asko zekien, beraz, zer egin behar zuen zuhurtasunez egoera bakoitzaren aurrean.

## **6. Kostu ekonomikoa**

Kostu ekonomikoa hiru puntu hauetan aztertu dugu: Elbirak hilerokobratzen zuen kuotaren arabera, bete kostu ekonomikoaren arabera eta, azkenik, laguntza ekonomiko berezien arabera.

Garai hartako edozein kolejio pribatueta bezala, Elbira Zipitriaren etxe-eskolan hileroko kuota ordaintzen zen. Egutero bi ordu klase jasotzen zuten eta ondoren gurasoek hileroko kuota bat ordaindu behar zuten; de-

nek kuota berdina. Ikasle bakoitzak dirua sobre batean eramaten zuen, kanpoko aldean bere izena idatzita eta logelan zegoen kutxa baten barruan uzten zuten. Guraso bakoitzak bere iritzi pertsonala du kuotari buruz, baina bi iritzi ezberdin nagusi nabarmen ditzakegu: alde batetik, kolejoak baina garestiagoa zela esaten dutenak eta, beste aldetik, merkeagoa zela adierazten dutenak. Hala ere, gai honetan ezin dugu ahaztu behar faktore garrantzitsu bat dagoela, hau da, garai hartako kolejio bakoitzak bere kuota propioa izango zuela eta, honen ondorioz, familia bakoitzak beren seme-alabentzat aukeratutako kolejio mota berezietan zeuden kuotak gogoan izango zituztela konparazioa egiterakoan. Horregatik batzuk gehiago ordainduko zuten eta beste batzuk gutxiago, kolejioaren arabera.

Kuota zenbatekoa zen zehatz-mehatz ezin dugu esan, baina 1950. urtearen ingurutik gora, hilero gutxi gora behera 75 bat pezeta ordaintzen zuten haur bakoitzeko. Ondoren, batxilergoko ikasketak egiten hasterakoan kolejio bakoitzak bere kuota zeukan; kasu batzuetan agian merkeagoa izango zen eta beste batzuetan, berriz, garestiagoa. Hala ere, geure elkarrizketetan familia gutxi izan ziren kuotaren zenbatekoaz gogoratzen zirenak, baina guztiek gauza berdina adierazten zuten, Elbira ezagututa, kuota oso garestia ez zela izango eta, nahiz beraiek zehatz-mehatz zenbat zen ezin esan, ez dutela garestia zelaren oroitzapenik. Elbirarentzako eskola ez zen inola ere negozio bat. Hau da, bertatik ez zuen dirurik ateratzen, justu justu bakarrik etxe-eskola irekita mantentzeko.

Kuotaz gain, ikasle bakoitzak bere material pertsonala erosi behar zuen Kaiola izeneko denda batean. Donostiako alde zaharrean kokatua zegoen denda hori, hain zuzen ere. Dendaren jabea Elbiraren laguna zenez, ikasleak dendara sartzen zirenean bazekien hark zer erosi behar zuten: bloka, arkatz gorria eta urdina edo arkatz beltza. Dena den, Elbirak ez zuen ezer gehiago eska-



tzen eta oso argi esan behar da ez zegoela beste kostu ekonomikorik, ez beste inolako laguntza ekonomikorik. Laburbilduz, Elbiraren etxe-eskolan bi gastu ekonomiko zeuden: hileroko kuota eta ikasle bakoitzaren material pertsonala, besterik gabe. Gutxirekin lortzen zuen asko.

## 7. **Gizarte ingurunea**

Atal honetan lau puntu nagusi azalduko ditugu labur-labur: kultura giroa, erlijio ingurunea, dirubide ingurunea eta politika ingurunea.

Kulturaren aldetik, familia gehienak giro euskaldu-nekoak ziren. Aurreko atal ezberdinetan ikusi dugunez, familia guztiek euskarari garrantzi handia ematen zioten. Orduan eta gaur egun ere bai. Euskaraz bizi izan dira eta bizi dira, bakoitzaren harremana euskararekiko ezberdina izan bada ere. Oro har, esan daiteke Elbiraren ondoan egon ziren familiek euskara, hizkuntza eta kultura, gogotik defendatu zutela. Euskal kulturari zor zitzaion bidea zabaltzen ahalegindu ziren. Honek marka berezia ematen zien familia horiei.

Erljioari dagokionean, guraso guztiak katolikoak ziren eta haurrak kristautasunaren bidean jartzen zituzten. Baina bi tankera ezberdinetakoak zeuden: batetik, katolikoak era oso sakonean zirenak; beste aldetik, katolikoak zirenak baina eliza giroan «praktikatzan» ez zutenak. Bi jokamolde hauen artean berdintasun nabari bat aurkitzen da: garai hartan familia guztien seme-ala-bek bataioa izaten zutela eta jaunartzea egiten zutela, hau da, modu batean edo bestean elizarekin harremanen bat izaten zutela. Gaur egun egoera asko aldatu da eta, nahiz familia gehienek gaur ere elizarekin harremana mantendu, badira familia batzuk harremana garai hartan edo pixkat beranduxeago bukatu zutenak. Hau da, fededunak izan arren ez dute herri mailako eliza elkarteetan

«praktikan» jartzen. Jakina da Elbira oso elizkoia izan zela eta bere etxe-eskolan erlijioak garrantzia zuela. Baina egoerak aldatzen diren moduan pentsamendua eta ideologiak aldatzen dira baita ere eta, ondorioz, gaur egun ez dira asko erlijioa lehengo eran eliza giroan «praktikan» jartzen dutenak. Gaur bi egoera ematen dira: gurasoak oso elizkoiak izan eta «praktikatzen» jarraitzen dutenak, baina beren seme-alabak ez hainbeste edo ezer gutxi; eta beste aldetik, ez gurasoak ezta seme-alabak ere eliza giroan «praktikatzen» ez dutenak, nahiz fededun izan.

Dirubidearen inguruari dagokionean, denak gizarte estatus berdintsuan kokatzen ziren. Baina arazo honekin egiten dugu topo: non hasten da eta bukatzen da gizarte estatus bakoitza? Esan dezakegu familia guztiak erdi maila batean kokatzen zirela. Hala ere, beraien arteko egoera ekonomikoak bazuen ezberdintasunik. Batetik, diru arazo handirik gabe bizi ziren familia asko zeuden, hau da, ekonomia eta gizarte aldetik ondo baloratuta zeudenak eta diru baliabideen aldetik behintzat bizitza lasaia zeukatenak. Bestetik, beste familia batzuen kasuan egoera ekonomikoa ez zen hain lasaia izan. Jantzeko, jateko, eskolara joateko... hau da, bizitzeko ez zuten arazorik baina hilabete bukaerarako ez zen pezeta bat ere soberan geratzen. Kasu gutxi batzuetan estu samar bizi ziren familiak ere baziren tartean. Familia ogibidearen aldetik, berdintasun nabarmen bat aurkitzen dugu: garai hartan, ama gehienak etxean geratzen ziren etxeke lanak egiten. Kontuan izan behar dugu haurrak Elbira-ekin egunero bi ordu besterik ez zirela egoten eta egunaren beste ordu guztietan ama izaten zutela arduradun: etxe-eskolara eraman eta bila joaten zirenak, gero etxean eta kalean lagundu... Ezberdintasuna beste alde batetik ematen zen, hau da, familia bakoitzean aita izaten zen etxetik kanpo lana egiten zuena. Denetik zegoen: banke-txeetan edo antzekoetan lan egiten zutenak, besteren ba-

ten kontura lantoki mota ezberdinetan, profesio liberalak zituztenak, autonomoak... Bakoitzak bere lekua zuen eta hemendik sortzen ziren lehen aipatutako ekonomia inguruko ezberdintasunak, lan motaren eta lantokiaren arabera gehiago edo gutxiago irabazten zuten.

Politikoki, berriz, ez zegoen ezberdintasun handirik. Familia gehienak EAJ-PNVkoak edo inguru hurbilekoak ziren eta gutxi batzuk ezkerrekoak. Hala ere, gurasoek aitortu digutenez, Elbirak, ikasleak hartzerako orduan, gurasoen politika alderdiak ez zituen kontuan hartzen, nahiz bera alderdi politiko jakin batekoa izan, EAJ-PNVkoa hain zuzen. Familia gehienak EAJ-PNVkoak edo ingurukoak eta gutxi batzuk ezkerrekoak izanda, beren artean ez zen egon inolako arazorik, politikaren gainetik eta azpitik denak euskaldunak zirelako eta beren arteko harremana (irakasle-guraso eta gurasoen artekoa) beti oso ona izan zelako. Gogoan izan behar dugu Francoren garaia zela eta, hortaz, alderdi politiko berdineko edo antzeko jendeak lotura asko zuela, denak sistema politiko berdinarekin kontra, frankismoaren aurka, saiatzen zirelako. Guztiek errepresio garai horri bukaera emateko esperantzarekin ahalegin asko egin zituzten eta horrek sortzen zituen harreman eta loturak garai hartan indar handikoak ziren. Gero bizi izandako guztiaren ondoren harreman asko galdu dira.

## 8. Atal librea

Atal honetan elkarrizketaren bukaeran gurasoei El-bira Zipitriaren eskolaz era askean erantsi edo adierazi nahi zutena adierazteko eskatu eta jaso genuena azalduko dugu. Aipatzekoa da gurasoek esandakoa: Elbirari buruz gauza txar asko esan omen dira eta guztiak gezurrak dira esan ziguten. Horregatik, familia guztiak esan denarekin oso minduta omen daude eta elkarrizketa egiterako

orduan gauzak garbi utzi nahi izan zituzten, gezurrak baztertzeko asmoz.

Elbirari buruz familia guztiek kontzeptu bera azpimarratu dute. Hauxe: pertsona oso berezia izan zela. Elbirak, espeziala izanda, familia guztien errespetua irabazi zuen eta guraso guztiek, pertsona eta irakasle moduan, oroitzapen oso ona gordetzen dute. Izan ere, gurasoek ez dute ulertzen zergatik beren seme-alaba batzuk ez duten beti oroitzapen onik. Kontuan izan behar da guraso guztien iritzian andereñoa pertsona *berezia* izan zela eta ikasle izan zirenen iritzian, berriz, pertsona *zorrotza*. Gurasoek bazekiten ondo Elbira ikasleekin zorrotza zela eta irakaskuntzan asko eskatzen zuela, baina guraso guztiek esperientzia berriro errepikatuko luketela esan digute, seme-alaben iritziak gora behera.

Garai hartan Elbiraren etxe-eskolara joatea ez zuen jende askok begi onez ikusten, klandestinoia zelako. Gehienek ezkutu samarrean eramaten zituzten beren haurrak eskolara eta, hezkuntzako inspektorea hara joatekoa zenaren susmoa zegoenean, ikasleek berehala beren etxeetara joan behar izaten zuten. Gaur egun, ordea, oso gustura daude beren seme-alaben heziketaren alde egindako guztiarekin. Etxe-eskolan erabiltzen zen metodologia zoragarria omen zen, kolejioetan ikusten ez zena. Horregatik, batxilergoko ikasketak egiteko kolejioetara aldatu zirenean, ezberdintasuna nabaria izan zen. Familia askorentzako pauso zaila izan zen seme-alaben heziketan, baina orduan ezin zuten beste gauzarik egin, nahiz guraso guztiek aitortu Elbirak ikasturte gehiago eman izan balitu berarekin jarraituko zutela zalantzarik gabe. Bi arrazoi nagusi zeuden horretarako: etxe-eskolan ikasleek euskaraz ikasten zutelako eta bertatik oso ondo prestatuta ateratzen zirelako.

Hala ere, eskolan bazegoen gurasoen gustukoa ez zen berezitasun bat. Hauxe: egunero bi orduko klasea bakarrik izatea. Egoera hau familia askorentzat arazo bat

zen, egun guztian zehar seme-alabekin egon behar izaten zutelako. Gauzak horrela, askok akademia ezberdinetara eramaten zituzten: frantsesa ikastera, josten ikastera... Alde batetik, hori abantaila bat zen, gauza gehiago ikas-teko aukera zutelako; baina beste aldetik, desabantaila garrantzitsu bat ere bazegoen; hau da, diru gehiago gastatzen zutela seme-alaben heziketan. Familia batzuk ezin zuten diru gehiago gastatu eta egun osoan zehar seme-alabez arduratu behar izaten zuten. Arazo gehiago izaten omen ziren neguan, egunaren zati handia etxean sartuta egon behar izaten zutelako, baina udaberrian eta udan kalera joateko probetxatzen zuten.

Elbiraren beste berezitasun bat hauxe izan zen: eskola orduak oso ondo gordetzen eta mantentzen zituela. Eskolara sartzeko ordua eta ateratzeko ordua oso ondo finkatuta zeuden. Adibidez, klaseak hamarretan hasten baldin baziren ikasle guztiak hamarretan egon behar zuten puntualki eta klasetik ateratzerakoan berdin, hamabietan klaseak bukatzen ziren eta bakoitza bere etxera.

Elkarrizketetan askotan azpimarratu duten beste berezitasuna honako hau izan da: irteerak. Elbirarekin ikasleek irteera asko egiten zituzten, beti Euskal Herriko mendi ezberdinetara. Ikasturtearen bukaera aldean, ikasleak eta nahi zuten gurasoak Arantzazura joaten ziren eguna pasatzera. Bertan, gehienek aitortu digutenez, urtero gauza berdina jaten zuten: arroz txuria eta tortila frantsesa. Autobusean kanta euskaldunak abesten zituzten eta euskaraz bakarrik hitz egiten zuten.

Elbiraren ikasle gehienek duten irudia pertsona eda-detuaren irudia da. Dirudienez, beti itxura berdinarekin azaltzen zen. Gona plisatua, zapata beltz baxuak eta ilea ondo orraztuta, onda bat eginez. Gurasoek ez dute orimenean haren itxura ondo gorde. Halaxe esan digute. Hori bai, Elbira izan zen pertsonaren irudia oso ondo gorde dute.

Harreman handia izan zuten familiek Elbiraren azken ametsa ondo gogoratzen dute: Bermeo inguruko herri txiki batean lurperatua izatea. Eta horixe egin zuten haren ondoan egon ziren gurasoek, berarekin egon azken momentura arte eta ondoren berak eskatutakoa betetzeko bidea jarri. Badira familia batzuk, gaur egun ere, Elbira zena jaso zuen hilerrria bisitatzera joaten direnak, hura eta hark isilik egindakoa ahaztu nahi ez dutelako. Pertsona oso berezia eta zaila izan zela, baina haren ondoan egon zirenek beti beren bihotzetan eramango dutela aitortu digute.

Bukatzeko, guraso guztiak asko errepikatu duten esaldiarekin bukatu nahi dugu: Elbira Zipitria normaltasunetik kanpoko emakumea izan zela. Emakume aparta alderdi guztietatik begiratuta: irakasle ona, langilea, zuzena, zintzoa... Zenbat gauza on egin zituen Elbirak! Garai hartan erabat pentsaezinezkoa zen gaur egun unibertsitateko ikasketa asko euskaraz egiteko aukera izatea. Baina zubi horri esker, hau da, Elbira Zipitria, Karmele Esnal, Faustina Carril, Amale eta Ixiar Arzelus, Jone Forkada eta beste bidegile batzuei esker, gaurko egoera horrelakoxea da. Zubi hori gabe, gauzak oso ezberdin izango lirateke.

## 9. Azken hitzak

Azkenengo atal honetan iritzi eta balorazio orokor bat egingo dugu labor-labor. Kontuan hartu behar da, lan hau aurrera eramateko denbora gutxi izan dela eta guk geure aldetik ahalegin guztiak egin ditugu hasieran genuen helburua lortzeko.

Azterteketa lan hau mugatua da, bakarrik bost familiaren esperientziak eta bizipenak jasotzeko aukera izan dugulako. Jarraipena eduki beharko luke saio honek, hain zuzen bizi diren guraso guztiak elkarrizketatuz eta eman-

go lituzketen datu guztiak ondo aztertuz. Modu honetan, datu gehiago lortuko genituzke. Izan ere, guk familia bakoitzarengandik lortutako datuak elkarren artean antz handikoak dira eta horrexegatik zentzu honetan ez dugu izan zailtasun handirik datuak erregistratzeko orduan.

Aldi berean, gizarte azterketa zabalago bat behar beharrezkoa da eta baita azterketa pedagogiko konparatu bat ere, guk jaso ditugun datuak hobetoago kokatzeko eta interpretatzeko. Bistan denez, horrelako lan batek denbora eta baliabide gehiago eskatzen ditu. Eta seguru gaude luze baino lehenago bai gizarte azterketak eta bai pedagogia azterketak sortuko direla Elbira Zipitria zenaren eskola zorrotz eta zehatz arakatzeko.

Bukatu baino lehen hauxe azpimarratu nahi dugu: Elbira Zipitriak egindako lana oso garrantzitsua izan da gaur dugun hezkuntza sistema dugun moduan izateko. Gaurko euskal hezkuntza ezin da behar bezala ulertu Zipitriaren eragina kontuan hartu gabe. Hura gabe, ez dakigu gaur euskaraz ikastea posible izango zen edota euskara hizkuntza bezala mantendu den eran mantenduko zen edo ez. Bizitzan Elbira bezalako pertsoneri asko zor diegu, haiek garai latzetan egindako lan eta saiakera guztiei esker guk gaur daukaguna daukagulako.

Bukatzeko benetan eskerrak eman nahi diegu elkarriketa egiteko prestatu diren familia guztiei. Gurekin elkarriketa egiteko eskainitako denborarengatik eta, batez ere, bakoitzak Elbira Zipitriarekin bizi izandako esperientzia eta bizipen guztiak kontatzeagatik. Bestela lan hau egiteko aukerarik ez zen inola ere izango. Mila esker zuei.

**BIGARREN ZATIA:**

Piageten Argia





## 4

### PIAGET: PERTSONA, LANA, TEORIA

*Pello Huizi*

Psikologia Fakultatea eta ILCLI

Euskal Herriko Unibertsitatea

Ez omen dago deus hastea bezain zaila denik. Hala zioen Jean Guittton (2000/1951) filosofoak idazteaz ari zela. Zerbaiti ekin beharrak, jarraitzen zuen berak, aurrena larria ematen dizu, gero nagitasuna eta azkenik etsipena. Zer egin, orduan, hori gerta ez dadin? Bada, hauxe: ez hasi. Hasi behar izatetik ihes egiten saiatzea gomendatzen zuen Guitttonek. Eta horretarako zer egin dezakegun ere esan zigun: aldez aurretik egina dugunari —edo egina dagoenari— berriz heltzea eta jarraipena ematea. Aholku zinez zuhurra Guitttonena, idaztea neke egiten zaigunontzat batez ere. Baditut dagoeneko bi lan argitara emanak Piageti buruz. Lehenbizikoa, oso laburra, hiru orrialde eskas zituena, 1980an idatzi nuen *Jakin* aldizkarirako Piaget hil zenean. Bigarrena, luzeagoa, 1997an agertu zen Paigeten *La naissance de l'intelligence dans l'enfant* liburuaren euskal itzulpenaren hitzaurre gisa. Guitttonen aholkuari jarraituz, lan horietaz baliatuko naiz hasi beharrik ez izateko. Baina hasteko ez ezik, jarraitzeko, eta are bukatzeko ere, lagungarri on gertatuko zaizkit.

«Zaila da, zinetan, Piaget bezalako ikertzaile baten nortasuna eta lana bost lerrotan laburtzea» (Huizi, 1980,

68. or.). Esaldi horrek ematen zion hasiera 1980an idatzi nuen lantxoari. Eta hori egia zen orduan, lanak oso laburra izan behar zuenean, eta egia da orain ere, lana luzexeagoa izan daitekeenean. Eta ez niretzat bakarrik. Paul Fraissek ere, Piageten adiskidea eta segur aski Frantzian XX. mendearen bigarren zatian izan den psikologorik ospetsuenetakoa izan arren, ez zuen uste bera gaitua zegoenik Piageten ibilbide zientifikoaren berri behar bezala emateko. Hori adieraziz hasi zuen bere hitzaldia Piageti, bere laurogeigarren urtebetzea zela eta, Genevako Unibertsitatean egin zioten omenaldian. Izan ere, Piagetek erruz idatzi zuen. «Berrogeita hamar bat liburu eta ehunka artikulua utzi dizkigu» (*ibid.*), esaten nuen 1980an. Mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpikoak, berriz, honako hau: «... ez zuen gutxi idatzi, ez horixe. Oso goiz hartu zuen idazteko ohitura; idatzi gabe ezin zuela pentsatu zioen berak, eta lanak lasaitzen laguntzen ziola. Horrela uler daiteke 1907tik —lehenbiziko idazlanaren urtea— 1980ra arte —hil zen urtea— zazpiehun lanetik gora argitaratzea, liburu, artikulua, hitzurre eta bestetan (ikus Ducret, 1990). Garapen kognitiboaz bakarrik, berrogeitik gora liburu eta ehundik gora artikulua zituen idatziak hil zenean» (Huizi, 1997, 11. or.). Ducreten (1990) arabera, hirurogeita hamar milatik ehun milara bitartekoa izan daiteke Piagetek eskuz idatzitako orrialdeen kopurua. Baikorra ere bihozgabetzeko moduko zenbakiak dira horiek. Dena dela, alde onik ere badute, zeren Piageten ikertzaile ez den batek —eta hori da nire kasua— beti baitauka esaterik harako «zumarrari ez eska gari» esatera zahar hura.

Aurreko bi lan horietan hartutako bideari jarraituz, azkenekoan hartutakoari bereziki, aurrena, Piageten bizi-tzaren argitasun batzuen ondoren, haren ibilbide zientifikoaz ariko naiz, haren ikerketa eta lanez, eta ondoren haren teoria laburtzen saiatuko naiz.

## Piaget: pertsona eta obra

Piaget Neuchâtelan, Suitzan, jaio zen 1896an eta Genevan hil zen 1980an. Aita, Erdi Aroko literaturan aditua eta Neuchateleko kantonamenduaren historialaria, gizon arretatsua eta zehatz-zorrotza omen zen —hala dio Piagetek berak bere *Autobiografian* (Piaget, 1952)— eta «beste gauza askoren artean lan sistematikoaren balioa» (237. or.) irakatsi omen zion. Amaz dioena ez da hain positiboa; onartzen du funtsean ona zela, baina baita bortitza eta neurotiko samarra ere. Amaren izaera horrek izan zuen ondoriorik Piageten bizitzan, berak aitortzen duenez: oso goiz jostatzeari utzi eta lan serioari heldu zion.

Oraindik ez zituen hamaika urte orrialde bakarreko artikulu bat bidali zuenean Neuchateleko aldizkari batera. Gaia parke batean ikusi zuen txolarre albino bat zen. Argitaratu egin zioten lana: pozez gainezka jarri zela dio autobiografian. Lantxo hori dela eta, askok egin nahi izan dute Piaget bereziki goiztiarra eta haur miraria ote zen ere iradoki du batek baino gehiagok. Kontu hori dela eta, 1980ko lanean honela genioen: «Berdin da. Garrantzia gero egin duen lanak du, eta ez haurtzaroko lan horrek. Dena dela, haurtzaroak era berezian erakartzen zuela argi adierazi zuen norbaiti esan zion honetan: «Azkeneraino haurra izaten jarraitzea da nire ideala». Izan ere, haurtzaroa zen Piagetentzat bizitzako aldirik kreatzaileena» (68. or.).

Bere lehenbiziko artikulu handia 1911n idatzi zuen, 15 urte zituela, eta 1912an agertu zen *Journal de conchiliologie* aldizkarian (konkiliologia maskorra duten animaliez diharduen natur zientzien adarra da). Hurrengo bost edo sei urteetan, gutxienez 25 artikulu idatzi zituen. Gaia maskordunak ziren, aintzira-maskordunak bereziki. Lan horiek goiztartzat jotzen ditu autobiografian, baina baita balio handikotzat ere bere garapen zientifikoari

begira. Ikerketa horiek, bestalde, «filosofiaren demonioaren kontra» ere babestu omen zuten. «Horiei esker, zientziari eta zientziaren garrantziari antzemateko pribilegio bakana izan nuen nerabegaroko krisi filosofikoak igaro aurretik» (Piaget, 1952, 239. or.). Artean 17 urte ez zituela, Genevako natur zientzien museoko zuzendariak bertako malakologia sailaren ardura hartzea proposatu zion (malakologia moluskuez diharduen zoologiaren adarra da). Zuzendari horrek ez zuen Piaget bera ezagutzen, eta ez zekien haren adinaren berri; moluskuen sailkapenari buruz idatziak zituen aurreneko artikuluetatik ezagutzen zuen. Piagetek uko egin behar izan zion eskaintzari; izan ere, artean bigarren hezkuntza bukatu gabea zuen.

Urte horietan, bestalde, filosofia irakurtzeko zaletasuna sortu zitzaion: filosofiarako grinak hartu zuela dio berak. Henri Bergsonen «eboluzio sortzailearen» ideiak, adibidez, zirrara ikaragarria eragin omen zion, «xok emozionala» batetik eta «xok intelektuala» bestetik, autobiografian dioenez (240. or.). Bergson irakurriz erabaki zuen bere bizitza ezagutzaren azalpen biologikoari eskainiko ziola. Luzaro gabe, ordea, Bergsonen desilusionatu egin zuen, haren pentsaerak ez baitzuen oinarri esperimentalik<sup>1</sup>. «Biologiaren eta ezagutzaren analisiaren artean filosofia ez zen beste zerbaitek behar nuen», dio orrialde berean. Eta «beste zerbaitek» hori ezin zela psikologia besterik izan ohartu zen. Filosofoen idazlanak irakurtzen jarraitu zuen hala ere, Kant, Spencer Auguste Comte eta Durkheimenak adibidez, baina zenbait psikologorenak ere hasi zen irakurtzen, W. James amerikarrarenak eta Th. Ribot eta Janet frantsesenak esaterako.

---

<sup>1</sup> Piageten nerabegaroko krisietako bat izan zen hori, krisi filosofikoa; beste krisi bat krisi erlijiosoa izan zen (ikus *Autobiografia*, 239.-240. orrialdeak)

Doktoregoa lortu, moluskuez ari zen tesiaren bidez, eta, Neuchatel utzita, Zurichera abiatu zen 1918an psikologia laborategi batean lan egiteko asmotan. Han, laborategiko lanaz gainera —bi laborategitan ibili zen—, Freud irakurri zuen, Pfister artzain protestante eta psikoanalistaren eta Jungen zenbait hitzaldi entzun zituen eta Bleuler psikiatraren irakaspenak ezagutu zituen. Dena dela, denbora gutxi egin zuen han. Hango esperimenduek zerikusi gutxi zuten, nonbait, Piagetentzat funtsezkoak ziren problemekin; bestalde, amaren buruko osasun eskasak eraginda, psikoanaliarekin eta psikologia patologikoarekin izan zuen harremanak betiko kendu zion norabide horretan gehiago sakontzeko gogoia.

Horrela, bada, 1919ko udazkenean, introspekzio filosofikoaren bideari uko egin eta Parisera joan zen Janet, Piéron eta Simonekin lan egitera Alfred Binet «Binet-Simon» adimen test ezagunaren egileak sortutako laborategian. Laborategiaren ardura Bineten laguntzaile izandako Simon jaunak zuen. Honek Cyril Burt psikologo ingelesaren arrazoibide-testak Pariseko haurrentzat estandardizatzeko egitekoa eman zion Piageti. Uste baino atseginagoa eta emankorragoa gertatu zitzaion gure autoreari eginkizun hori. Lan horri esker aurkitu zuen aurreneko aldiz haur pentsaeran dagoen aberastasun harrigarria (ikus Munari, 1994). Lan horri esker hasi zen baita ere zirriborratzen haur txikiak galdekatzeko bere metodo klinikoak. Metodo hori, Munariren (1994) arabera, Dumas eta Simonengandik psikologia klinikoan eta Brunshvig eta Lalanderengandik epistemologian, logikan eta zientzien historian jasotako irakaspenen sintesia da. Sintesi horri «guztiz originala eta harrigarria» deritzo Munarik, batera jartzen saiatu omen zelako ordura arte mendebaldeko tradizioan bakoitza bere aldetik zihoazen hiru bide hauek: zientzia esperimentalen bide enpirikoa, zientzia logiko-matematikoen bide hipotetiko-deduktiboa eta zientzia historikoen bide historiko-kritikoa.

Parisen, dena dela, batez ere haur ospitaleratuak galdekatu zituen Piagetek, Munarik gogoratzen digunez. Édouard Claparède psikologo eta pedagogo suitzarrak deituta Genevara joan zenean izan zuen haurrak beren giro normalean galdekatzeko aukera. Parisen zegoen oraindik Piaget psikologiaren arloko gaiak jorratzen hasi zenean. Lan batzuk argitaratu ere egin zizkioten. Horietako bat Claparède zuzendaria zen *Archives de Psychologie* aldizkaria bidali zuen. Claparédek lana argitaratu eta, gainera, Genevako Rousseau Institutuan ikerketa-zuzendari izateko deia egin zion. Autobiografian (245. or.) aitortzen duenez, Claparéderen proposamenak bere bizitzari beste norabide bat ematea ekarri zuen. Atseginarean atseginez, Paris utzi eta Genevara aldatu zen 1921ean. Han, ikasleak ikerketa bideetan gidatzea zen beraren egitekoa. Zer ikertu erabakitzea berari zegokion; baldintza batekin, hala ere: haurren psikologiaren sailekoak izan behar zuten ikerketek. Aukera horretaz baliatuz, plan batzuk ere egin zituen, berak orduan behin-betikoizat zeuzkanak: aurrena bizpahiru urte eskainiko zizkion haurren arrazoibidearen garapenari, ondoren bizitzako lehen bi urteetan adimena nola sortzen den ikertuko zuen eta, azkenik, adimenaren oinarriko egituren zer nolakoaz jabetu ondoren, epistemologia psikologiko eta biologiko bat eraikitzeko moduan egongo zen. Egia esan, plan horiei egiterakoan, Piaget ez zen batere zuzen ibili bere kalkuletan, ia mende-erdia behar izan baitzuen bizpahiru urtetan egin asmo zuena burutzeko. Dena dela, Genevan eman zion hasiera ia hirurogei urte iraun zuen bere lan psikologiko ikaragarriari.

Piageten obra aztertu dutenetako batzuek (ikus, e. b., Beilin, 1992; Montangero, 1985; Montangero eta Maurice-Naville, 1994), neurri batean behinik behin Piageten beraren autobiografiari jarraituz, lau aldi bereizi dituzte haren lanean. Montangero eta Maurice-Navillek (1994) honela laburtzen dituzte aldi bakoitzean landu-

tako gaiak: lehenbizikoan, «haurraren pentsamoldea eta pentsamenduaren sozializazio progresiboa» (19. or.); bigarrenean, «ezagutzaren hasiera eta adimen garapenaren eta egokitze biologikoaren arteko paralelismoa» (30. or.); hirugarrenean, «egituren analisisa «kategoria» kognitiboen eratzea aztertzeko» (40. or.) eta , laugarrenean, «ezagueren aurrerabidea azaltzeko dauden hainbat modu» (62. or.). Aurkezpen labur honen ondoren, ikus dezagun geldiroxeago zein ekarpen egin zituen Piagetek laualdi horietan.

—*Lehen aldia*. Hemen, 1923tik 1932ra bitarteko urteetan idatzi zituen bost liburuak sartzen dira: *Le langage et la pensée chez l'enfant* (Hizkuntza eta pentsamendua haurraren, 1923), *Le jugement et le raisonnement chez l'enfant* (Judizioa eta arrazoibidea haurraren, 1924), *La représentation du monde chez l'enfant* (Munduaren irudikatzea haurraren, 1926), *La causalité physique chez l'enfant* (Kausalitate fisikoa haurraren, 1927) eta *Le jugement moral chez l'enfant* (Judizio moralak haurraren, 1932). Aurreneko lan horien gaiak honako hauetara bil daitezke: mintzaira, haurren arteko harreman sozialak eta bai hauek bai hark adimen logiko irudikatzailearekin duten zerikusia. Ikerketa horietatik ondorio hau ateratu zuen Piagetek: pentsamendua sozializatzeak aurrerapen logikoa dakarrela. Zazpi-zortzi urtez beherako haur gaztearen pentsamoldearen berezitasuna ongien adierazten duen hitza egozentrismoa izango litzateke. Pentsamolde egozentrikoak bi ezaugarri nagusi ditu, Piageten arabera: araurik ez izatea eta kontuan norberaren ikuspuntua besterik ez hartzea. Baina haurrak behar ditu harremanak eta behar du eztabaidan ari ere. Horrek, ordea, frogatzea eta egiaztatzea eskatzen du. Horrela, bada,



kideekin harremanetan jarriz eta haien iritziak aintzat hartuz libratzen da haurra egozentrismotik eta iristen da pentsamendu logiko eta objektibora.

— *Bigarren aldia*. Piaget 1923an ezkondu zen Valentine Châtenayrekin eta hiru haur izan zituzten: Jacqueline, 1925ean jaioa, Lucienne 1927an eta, azkenik, Laurent 1931n. Bitarte horretan, emaztearekin batera, hitz egiten hasi baino lehenagoko adimenaren adierazpenak ikertzen hasi zen bere haurrengan. Ikerketa horien emaitzak haur oso txikiaren adimen-gaitasunei eskaini zizkien liburuetan bildu zituen. Hiru liburu izan ziren horiek: *La naissance de l'intelligence chez l'enfant* (Adimenaren sorrera haurrengan, 1936, Klasisikoak bilduman 1997an euskaraz argitaratua), *La construction du réel chez l'enfant* (Errealitatearen eraikitzea haurrengan, 1937) eta *La formation du symbole chez l'enfant* (Sinboloaren eratzea haurrengan, 1945). Hiru idazki horietan dago funtsean bildua bigarren aldi honetako lana. Aurreneko bi liburuak bularreko haurren ezaguera praktikoez ari dira; hirugarrenaren gaiak, berriz, pentsamendu irudikatzailearen hastapenak eta Piageten ustetan irudikapenaren iturburu den imitazioa dira. Haur txikiak aztertzen hastean, lehen aldiko metodo klinikoak aldatu beharra izan zuen. Metodo klinikoan galderak egiten zituen eta haurren erantzunak jasotzen; hitzez, noski. Baina bere haurren erreakzioak aztertuz, Piaget ohartu zen ezen ezagutzaren funtsezko iturburua, ez hizkuntza, baizik haurren ekintzak direla. Horregatik, handik aurrera leku berezia egin zion metodoan gauza konkretuen eskuztatze edo manipulazioari. Lehenbiziko aldiaren eta bigarren honen arteko diferentzia nagusia, hala ere, teoriaren arloan gertatu zen: azalpen soziala alde batera utzi eta

egokitzearen teoria eratu zuen. Hurrengo atalean saiatuko naiz teoria horren ideia garrantzizkoenak azaltzen.

- Hirugarren aldia*. Mila bederatziehun eta hogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, esku artean zuen lana aurrera eramateko berebizikoak izango ziren bi ikasle inguratu zitzaizkion: Bärbel Inhelder eta Alina Szeminska. Horien laguntzarekin, haurraren pentsamenduan biologia, matematika eta fisikako oinarrizko kontzeptuak nola sortzen diren ikertzeari ekin zion eta «kontserbazioaren» ideia ezaguna plazaratu zuen. Garapenaren aldien hipotesia ere lan horretan oinarritu zen. Bigarren Mundu Gerraren hasieratik 1950eko hamarkadaren azken aldera arte<sup>2</sup>, Piageten ikerketak bi ardatz nagusi izan zituen, teorikoa bata, enpirikoa bestea. Azken honi dagokionez, alderdi enpirikoari alegia, arrazoibide matematiko eta zientifikoaren garapena ikertzen aritu zen Inhelderrekin batera eta lan horren berri emanez liburu-zerrenda luzea plazaratu zuten biek<sup>3</sup>.

Ardatz teorikoari dagokionez, garapen kognitiboaren eragiketen teoria eratu zuen. Urte horietan burutu zituzten ikerketek argi utzi zuten haurraren garapen kognitiboan badaudela jauzi kualitatibo batzuk. Jauzi kualitatiboa dago, esate baterako, sei-zazpi urteko haurra ezagutza-arlo askori oinarrizko logika bat aplikatzeko gai bihurtzen de-

---

<sup>2</sup> Suitzaren neutraltasunari esker, gerra denboran ere lanean jarraitu zuen Piagetek.

<sup>3</sup> Liburuaren izenburuak aipatu ordez, denak hona ekartzea gehiegizkoa izango bailitzateke, horietan aztertutako gaiak aipatuko ditugu hemen: zenbakiaren sorrera, kantitate fisikoen garapena, denboraren, mugimenduaren eta abiaduraren garapena, espazioaren irudikatzea, zoriaren ideiaaren sorrera, oinarrizko egitura logikoen sorrera.

nean, eragiketa konkretuen mailara iristean. Beste jauzi kualitatibo bat eragiketa formalen hasieran gertatzen da, nerabeak pentsamendu logiko formala bereganatzean. Aldakuntza horiek azaltzeko, kontzeptu berriak sartu behar izan zituen Piagetek ordura arteko bere teorian. Kontzeptu nagusia eragiketa logikoa izan zen, esanahi hau ematen ziona: ekintza fisiko bat barrentzea edo gogo-barneratzea. Eragiketa logikoak badu funtsezko ezaugarri bat: itzulgarritasuna. Itzulgarritasunak eragiketa alderantzikatzea esan nahi du, arrazoibidearen haria bukatu den puntutik atzera berriz horren hasierara itzultzea. Horrela, aritmetikako arau batek badio «3 zenbakia bira jasotzen bada, emaitza 9 da», eragiketa hori alderantzika daiteke era honetan: «9ren bigarren erroa ateratzen bada, emaitza 3 da». Beste kontzeptu nagusi bat talde egitura<sup>4</sup> edo egitura globala da. Kontzeptu horrek adierazten du eragiketak, orain, ez bakarka, baizik talde bat osatuz hartzen direla. Hortik logika indartsu berriaren sortzea.

— *Laugarren aldia*. Montangero eta Maurice-Navillek (1994) hirugarren eta laugarren aldien artean trantsizio aldi bat tartekatzen dute, 1957an hasi eta hamar bat urte iraun omen zuena. Zergatik tartekatzen duten trantsizio aldi hori ere esaten digute. Lehen hiru aldiek badute gailen gertatzen den kontzeptu esplikatzaile bat edo gehiago. Lehenbizikoak, adibidez, egozentrismoa eta lankidetzak; bigarrenak, egokitzea, eta hirugarrenak, eragiketa egiturak. Trantsizio aldiko urteetan, autore horien arabera, aldaketa bat nabari da Piageten obran, baina ez dago, ez eredu, ez kontzeptu esplikatzaile berririk, nabarmen gailentzen denik. Teoriaren al-

---

<sup>4</sup> Beilinentzat (1992), «aldi estrukturalista» da hirugarren aldi hau.

detik, Piageten eredu teorikoa hirugarren aldikoa da oraindik, baina, aldi berean, beraren lan batzuek laugarren aldia iragartzen dute.

Hori esanda, ikus dezagun zerk ezaugarritzen duen laugarren aldia. Piagetek bere teoria bikain hura, garapen kognitiboan mailei eta egiturei leku berezia aitortzen ziena, bukatua eta ezagutzera emana zuen 1950eko hamarkadaren hasierarako. Brainerden (1996) arabera, hamarkada horren azken aldetik hil arterainoko urteak Piageten aldi psikologikoa izango omen lirateke. Bestela esateko, urte sail horretan Piagetek jorratzen dituen gaiak bete-betean sartuko omen lirateke edozein psikologok bere arloko gaitzat hartuko lituzkeen artean. Ordura arte landu zituen gaiak ez zituzten gogoko garai haietako psikologo gehienek. Behaviorismoa garaile zen urteetan ezagutzaren garapena eta ezagutza bera aztertzea haize kontra joatea zen. Eta hor aukeratutako ikergaiek ere, bestalde, zerikusi gutxi zuten eguneroko bizitzako gorabeherekin eta gutxiago oraindik Ameriketako adimen-testetan egiten ziren galderekin. Hona hemen ikergaien adibitze batzuk: kontserbaziolegeak, zoriaren eta probabilitatearen printzipioak, proiektzio-geometriako kontzeptuak. Piagetek 1950eko hamarkadaren hasieran teoria orokor bat sortu zuen eta teoria horren indar esplikatzailea orduko psikologia ofizialak gogoko zituen gaietara ere zabal zitekeen; ikaskuntza, oroimena edo pertzepzioa bezalakoetara, esaterako. Bada, horixe izan zen Piagetek bere bizitzako azken bi hamarkadetan argitara eman zituen liburu askoren helburua. Hona horietako batzuen izenburuak: *Les mécanismes perceptives: modèles probabilistes, analyse génétique, relations avec l'intelligence* (Hautemate mekanismoak: eredu probabilistak,

analisi genetikoa, adimenarekiko loturak, 1961), *Six études de psychologie* (Psikologiako sei ikerketa, 1964), *La psychologie de l'enfant* (Haurra-  
ren psikologia, 1966), *Mémoire et intelligence* (Oroimena eta adimena, 1968), *Adaptation vitale  
et psychologie de l'intelligence* (Bizi egokitzea eta  
adimenaren psikologia, 1974), *Le comportement,  
moteur de l'évolution* (Portaera, garapenaren era-  
gilea, 1976).

## **Piageten teoria**

Piageten teoria oso zaila eta korapilatsua da. Bryan-  
ten (1982) iritziz, oso gutxi esan omen dezakete zeharo  
eta osoro ulertzen dutela. Bryantek berak eranstean du,  
hala ere, teoria osatzen duten ideia nagusietako asko  
erraz ulertzen direla eta ideia horiek ematen diotela in-  
darra teoriari. Hemen, Piageten teorian leku eta esanahi  
berezia duten kontzeptu horietako batzuk azaltzen aha-  
l-ginduko naiz.

Ezagutzaren oinarritzko osagaien zat *eskema* hitza  
aukeratu zuen Piagetek. Jaiotzean, ekintza-eskema sail  
batez hornitua dator haurra. Eskema horiek hazi eta ug-  
aldu egingo dira gero. Hasierako eskemetatik sortuko dire-  
nek eratuko dituzte, eta osatuko, pentsatzeko prozesuak.  
Ondoretasun genetikokoak hornitzen dituen eskemak erre-  
flexuak dira. Horien adibide bat heltzeko erreflexua da:  
jaio bezain laster, haurtxoak, ahurrean ukitzen baduzu,  
eskua itxi eta heldu egingo dizu. Gehienetan, amaren ha-  
tzari heltzen dio aurrea. Hasieran, beraz, horrelako erre-  
flexu bakun eta sinpleak daude. Baina, horietatik abiatuz,  
nola iristen da haurra eragiketa formalen adimena den  
gailur gora horretara?

Piageten ikuskeran bilakabide horren giltzarria da  
haur txikiak ez diola hatzari bakarrik heltzen, baizik bes-

te gauza batzuei ere heltzen diela. Era horretan, haurrak zabaldu eta hedatu egiten du heltzeko eskemaren erabile-  
ren eremua. Eskema beste testuinguru batean erabiltzeari  
Piagetek *asimilazioa* deitu zion. Izen horrek adierazi nahi  
du erabilera berria eskemaren eremu orokorrean sartzen  
dela. Baina, hemen hartu dugun adibidean, zer esan nahi  
du zehazki eskema hitzak? Bada, hauxe: buruak eskuari  
argibide eta agindu batzuk igortzen dizkiola, gauzakiari  
nola heldu behar dion jakinarazten diotenak. Halabeha-  
rrez, ordea, eskema hori ez da egokia izango haurtxoak  
har ditzan gauza guztientzat. Eman dezagun, adibidez,  
haurrak lehenbiziko aldiz heltzen diola txintxirrinari.  
Hori egitean, haurrak aldatu egin beharko du beharbada  
hatzen jarrera, baita eskua ixteko indarra ere, gauza be-  
rriaren ezaugarrien arabera. Eskema, nolabait esateko,  
berehala ohartuko da aldaketa horretaz eta, ondorioz,  
bera ere aldatu egingo da. Hortik aurrera, zeri heldu be-  
har zaion, hatzari ala txintxirrinari, eskema ez da erabat  
berdin abiatuko. Eskemaren aldatze horri *moldatzea* edo  
*akomodazioa* esaten zaio Piageten terminologian. Asimi-  
lazioa eta akomodazioa, behin eskema abiatuz gero, biak  
batera ibiltzen dira; nekez gertatuko da bata bestea gabe.  
Piageten ustez, onena biek, asimilazioak eta akomoda-  
zioak, neurri berean parte hartzea da. Bietako bat bes-  
teari nagusitzen bazaio, orduan baliteke arazorik sortzea.  
Gehiegizko asimilazioaren adibide bat itxura egitea da,  
alegia egitea. Haurrak hor, den mundura egokitu ordez,  
mundu hori bere erara eta moldera interpretatzen du. Ge-  
hiezigizko akomodazioaren adibide bat, berriz, imitazioa  
da. Beste norbait imitatzen du orain haurrak, zergatik  
imitatzen duen jakin gabe.

Piageten arabera, barrenak agintzen digulako erabil-  
tzen ditugu geure eskemak, geureganatu berriak ditu-  
gunean bereziki, eta prozesu hori abian jartzeko ez da  
kanpoko eragingarririk behar. Horregatik, asimilazioa  
eta akomodazioa gertatzeko aukerak ugari dira, baita

eskemak garatzeko aukerak ere. Bestela esateko, garapena Piageten teoriak dioen bezala gertatzen bada, adimenari ez zaio faltako hazteko aukerarik. Eskemaren erabilera-eremua zabaldu ahala, erabileren arteko ezberdintasunak nabarmenagoak izango dira. Lehentxeago edo geroxeago, eskema erabiltzeko moduak oso ezberdinak izango dira; hain ezberdinak, non eskema bakar bat ez, baizik eskema sail bat izango baita mota edo klase beraren barnean. Pintzela hartzeko eskema eta bolantea hartzekoa aski ezberdinak dira zenbait aldetatik; hala ere, sortzetikoa den heltzeko eskematik datoz biak. Eskemak, bestalde, elkarrekin koordinatu eta eskema erraldoi batean bildu ere egin daitezke konplexutasun handiko ekintzak burutzeko. Autoa gidatzearena da horren adibide egokia: bolantea, abiadurak, balazta edo frenoak, enbragea eta azeleragailua dira gidatzeko eskema orokorra osatzen duten banakako eskemetako batzuk.

Honaino esandakoa bi ideia hauetara bil daiteke: (1) eskemak garatu egiten dira, (2) garapen horretan asimilazioak eta akomodazioak zerikusi handia dute. Baina, zer ikusi behar dute hor garapen-mailek? Piageten arabera, maila batetik hurrengora pasatzeak esan nahi du eskema-kategoria berri bat azaldu dela; maila bakoitzak, hortaz, eskema-kategoria jakin bat du ezaugarri. Maila sensoriomotorrak, adibidez, eskema motorrak ditu ezaugarri, txintxirrinari eragitea eta lauoinka ibiltzea bezalako eskemak, eta maila horretan ez dago bestelako eskemarik. Eragiketa aurreko mailan, eskema motorrez gainera, haurrak baditu bestelako eskema batzuk ere, motor hutsak ez direnak: gogo-irudiak erabiltzea edo manipulatzeko eskemak, hain zuzen ere. Eragiketa konkretuen aldiaren ezaugarri bereizgarria buruko ekintza segida bati jarraitzeko aukera ematen duten eskema berri batzuk dira; konputagailuak programa bati jarraitzen dion bezalatsu, haurra orain gaitua dago buruan gertatzen diren ekintzei jarraitzeko eta problemak era logikoan eta

printzipio batzuen arabera askatzeko. Eragiketa formalen maila eragiketa konkretuenetik honetan bereizten da: orain problemek ez dutela euskarri fisikorik behar.

Eskema-kategoriei dagokienez, galdera hau egin daiteke: kategoria berria nola sortzen da, edo nola ateratzen da lehengo kategoriatik? Hori nola gertatzen den azaltzeko, Piagetek *orekatze* kontzeptua erabiltzen du. Oreakatzea da berarentzat kategoria batetik bestera igarotzea bideratzen duen faktore nagusietako bat. Zer da, ordea, orekatzea? Adibide batez baliatuko gara kontzeptu horri Piagetek ematen dion esanahia ulertzeko: nola iristen da haurra kantitatearen kontserbazioa ulertzera? Kontserbazioaren ideiaz jabetu ez den haurrak, oraindik eragiketa aurreko mailan dagoenak, eskema hau dauka: «zenbat eta gorago, orduan eta gehiago». Hau da, zenbat eta gorago dagoen zerbaiten maila, orduan eta gehiago dago gauza horretatik. Ikusi du ura botatzen baso zabaletik baso estura; uraren maila igo egin dela ere ikusi du, eta bere eskemaren arabera beretzen ditu datuak, hau da, asimilatu egiten ditu eta ondorio hau ateratzen du: baso estuan ur gehiago dago. Haurrak, hortaz, ezin ditu batera jarri, edo koordinatu, goratasuna eta zabalera. Baina haurraren jardunak aurrera segituko du eta luzaro gabe hor atera duen ondorioaren kontrakoa adierazten duten beste datu batzuekin aurkituko da. Esate baterako, gogoratuko du bigarren basoko ura bestean zegoen berbera dela, dudak eta zalantzak sortuko zaizkio eta lehengo eskema aldatzen hasiko da eta datu berrietara egokitzen, den munduari egokiago erantzuten dion oreka berri bat iritsi arte: «altuagoa dena estuagoa denez, bihoa batez beste». Beraz, oreka lortu nahiaren eragin-indarrak bultzaturik igotzen da haurra maila kognitibo garaia eta malguagoetara.

Ezinezkoa da orrialde gutxi batzuetan laburtzea Piagetek, hirurogei bat urteko lanaren fruitu, psikologiarri eta bereziki garapenaren psikologiarri utzitako uzta



aberats eta joria. Lan enpirikoa dago hor, batetik, eta teorialari gisa egindako lana, bestetik. Piageten teoriari dagokionez, zera dio Meadowsek (1993): hori erabat eta alde guztietatik azaltzeko, liburu-mordo handia beharko omen litzatekeela. Nolanahi den ere, hemen esandakoek Piageten lana eta teoria hobeki ulertzeko eta Piageten idazlanak irakurtzeko gogoia piztuko balio irakurleari, ez litzateke gutxi izango. Izan ere, Piaget jaio zenetik ehun urte baino gehiago eta hil zenetik ia hogeita sei igaro direnean, merezi ote du Piaget irakurtzen segitzea?

Piaget kritikatu izan da eta ez arrazoirik gabe. Izan ere, haren teorian eta ikerketetan bada alderdi ahul eta kritikagarririk. Adibidez, nekez onartuko dira orain bere hartan Piagetek haurraren garapenean bereizi zituen aldi edo maila orokor eta zabal horiek. Ezagutza arlo bakoitzaren garapena Piagetek uste zuen baino espezifikoa dela ikusi da. Bestalde, azken hamarkadetako ikerketek argi eta garbi erakutsi dute gutxienez zenbait arlotan trebetasun kognitibo batzuk Piagetek uste baino askoz lehenago agertzen direla. Haur jaioberriek berek ere badiutuzte munduaren alderdi batzuen irudikapen abstraktu eta aberatsak. Gainera, gizarte-harremanei eta hizkuntzari ez zien garapen kognitiboan duten garrantzia aitortu. Azkenik, egokitzearen oinarritzko mekanismoak asimilazioa eta akomodazioa direlako ideia lainotsu eta ilunegitza daukate gaur egun. Hala ere, kritiko guztiek diote, ia salbuespenik gabe, Piaget irakurri behar dela. Margaret Bodenek (1982), adibidez, Piageten obran aurkitzen dituen hutsak batere gupidarik gabe salatzen baditu ere, psikologia nahiz epistemologiako ikerkuntzan interesa duenari aholku hau ematen dio: «Irakur ezazu Piaget. Gogoan izan gehienetan iluna dela eta askotan huts egiten duela... Baina, bai, irakur ezazu Piaget» (197. or.). Margaret Donaldson eta Annette Karmiloff-Smithek ere antzeko gauzak idatzi dituzte. Horrela, Karmiloff-Smithek (1994) dio ezen oraindik ere garapen kognitiboaren

teoriek Piageten epistemologiatik ateratzen dituztela beren ideiak. Beilinek (1992), bestalde, alderdi hauek azpimarratzen ditu Piageten obran: haurren baliabide kognitiboei buruz ordura arte zegoen ideia aldaraztea, erakustea epistemologiako betiko galderei erantzuteko hobe zela enpirikoki frogatzea gogamenak nola lan egiten duen eta nola garatzen den analisi hutsean oinarritzea baino, ezagutza eraikitze prozesuan gogamena aktiboa delako ikuspegi indartsua, metodologiaren aldetik metodo klinikoa deritzana errespetagarri egitea, utzi duen ikerketa multzo ikaragarria. Nolanahi ere, Montangero eta Maurice-Naville (1994) dira, segur aski, Piaget zergatik ezagutu eta irakurri behar den ongien zehaztu dutenak. Honako lau arrazoi hauek ematen dituzte Piageten teoria ezagutzeko:

- Teoriaren emankortasuna. Piaget irakurtzeak gogoeta eragiten du eta ikerketarako ideiak pizten ditu. Arrazoi hori bere egiten du Brainerdek (1996) ere. Honen arabera, Piageten obrak ez du parekorik esperimendu teknika burudunen iturri gisa.
- Piaget beti aitzindari izatea. Aitzindari ageri da XX. mendearen lehen erdian hartu zituen ikuspegi batzuetan, ikuspegi mentalistan adibidez; aitzindari ageri da erabili zituen kontzeptu askotan ere, «eskema» edo «frame» kontzeptuetan, esaterako. Hor dago, bestalde, erregulazio kontzeptua, Piagetek 1940ko hamarkadan dagoeneko erabilia eta berebiziko garrantzia hartu duena geroztik zibernetikaren eta sistema auto-antolatzaileen estudioaren eraginez.
- Adimenaren garapenaren teoriarik osoena eratu izana.
- Utzi digun datu esperimental pila haurraren eza-gueren garapenari buruz.

Arrazoi horiengatik guztiengatik eta, dudarik gabe, beste batzuegatik, merezi du Piaget irakurtzea. Lan hau gorago aipatu ditudan Boden en hitzak errepikatuz bukatuko dut: «Irakur ezazu Piaget... Bai, irakur ezazu».

## Erreferentziak

- BEILIN, H. (1992). Piaget's enduring contribution to developmental psychology. *Developmental Psychology*, 28, 191-204.
- BODEN, M. (1982). *Piaget*. Madrid: Cátedra.
- BRAINERD, C. J. (1996). Piaget: «A centennial celebration». *Psychological Science*, 7, 191-195.
- BRYANT, P. (1982). «Editorial: Piaget's questions». *British Journal of Psychology*, 73, 157-161.
- DUCRET, J. J. (1990). *Jean Piaget: Biographie et parcours intellectuel*. Neuchâtel et Paris: Delachaux et Niestlé.
- GUITTON, J. (2000/1951). *El trabajo intelectual*. Madrid: Rialp.
- HUIZI, P. (1980). Piaget. *Jakin*, 16, 68-70.
- HUIZI, P. (1997). Hitzaurrea. In J. Piaget, *Adimenaren sorrera haurrarenengan*. Bilbo: Klasikoak.
- KARMILOFF-SMITH, A. (1994). *Más allá de la modularidad*. Madrid: Alianza.
- MEADOWS, S. (1993). *The child as thinker*. London: Routledge.
- MONTANGERO, J. (1985). *Genetic epistemology: Yesterday and today*. New York: CUNY.
- MONTANGERO, J. eta Maurice-Naville, D. (1994). *Piaget ou l'intelligence en marche*. Liège: Mardaga.
- MUNARI, A. (1994). Jean Piaget et l'éducation. *Perspectives: revue trimestrielle d'éducation comparée*, XXIV, 321-337.
- PIAGET, J. (1952). «Autobiography». In E. G. Boring, H. Werner, H. S. Langfeld, eta R. M. Yerkes (Argit.), *A history of psychology in autobiography* (IV. bol., 237-256 or.). Worcester, MA: Clark University Press.

# 5

## PIAGETEN EPISTEMOLOGIA GENETIKOA

*Mikel Haranburu*

EHUko irakaslea eta ILCLIko kidea

### Sarrera

Hogeita bost urterekin hasi zen Piaget psikologiaren eta biologiaren arteko lotura aztertzen. Ordurako, biologiari buruzko ikasketa eta ikerketa batzuk eginak zituen. Hain zuzen ere, 22 urterekin lortu zuen Zientzietako Doktoregoa. Berehala hasi zen biologiaren munduan aurkituriko moldaera eta antolamendurako joerak ikaskuntzaren eta pentsamenduaren munduan ere nabaritzen. Pariseko Sorbonnen psikopatologia, epistemologia eta zientziaren filosofia ikasi ondoren, bere bizitzaren zati handi bat psikologia genetikoari eta filosofiari eman zion, besteak beste, haurraren adimenak nola funtzionatzen zuen aztertzeari. Adimenaren genesiaren azterketaren bidez hurbildu zen beraz Piaget epistemologiara. Hau da, ez zen zientzien historiaren genesitik abiatu, beste epistemologo batzuek egin zuten bezala; ontogenesiari aztertzeari ekin zion, haur txikien behaketaren bidez. Horretarako, test estandarizatuak erabili ordez, jardunean ari ziren haurrak aztertzen zituen. Hain zuzen ere, adimenaren azterketa horietako asko bere seme-alaben behaketan oinarritu ziren. Haurraren erantzun okerrak aztertuz, haren pentsamendua helduarenetik kua-litatiboki ezberdina zela ikusi zuen. 30 urte pasa behar

izan zituen Piagetek haurraren adimena aztertzen, bide horretan egindako aurkikuntzak epistemologiara aplikatzen hasi aurretik. Horrela, 1920tik 1950 urte ingurura arte haurraren adimenaren eboluzioa aztertzen jardun zuen, egindako aurkikuntzak problema epistemologikoei aplikatzeko asmoz.

1940 inguruan, Einsteinek Piageti iradoki zion, interesgarri izan zitekeela, denbora, abiadura eta mugimendua haurrak nola ulertzen zituen aztertzea. Eta lan horri ekin zion. Bere ikerketak egiten ari zela, haurraren nozio zientifikoaren bilakaeraren eta pentsamendu zientifikoaren historiaren artean zenbait paralelismo aurkitu zituen: haurraren pentsamendu indibidualaren bilakaerak pentsamendu zientifikoaren historiaren ibilbidea jarraitzen duela ikusi zuen. 1950ean, hogeita hamar urte lehenago hasitako proiektua burutuz, *Introduction à l'épistémologie génétique* idazlan zabala argitaratu zuen hiru aletan. 1952tik 1963ra bitartean, psikologia genetikoa irakatsi zuen Sorbonneko Unibertsitatean. 1956an Rockefeller Fundazioaren sostengua lortu zuen, Geneva-ko Epistemologia Genetikoko Zentroa sortzeko. 1971 urtean hartu zuen erretiroa, baina ikerketa psikogenetikoak bultzatzen jarraitzen zuen.

## **Epistemologia genetikoa**

Epistemologia genetikoa ezagutzaren sorrera, ezagutza mota ezberdinen sustraiak eta ezagutzaren garapena aztertzen ditu. Piaget baino lehenagoko epistemologiek bazuten postulatu komun bat, subjektua, objektua eta bien arteko pertzepzio eta kontzeptuak garbi bereizten zituena. Baina, analisi psikogenetikoak berehala erakutsi zion Piageti (1979), ezagutzaren iturburua ez dagoela bere buruaz kontziente den subjektu batean edo jadanik eratua dagoen objektu batean, baizik, bien arteko er-

dibidean gertatzen diren elkarreraginetan duela sustraia ezagutzak. Ezagutzaren jatorri horretan subjektua eta objektua oraindik bereizi gabe daude eta ez dago forma berezien arteko elkartrukerik. Ez dago oraindik subjektu eta objektu bereizirik eta elkartrukerako tresna aldagai-zik. Elkartrukerako lehen tresna ez da pertzepzioa, ekintza baizik. Horrela, sentimen-mugimenezko ekintzak errepresentazioa baino lehenagokoak dira.

**1. Sentimen-mugimenezko adimenaren** garaietan (0-2 urte), ingurunean dagitzan ekintzen bidez ulertzen du haurrak mundua. Haurrak ez du bere burua ezagutzen, ez du barneko munduaren eta kanpoko munduaren arteko mugaren kontzientziarik. Objektu iraunkorrik gabeko munduan bizi da haurra. Subjekturik eta objekturik ez dagoen mundu batean, geroago subjektu edo objektu izango direnen arteko lotura bakarra ekintza da. Haurraren ekintzak haren gorputzaren inguru zentratzen dira, eta subjekturik gabeko nartzisismo bat ekartzen dio horrek haurrari. Urte eta erdi eta bi urte artean, bere gorputza beste objektuen arteko bat gehiago bezala kontsideratzen hasten da. Bere ekintzak bere gorputzarekiko deszentratu egiten dira. Ekintzen koordinazioa bere gain hartzen du subjektuak eta objektuari bere kokalekua ematen zaio. Horrela, objektuak ere, subjektuak bezala, bere iraupen espazio-tenporala lortzen du. Subjektua eta objektua bereizten dira eta objektuen arteko bat gehiago bihurtzen da subjektua, unibertso espazio-tenporal batean. Subjektuaren ekintzen koordinazioa, errealtateko koordinazio espazio-tenporalari eta kausalari lotua gertatzen da eta subjektuaren eta objektuaren bereizkuntzaren sustraian dago.

Sentimen-mugimenezko estadioan zentzuetatik eta gorputzaren mugimenduetatik jasotako informazioan oinarritzen da garapena. Aro honetan oraindik ez dago funtzio sinbolikorik, eta errepresentazioei lotutako pen-

tsamendu eta afektibitatek ere ez. Aurrean ez dituen pertsonak eta objektuak ezin ditu gogoratu. Aro honetan burutzen dituen ekintzak, pertzepzioan eta mugimenduetan bakarrik oinarritzen dira.

Haurrarentzat, hasieran ez dago objektuak eta gertaerak bilduko dituen espazio bakarrik eta denborazko ordenurik. Norberaren gorputzean zentratutako espazio heterogeneoen multzo bat eta koordinazio gabeko denbora inpresio sail bat besterik ez dago. Lekutze jokaeraren eta objektu iraunkorraren bilaketaren bidez, oinarritzeko egitura batean antolatzen dira desplazamenduak. Era berean, antolamendu espazio-temporal eta objektu iraunkorraren eraikuntza gertatzen den heinean, kausalitate objektibo bat eraikitzen da. Begien aurretik ezkutatu arren, objektuak izaten jarraitzen duela konturatzen hasten da haurra. Mugimendu erreflexuak egitetik, helburu baterantz zuzenduriko jarduerak egitera iragaten da.

Piagetentzat, alderdi kognitiboaren garapen honek badu bere korrelato afektiboa: alderdi kognitiboa, norberaren ekintzan zentratutako mundu batetik, unibertso objektibo eta deszentratu batetara iragaten den bezala, alderdi afektiboa ere, nia eta inguru fisiko nahiz soziala bereizi gabe egotetik niaren eta besteen bereizkuntza egoerara pasatzen da. Piagetentzat, deszentrazio afektiboa eta deszentrazio kognitiboa elkarrekin gertatzen dira.

**2. Eragiketa aurreko estadioan (2-6 urte), errepresentazioak erabiliko ditu haurrak ekintzen ordez, arazoak ebazteko. Ekintzak aurrez planifikatzeko edo informazioa gordetzeko ez du balio sentimen-mugimenezko adimenak. Horretarako, gogamenaren espazioko ekintzak edo eragiketak behar dira, hau da, ekintzak barneratzetik hasi behar da. Sentimen-mugimenezko etapan ekintza eskemak edo ekintzari loturiko eskemak zerabiltzan haurrak; eskema horiek ez ziren oraindik kontzeptuak eta ez zuten balio iragana oroitzeko edo etorkizuna aurreikuste-**

ko. Eskemak ez ziren pentsamenduaren objektu, ekintzen barne-egitura bakarrik ematen baitzuten. Kontzeptua, berriz, errepresentazioak eta hizkuntzak erabiltzen dute. Horretarako, sinboloak eta irudi mentalak behar dira. Objektuei buruz sinbolikoki pentsatzeko gaitasuna lortzen du haurrak aro honetan, nahiz eta pentsamendu hori oraindik zentzu bakarrekoa izan. Ez da oraindik pentsamendu itzulkorra. Horregatik, haurrari zail egiten zaio oraindik materiaren kontserbazioaren nozioa eskatzen duten ariketak ebaztea.

Piagetentzat, ekintzen bidez objektuak eta errealitatea antzaldatetik dator adimena. Pertzepzioa, berriz, sentimen-mugimenezko jardueraren kasu partikular bat bezala hartzen du. Pertzepzioa, errealitatearen ezagutzaren alderdi figuratiboaren menpe dago. Ekin-tzak, berriz, errealitatea antzaldatu egiten du. Egitura pertzeptiboak ez-itzulkorrak dira; eragiketak, berriz, itzulkorrak dira. Pertzepzio soilak, ekintzarik gabe, ezin eraiki dezake sentimen-mugimenezko adimena. Piagetentzat, adimen nozioak ez dira pertzepzioetatik abstrakzio eta generalizazio prozesu soilez lortuak. Adibidez, nozio logiko-matematikoak ez dira hautemandako objektuetatik abstraditutako eragiketak, objektuen gain egindako ekintzetatik abstraditutakoak baizik.

Sentimen-mugimenezko ekintzek subjektuaren eta objektuaren artean momentuko lotura eta momentuko bereizkuntza egiten dute. Ekintza kontzeptualizatuan, berriz, subjektua eta objektua beren bereizgarri iraunkorrek pentsatzen dira. Eskema bidezko asimilazioak objektuen propietateak kontuan hartzen ditu, baina hautemate unean bakarrik eta subjektuaren ekintzekin lotuta. Objektuaren kualitateak ez ditu subjektuaren ekintzetatik garbi bereizten. Asimilazio kontzeptualak, berriz, aurrean dauden eta aurrean ez dauden objektuak tratatzen ditu eta oraingo egoeraren morrontzatik askatzen du subjektua, sailkatzeko eta serietan edo korrespondentzian jartzeko



aukera ematen baitio. Sentimen-mugimenezko aroaren amaieran, hau da, bigarren urtearen amaiera aldera agertzen du haurrak, aurrean ez dauden objektuak eta gertaerak adierazle bereizi batez irudikatzeko gaitasuna. Imitazio diferituak, hau da, eredia ikusi eta gerora egiten den imitazioak markatzen du errepresentazio horren hasiera. Imitazio diferitu honetan errepresentazioa adierazle bereizi bihurtzen da, sentimen-mugimenezko eskakizunetatik aske. Imitazioan kanpoko ereductara egokitzen da haurra. Baina, helduen mundura egokitu behar duen haurrak baditu bere premia afektibo eta intelektualak, eta premia horiek errealitatea norberari asimilatzea eskatzen diote. Haurrak, jolas sinbolikoaren bidez, errealitatearen eskakizun eta derrigortzei ihes egiten die. Horrela, imitazio egokitzearen eta jolas sinbolikoko asimilazioaren arteko oreka gordetzen du adimenak.

Hizkuntzaren agerpenari esker, iraganeko ekintzak gogora ditzake haurrak, eta etorkizunekoak aitzinatu ere bai, berbazko errepresentazioaren bidez. Sentimen-mugimenezko mailan ez zegoen objektu afektiborik, harreman zuzenetik at; eragiketa-aurreko etapan berriz, gogamenezko irudiei, oroimenari, joko sinbolikoari eta hizkuntzari esker, desagertuta gero ere errepresentazioan presente irauten du objektuak.

5-6 urterekin kontzeptuen edo ekintza kontzeptualizatuen arteko deszentrazioa gertatzen da. Angelu zuzenean hari bat jartzen badugu, ertz batetik hariari tiratuta, bi zatietako bat luzatu eta bestea laburtu egiten da. Alde bat beste aldearen funtzioan aldatzen da. Bi aldeen aldaketak objektuen harremanen bereizgarriak dira eta funtzioaren egitura osatzen dute. Baina, alde bateko edo besteko hariaren luzapena ez da itzulkorra oraindik. Haurrak pentsatzen du alde bat gehiago luzatzen dela bestea laburtzen dena baino. Hariaren luzera osoaren iraunkortasuna ez du onartuko. Adibidez, ontzi batetik bestera ura pasatzen bada, lehen ontzi batean zegoena eta orain bes-

tean dagoena ur bera dela onartuko du, baina kantitatea aldatu egin dela pentsatuko du, forma edo maila aldatu delako. Edozein modutan, objektuen harremanen ezaugarri diren bi terminoen arteko aldaketan berri ematen duen funtzioaren egitura arrazoiaren ezaugarrietako bat da.

Aro honetako haurraren pentsamendua intuitiboa da eta sinkretismoak bereizten du haren ulerkuntza prozesua. Arrazoitzeko modu bezala, berriz, metodo transduktiboa darabil. Alde batetik, haurraren pentsamendua sinkretikoa da. Esaldi oso baten esanahia jaso behar duenean, esaldi horretan hitz ezezagunak baldin badaude, albora utziko ditu hitz horiek eta hitz ezagunetatik abiatuz, ideia orokor bat aterako du. Ondoren, esanahi orokorrari begira interpretatuko ditu ulertzen ez dituen izenak. Beste aldetik, haurrak lau urtetik zazpi urtera bitartean darabilen metodo transduktiboaren arabera, partikularretik partikularrera, gertakari batetik beste gertakari batera doa pentsamendua, benetako arrazonamendua logikorik gabe. Pentsamendu inductiboa partikularretik orokorrera doa; deductiboa, orokorretik partikularrera doa; transduktiboan, berriz, bi gertaera partikularren fusioa eta iuxtaposizioa dago, bata bestea esplikatzen du.

3. **Eragiketa konkretuen garaiak** (6-12 urte), kontserbazioan, sailkapenean eta harremanetan oinarrituriko arrazonamendua darabil haurrak. Orain arteko ekintza barneratuek eta kontzeptualizatuek eragiketean maila lortzen dute; eragiketak transformazio itzulkorrek dira, aldagai batzuek aldatu eta besteak aldagaitz mantentzen dituztenak. Eragiketetarako beharrezko da, ekintzaren planoan eskuratua zegoena errepresentazioaren planoan berreraikitzea. Sentimen-mugimenezko aroan, norberaren gorputzarekiko eta ekintzekiko deszentrazio bat gertatu da: norberaren gorputza eta ekintzak harreman objektiboetan jarri dira unibertsoko objektu eta ekintzekiko. Deszentrazio hori ekintzaren planoan zaila izan

bada, zailagoa da oraindik errepresentazioaren mailan. Adibidez, haurrari neurri ezberdineko 10 makila seriatzeko agintzen zaionean, makilak binaka kokatuko ditu eragiketa aurreko estadioaren hasieran baldin badago. Eragiketa konkretuen estadioan dagoenak, berriz, lehenik txikiena aukeratzen du, gero gelditzen direnetatik txikiena eta abar. > eta < erlazioak erabiltzen ditu, baina ez txandaka, aldi berean baizik.

Eragiketak transformazio itzulkorak dira. Transformazio itzulkor batean ez da dena batera aldatzen, bestela ezingo bailitzateke itzulketa izan. Eragiketazko transformazioak elementu aldagaitz baten inguruan, kontserbatzen den nozio edo eskema baten inguruan gertatzen dira. Kantitatearen kontserbazioa da eragiketa konkretu oinarritzkoenetakoa. Kontserbazio ariketak ebazteko, identitatearen, konpentsazioaren eta itzulkortasunaren nozioak eskuratuta eduki behar dira. Sustantzia bati ezer kentzen edo eransten ez zaion bitartean, material bera izaten jarraituko duela esaten du identitatearen nozioak. Zentzu batean gertatzen den itxura-aldaketa, beste zentzu batean gertatzen den aldaketa baten bidez konpentsa litekeela esaten du konpentsazioaren nozioak. Aldaketa desegin daitekeela esaten du itzulkortasunaren nozioak. Bestalde, aldiko bereizgarri bakar batean oinarrituz objektuak sailkatzeko eta irizpide baten arabera objektuen segidak antolatzeko gaitasuna ere eskuratzen du haurrak. Horrela, kontserbazio, sailkapen eta seriatze eragiketen bidez, pentsatzeko sistema logiko bat eskuratua du haurrak.

Baina, sistema hori errealtate fisikoari eta objektu errealei oso loturik dago oraindik. Eragiketa konkretuek zuzenki ukitzen dituzte objektuak, ez dira hitzeko hipotesien munduan mugitzen. Ekintzaren eta logikazko egitura zabalagoen arteko iraganbide modukoak dira. Multzo egituretan koordinatzen dira, baina egitura txiroak osatzen dituzte oraindik: sailkapenak, seria-

tzeak, korrespondentziak, sarrera bikoitzeko taulak etab. Konkretua edo hautemangarria denaren menpe dago pentsamendu konkretua, datuen barne manipulazioak edo benetako eragiketak ere inplikatzan dituen arren. Pentsamendu induktiboa erabiltzen du batez ere, hau da, objektu konkretuetatik induzitzen ditu printzipioak eta harremanak.

Piagetentzat, alderdi afektiboa, soziala eta ezagutza alderdia bereiztezinak dira. Errepresentazioaren unibertsoa ez dago objektuz bakarrik osatua, sentimen-mugimenezko unibertsoa bezala, subjektuz ere bai baizik. Piageten arabera, eragiketarako beharrezko diren eraikuntza eta deszentrazioek ez dute unibertso fisikoa bakarrik ukitzen, unibertso soziala ere bai baizik. Eraikuntza eta deszentrazio kognitiboa, eraikuntza eta deszentrazio afektibo eta sozialek bereiztezin moduan agertzen da. Sentimen-mugimenezko aroan, harreman zuzena zegoen bitartean bakarrik gordetzen zen objektu afektiboa; objektua desagertzean, ezin gogora zitekeen. Orain, berriz, irudi mentalari, jolas sinbolikoari, oroimenari eta hizkuntzari esker, objektu afektiboa beti presente dago eta beti ari da ekiten, baita fisikoki presente ez dagoenean ere. Judizio moralei dagokienez ere, haurra hasieran heteronoma da. Agindua ematen duenaren presentzia beharrezkoa da, legeak bere indarra gorde dezan. Agindua eman duena aurrean ez badago, legeak indarrak ez du. Gerora ordea, aitaren edo autoritate irudiekin identifikatu egiten da haurra, eta boterea iraunkor bihurtzen da. Horrela, haurra, nolabaiteko autonomiara heltzen da. Piageten arabera, ezagutzako erreakzioak, erreakzio ludikoak, afektiboak, sozialak eta moralak bilduko dituen batasun funtzional bat gertatuko da orain. Hasieran familiara mugatzen zen afektibitatea, giza talde zabalagora hedatuko da orain. Sentimendu moralek elkarrekiko begirunearen zentzuan eboluzionatzen dute. Sentimendu sozialei dagokienez, hasieran koordinaziorik

eta bereizkuntzarik ez zen nabari norberaren eta besteen ikuspegien artean; orain, ikuspegien koordinazioa eta lankidetzaz gertatzen dira.

4. **Eragiketa formalen garaia:** 11-12 urtetatik 14-15 urtetara bitartean, konkretutik askatzen doa subjektua, eta eraldakuntza posibleen multzo batean kokatzen du errealtatea. Adin honetan pentsamenduaren eraldakuntza gertatzen da: eragiketa formalak hipotesiekin egiten dira, eta ez objektuekin bakarrik. Hipotesiak proposizioei buruzkoak dira. Hipotesietatik ondorioetara doan eragiketa deduktiboa eragiketei buruz egindako eragiketa da, hau da, bigarren mailako eragiketa bat. Hipotesien egiaztapen konkretuen gaintik, hipotesien elaborazioari eta arrazonomenduari ematen zaio garrantzia. Eragiketei buruzko eragiketak egiteko gaitasun hau dela eta, erreala eta konkretua denetik askatu egiten da subjektua, eta transformazio posibleen multzoan kokatzen du errealtatea. Forma eta edukia bereizi egiten dira eta subjektua gai bihurtzen da hipotesi soil diren proposizioei buruz zuzenki arrazoitzeko. Subjektuak ondorioak atera ditzake posible bakarrik diren egietatik: pentsamendu hipotetiko-deduktiboa eta pentsamendu formala hasten dira. Forma edukitik bereizteko gaitasun hau da nerabearen pentsamendua haurrarenetik bereizten duena. Haurra eduki konkretuan «zentratzen» den artean, nerabeak bere pentsamendua «deszentra» dezake, edukia eta forma bereiziz. Edukitik askatuta aztertzen du forma nerabeak; horregatik deitzen du Piagetek eragiketa «formalen» pentsamendua aro honetako pentsamendua. Pentsamendua askatu egiten da objektuetatik; harremanak eta sailkapenak askatu egiten dira lotura konkretu eta intuitiboetatik. Pentsamendu formalean, posible dena erreala denaren menpe dago. Gauzatze edo hezurmamitze posibleen arteko bat bezala ikusten da erreala. «Izan litekeenaren» osotasunaren barnean, «den» zati bezala agertzen da.

Eragiketa konkretuen garaiko ikaslea, mundu konkretu eta behagarriak mugatzen zuen. Eragiketa formalen aroko ikasleak, berriz, hipotesi eta ahalbide ezberdinak kontuan hartu eta sistematikoki aztertuko ditu. Ahalbide guztien konbinaketa lortzeko, faktoreak bereizi egin behar dira, eta aldiko faktore bat aldatzen da, besteak konstante mantenduz. Pentsamendu konkretuan bereziak mantentzen dira itzulkortasunaren bi formak (inbertsioa eta erreziprozitatea) eta identitate eta korrelazio eragiketak; pentsamendu formalean osotasun egituratu batean integratzen dira identitatea, inbertsioa, erreziprozitatea eta korrelazioa.

Pentsamendu formalaren egitura orokorraren ondoan, bereziagoak eta espezifikagoak diren *Eragiketa Eskema Formalak* (Inhelder-Piaget, 1955) kokatzen dira: problema multzo bati aplikatu dakizkiokeen eskemak dira. Pentsamendu Formalaren egitura orokorrak subjektuaren gaitasunari edo konpetentziari egiten bazion erreferentzia, egestura espezifikogo hauek (Eragiketa Eskema Formalak) subjektuaren jardura konkretutik hurbilago daude. Bitarteko maila batean kokatuak daude. Egitura orokorren eboluziotik datoz, baina problema konkretuen soluziobiderako erabil daitezke. Subjektuaren konpetentziaren eta jardura edo errendimenduaren arteko desfasearen arazoari irtenbide bat ematearren ikertu dira bitarteko eskema hauek: konbinazio eragiketak, proportzioak, bi erreferentzi sistemaren koordinazioa, oreka mekanikoaren nozioa, probabilitatea, korrelazioa.

## **Piageten teoriaren berrikusketa**

1. Piagetentzat, esparru guztietara berdina heltzen da garapena. Egitura global baten ideian oinarriturik, informazioa ez dela esparru berezietan prozesatzen eta gordetzen pentsatzen zuen. Izan ere, errepresentazio

egiturak orokorrak dira, eta haietan gertatzen diren aldaketek esparru guztietarako balio dute. Hala ere, badirudi, garapen orokor honek ezin ditzakeela beste gabe esplikatuz eskurapen berezi batzuk (Karmiloff-Smith, 1992). Hizkuntzaren eskurapenaren eremuan zentratuz, Piageten ikuspegitik, sentimen-mugimenezko adimenaren antolamendu orokorraren emaitzak izango lirateke sintaxia eta semantika. Sentimen-mugimenezko etaparen amaieran, errepresentazio sinbolikoetarako gai da haurra. Hizkuntzaren eskurapena ez da independenteki gertatzen den zerbait, sentimen-mugimenezko eskemak koordinatzean eta barneratzean, funtzio sinbolikoaren osotasunaren barnean gertatzen den zerbait baizik, imitazio diferituarekin, jolas sinbolikoekin eta irudi mentalekin batera. Ikuspegi piagetiarrarentzat, adibidez, hitzen ordenuaren eta sentimen-mugimenezko ekintzen ordenuaren artean erlazio zuzena dago; honela, ontzietan jolastea (batzuk besteetan sartuz), esaldien insertzioaren aitzindarizat jo izan da.

Hala ere, badirudi atzerapen kognitibo larri batek ez duela derrigorrez hizkuntzaren mailako atzerapenik ekartzen, Williamsen sindromean gertatzen denak agertzen duen moduan. Sindrome hau dutenek, ezagutza gaitasun orokorrak hondatuak dituzten arren, hizkuntzaren eta aurpegiaren ezagupenaren arloan arazorik ez dute. Horregatik, hizkuntzaren eskurapena, erabat modularki ez bada ere, eremu espezifikoko batean ematen den zerbait bezala agertzen da. Honela, lau egun bakarrik dituzten haurrak sentikorrek agertzen dira beren ama-hizkuntzaren bereizgarri batzuekiko (Mehler, Lambertz, Jusczyk eta Amiel-Tison, 1986); lau hilabeteko haurrak sentiberak dira esaldien arteko mugekiko (Jusczyk eta Bertonini, 1988). Esan dezakegu, hitzak ikasi behar dituen haurra ez dela behaketa solean oinarritzen, eta hitzen esanahi posiblei buruz haurrak planteatzen duen hipotesien eremua hasieratik hertsatua da.

Ikuspegi piagetiarretik begiratuta, goian ikusi dugun bezala, lehen hamabi hilabetetako haurrentzat, begiradapetik desagertzen den objektuak izateari utzi egiten dio. Sentimen-mugimenezko adimenaren oinarritzko emaitzetako bat izango da objektuaren iraunkortasuna. Sentimen-mugimenezko ekintzen eskemak barneratu arte ez dute haurrek objektuen bereizgarrien errepresentazio sinbolikorik garatzen. Baina, ingurune fisikoaren ulerkuntzarako ere, hizkuntza ingurunearen ulerkuntzarako bezala, badirudi haurrak badituela objektuen iraunkortasunari buruzko oinarritzko printzipio berezi batzuk. Objektuak eta beren mugimenduak irudikatzeko garaian lau printzipiok funtzionatzen dute haurraren (Spelke, 1988): loturaren, kohesioaren, zurruntasunaren eta distantziara ekin ezinaren printzipioek. Printzipio hauen arabera, lotura duten osotasunetan desplazatzen dira objektuak, lotura duten traiektorietan zehar; mugitzen ari diren bitartean ez dute elkar zeharkatzen edo formaz aldatzen, eta elkar ukitu ezean ez dute elkarreragiten. Pantaila baten atzean gordeirik dagoen makila zuzen inklinatu bati bi ertzak ikusten bazaizkio, eta makilaren bi ertzak batera mugitzen badira alde batera eta bestera, 4 hilabeteko haurrek bi ertzak objektu berari dagozkiola inferitzen dute. 7 hilabetetako haurrak hel daitezke inferentzi berera, baita geldi dauden objektuekin ere. Egin ahal izan diren hainbat ikerketan ondorioz ikusi ahal izan da, Piagetek hasieran suposatzen zuena baino objektuen munduari buruzko ezagutza goiztiarrago eta konplexuagoa dutela haurrek. Spelkeren (1991) arabera, grabitatearen eta inertiaren printzipio fisikoak ikasiak badira ere, objektuen pertzepzioa gidatzen duten lau printzipioak jaiotzetik espezifikatuak daude.

Lau hilabeteko haurrek ez dute grabitatearen printzipioaz ezer ezagutzen, ez baitute sorpresarik agertzen objektu bat airean gelditzen denean. Baina, sei hilabe-



tetako haurrek denbora esanguratsuki luzeagoz begiratzeko dituzte sostengu gunerik gabe airean gelditzen diren objektuak. Baillargéon, Spelke eta Wassermanen arabera (1986), objektuen existentzi iraunkorraren nolabaiteko ideia badute 3-4 hilabetetako haurrek, eta 7 hilabeteko haurrek badituzte beste ezagutza fisiko batzuek ere. 9 hilabetetako haurrak zergatik ez dira gai orduan pantaila baten atzean gordetako objektu bat bilatzeko? Spelke eta Baillargéonen ariketetan begiradaz baliatzea nahikoa dute haurrek. Ariketa piagetiarretan, ikusmen sisteman konputazioak egin ondoren, informazio hori mugimenezko sistemara itzuli behar dute, bilaketari ekiteko. Eta mugimenezko jokaera egoki bat gerta dadin, bekoki-aurreko garun-azalaren garapena beharrezkoa da.

Badirudi, beraz, haurrak ez duela modu kaotiko eta berezi gabean prozesatzen heltzen zaion informazioa, eta eremu espezifikoko aurredisposizio batzuk badituela.

2. Teoria piagetiarrek, «gaitasunaren edo konpetentziaren eredu» landu zuen, aktuazioarena baino areago. Horregatik, zaila gertatzen zaio ulertzea, estadio jakin bateko bereizgarriak dituzten ariketen ebazpena ez dela adin berean gertatzen subjektu berberengan. Esate baterako, materiaren kontserbazioaren nozioa 7 urterekin lortzen dela, pisuarena, 9-10 urterekin, eta bolumenarena, 11-12 urterekin lortzen dela nekez esplika zezakeen.

Aro formaleko abstrakzio erreflexiboarentzat, pentsamenduaren edukiek ez lukete garrantzirik eduki behar teorian. Baina, abstrakzio erreflexiboaren ondoan, abstrakzio enpiriko edo fisikoa ere mantendu egiten dira. Eta ezagutzen jatorri bikoitz honetatik sortzen dira desfaseak edo *decalageak*: abstrakzio fisiko eta erreflexiboaren erlazioetatik.

Teoria neopiagetiarrek *Operagailu Eraikitzaileen Teoria* (Pascual-Leone, 1969) asmatu zuen, desfaseak

esplikatzeko tresna bezala. Operagailu horiek eskemen, hots, gure ezagutza zabaldu eta gure jokaera determinatzeko erabiltzen ditugun informazio unitateen aktibatzaileak dira. Baina, esan dezagun, ditugun eskema guztiak ez ditugula beti erabiltzen. Egoerak aktibatzen dituenen bakarrik erabiltzen ditugu eskemak. Eskemen aktibatze horretan, berriz, eragin nabarmena dute ariketen alderdi figuratibo eta pertzeptiboek. Hori dela eta, sarritan aktibatzen dira arazoaren soluziobiderako egokiak ez diren eskemak. Problema baten soluziobidea aurkitzeko, zenbait eskema aldi berean aktibatu behar dira. Eskema horiek aktibatuak edukitzeko, garrantzitsua da espazio mentalak behar beste hedadura edukitzea.

Ikaskuntza logikoa eta edukien ikaskuntza bereizi behar dira. Ikaskuntza logikoa, esperientzia logiko-matematikotik sortua da, eta ez dagokie objektuen propietateei, objektuen gain egindako ekintzei baizik (abstrakzio erreflexiboa). Edukien ikaskuntza, esperientzia fisikotik dator, eta objektuen propietateak jasotzen ditu (abstrakzio sinplea). Desfase horizontalak gehiagotan gertatzen dira fenomeno fisikoei buruzko arrazonamenduetan, arrazonamendu logiko-matematiko soiletan baino. Natur gaiei buruzko pentsamenduan, adibidez, errazago gertatzen dira desfase edo decalage horizontalak. Pascual-Leonek (1969) zioen, operagailu eraikikorrek eragina badutela pertsonaren eragiketetarako gaitasuna aktuazio bihurtzeko garaian. Piagetentzat, berriz, ezagutza espezi-fikoen ikaskuntza ezagutza egitura orokorren berregituraketaren ondorena da. Ikaskuntza garapenera biltzen du. Ez dio behar besteko garrantzirik eman izan elkarketa bidezko ikaskuntzari.

Vygotskyrentzat, elkarketa bidezko ikaskuntzaren garapen independenterik ez dago, baina elkarketa bidezko ikaskuntza gabeko orekatzerik ere ez dago. Zentzu zabaleko ikaskuntza ez da elkarketa bidezko ikaskuntzen

batuketatik irteten, baina hauek lagun dezakete. Ikaskuntza gabeko garapenik ez dago, eta aurretiko garapenik gabeko ikaskuntzarik ere ez.

Pentsamendu Formalak multzoko egitura zuen Piagetentzat, eduki konkretuen gainetik zegoen egitura logiko bat. Curriculuma eratzeko garaian, diziplinaren ekarpenak bigarren mailakoak ziren beretzat, eta Pentsamendu Formala eduki guztiei berdintsuki aplikatzekiekeela pentsatzen zuen. Hasiera batean Piagetek pentsatzen zuen, 14-15 urtetarako finkatzen zela Pentsamendu Formala. Gerora, 15-20 urtetara atzeratu zuen adin hori. Ondorengo ikerketetan (Dulit: 1972; Carretero, 1986), adin horietan ere erdiek baino gehiagok ez dituztela ariketa formalak gainditzen ikusi zen. Horrela, Piaget eta bere lankideak konturatu ziren (Pascual-Leone, 1969), subjektuen kopuru handi bat ez zela Maila Formalera heltzen aktuazio mailan. Baina, ariketa formalak ebazteko subjektuek dituzten zailtasunak ez dira hainbeste gaitasunaren edo konpetentziaren arlokoak, jardueraren edo aktuazioaren arlokoak baizik. Zailtasun horiek, alde batetik, Estilo Kognitiboekin erlazionaturik daudela ikusi da. Baina, bestalde, beste hipotesi hau ere aurreratu da: eragiketa formalak, oso-osoan erabilibili, subjektu bakoitzaren espezializazio arloan bakarrik erabiltzen direla. Kontuan eduki behar da, subjektuaren prekontzeptuek edo aurretiko ideiek zaildu dezaketela ariketa baten ebazpena, prekontzeptu okerrak izanik, arazoaren ebazpena behaztopatzen dutelako. Piagetek berak ere esaten zuen, heldu gehienak gai direla pentsamendu logiko formalak erabiltzeko, baina arlo gutxi batzuetan bakarrik, beren espezialitateko edo intereseko arloetan, hain zuzen ere.

## Erreferentzia bibliografikoak

- BAILLARGÉON, R., SPELKE, E. eta WASSERMAN, S. (1986). Object permanence in five month old infants. *Cognition*, 20: 191-208.
- CARRETERO, M. (1986). El desarrollo cognitivo en la adolescencia y la juventud: Las operaciones formales. In M. Carretero, J. Palacios eta A. Marchesi (bild.), *Psicología Evolutiva 3. Adolescencia, madurez y senectud*. Madrid: Alianza.
- DULIT, E. (1972). Adolescent thinking à la Piaget: the formal stage. *Journal of Youth Adolescence*, 1, 281-301.
- JUSCZYK, P.W. eta BERTONINI, J. (1988). Viewing the development of speech perception as an innately guided learning process. *Language and Speech*, 31: 217-238.
- KARMILOFF-SMITH, A. (1992). *Beyond Modularity. A Developmental Perspective on Cognitive Science*. Massachusetts Institute of Technology. (Gaztelaniazko itzulpena: *Más allá de la modularidad*. Madrid: Alianza Editorial. 1994).
- MEHLER, J., LAMBERTZ, G., JUSCZYK, P. eta AMIEL-TISON. (1986). Discrimination de la langue maternelle par le nouveau-né. *Comptes Rendues de l'Academie des Sciences*, 303, Série 111: 637-640.
- PASCUAL-LEONE, J. (1969). *Cognitive development and cognitive style: A general Psychological integration*. Doktorego Tesia. Genevako Unibertsitatea.
- PIAGET, J. (1950). *Introduction à l'épistémologie génétique*. Paris: Presses Universitaires de France. (1. alea: *La pensée mathématique*. 2. alea: *La pensée physique*. 3. alea: *La pensée biologique, la pensée psychologique et la pensée sociologique*).
- PIAGET, J. (1979). *L'Épistémologie Génétique*. Paris: Presses Universitaires de France.
- SPELKE, E.S. (1988). Where perceiving ends and thinking begins: The apprehension of objects in infancy. In A. Yonas (arg.), *Perceptual Development in Infancy*. Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum.
- SPELKE, E.S. (1991). Physical knowledge in infancy: Reflections on Piaget's theory. In S. Carey eta R. Gelman (arg.), *Epigenesis of the Mind: Essays in Biology and Knowledge*. Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum.



# 6

## PIAGET ETA HIZKUNTZA

*Feli Etxeberria*

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

### Sarrera

Azken hamarkada hauetan aurrerapen handiak lortu diren arren hizkuntzaren jabetze, ikaste eta irakaste alorrean, eta halaber haur eta helduek hizkuntza erabiltzeko estrategien azterketan, oraindik bide luzea gelditzen da egiteko. Batetik, joera desberdinetako eta garrantzi gutxiago edo gehiagoko teoria linguistikoak daude, alabaina horietarik bat ere ez daiteke bera bakarrik oinarri gisa har hizkuntzaz jabetzearen teoria baterako. Bestetik, psikologiaren ikuspuntutik hizkuntzari dagozkion hainbat arazo argitu gabe gelditzen dira, esaterako pentsamendua eta hizkuntzaren arteko harremanei dagokiena. Halatan bada, ez da harrizkoa ospetsuek garaturiko teoria eta ikuspuntuek piztu duten interesa, oinarri teorikoak sortuz, ikerlanari gogotik heltzeko; nola psikologian eta pedagogian, hala beste zientzietako alor desberdinetan.

Hori horrela, pozgarria da, benetan, garaturiko azterlan-ikuspuntuaren ardatz orientatzailea berriro hartu ahal izatea eta zalantzan jarritako gai desberdinen azalpenean aurrerabidea egitea. Horien artean aipatzekoa da hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko eztabaida. Azalpen honen helburua Piaget zenaren figura gogoratzea da;

hots, hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko erlazioari buruz planteatu zuen alorrean, bereziki.

## **Pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa haurraren**

Psikolinguistikan eta psikologia kognitiboan historia luzea duen topikoetako bat pentsamendua eta hizkuntzaren arteko erlazioa da, zalantzarik gabe.

Psikologiaren barne ikuspuntu desberdinetatik heldu zaio gai honen azterketari. Piaget bezalako teoriko batzuek hizkuntzak pentsamenduarekiko duen menpekotasuna defendatzen dute; beste batzuek, berriz, Humboldt, Sapir eta Whorfek esaterako, pentsamenduak hizkuntzarekiko duen menpekotasuna defendatu dute. Horientzat hizkuntza ideien elementu eratzailea da berez, eta gizabanakoaren adimenaren jarduerarako gida. Pentsamenduaren gaineko gaitasun egituratzailea ematen diote hizkuntzari.

Alabaina, Chomskyren teorian oinarrituriko psikolinguistikarentzat, hizkuntzaz jabetzea, funtsean, faktore guztiz psikolinguistikoen arabera moldatzen da. Ikuspegi honetan, garapen linguistikoarekin zerikusirik ez duen garapen kognitiboaren garapena aitortzen da, edota linguistikoaren menpe jartzen da kognitiboa. Hizkuntzaz jabetzearen azalpena subjektuaren ekipamendu biologikoan zentratu da, hizkuntzaren espezifikotasunaren hipotesia defendatuz. Espezifikotasun horrek, eta McNeillen (1970) arabera, faktore kognitibo afektiboen eta sozialen menpe zorrozki ez dauden gaitasun linguistikoak aldarrikatzen ditu hizketan ikasten ari den haurraren, garapenean nahasturik baldin badaude ere. Aurre horrek, hizkuntzaz jabetzeko, hizkuntzaz kanpoko diren nahaskietatik garbitzea ipintzen du helburutzat, betiere jatorrizko gaitasun linguistikoari esker gertatzen

diren hizkuntzaren gainerako alderdiak isolatzeko asmoz. Horretan datza, hain zuzen, hizkuntzaren ezaugarri unibertsalak ikertzeko interesa. Hala ere, Piageten jarrera ikusita, ezaugarri hauetariko asko antolakuntza kognitibo eta pertzepziozkoaren datu unibertsalen baitan daude. Adibidez: preposizioek seinalaturiko erlazio topologikoak (gaztelararen kasuan: *en, sobre, hacia...*) hizkuntzan baino lehenago kokatzen dira pertzepziozko espazio motorean; singulararen eta pluralaren arteko bereizketa sintaxian islatu baino lehenago zegoen objektuen munduan.

Piageten ikuspuntu teorikoaren barne, garapen linguistikoaren gainetik daude funtzio kognitiboak, eta garapen linguistikoa funtzio sinbolikoaren alderdi bat, agian garrantzitsuena, baino ez da. Hitza baino lehenagotik dago pentsamendua, baina behin hizkuntzaz jabetutakoan, bitartekari lana egiten du horrek pentsamenduarentzat. Kontuan izan behar da Piageten eskolako zenbait autorek, Karmiloff-Smith (1979) eta Bronckartek (1977), haren ikuspuntua aski murriztailea gertatzen dela diotela, funtzionamendu kognitiboari lehenetasuna emateagatik; garapen kognitiboan hizkuntzak jokaten duen papera kontuan ez hartzeak berekin dakarren arriskuarekin.

Berebat, ordea, derrigorrezkoa da Vigotsky eta bere jarrera aipatzea (1962), kontzeptuen eraikuntzarako hizkuntzak duen garrantzia azpimarratzen duelako. Onartua da gaur egun pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko elkarren mendekotasunaren tesia.

Piagetek defendaturiko jarrerak giza organismoaren ekipamenduan ipintzen ditu garapenaren alderdi erabakigarriak, eta asimilazioa, moldaera, orokortzea eta abstrakzioa bezalako mekanismo funtzional txit nagusi batzuetara mugatzen du aurreprogramazioa. Garapena eta funtzionamendu linguistikoa garapen kognitibo orokorraren baitan kokatzen ditu. Era berean, hizkun-



tzaren jabetze ebolutiboa zenbait konpetentzia sinbolikoz jabetzearen ordezkatzailea dela dio, eta hizkuntza haurraren garapen kognitiboari estuki lotua dagoela, komunikatzeko helburuarekin erabiltzen denean.

Hara, 1921ean Piagetek hartu zuen Ginebrako Rousseau Institutuko Ikerketa Sailaren ardura, eta Maison des Petits haurtzaindegian egin zituen bere ikerlanak. Haurrek egiten zutena oinarri hartuta hasi zen haurraren garapena aztertzen, eta, bereziki, euren artean esaten zutena edo zerbait galdetutakoan erantzuten zutena oinarri hartuta. Jasotako emaitzekin idatzi zuen bere lehen lana «Hizkuntza eta pentsamendua haurrarengan» (1923). Azterturiko hizkuntzaren laginetan, entzuna izateko interese gutxi ikusten zuen haurraren aldetik Piagetek. Bere baitarako hitz egiten du, edota bere berehalako ekintzari zerbait lotzeko, bere buruaz derrigorrez hitz egin gabe; haurra ez da elkarrizketatzailearen ikuspuntuan jartzen, eta ez du bere hitzak inori zuzentzeko inolako interesik ere adierazten. Azken batean, Piagetek dio, hiru urte arte, haurraren hizkuntza egozentrikoa dela nagusiki, eta, batez ere, errepikapenez (ahozko ariketa arruntak), ekintzei loturiko bakarrizketek eta bakarrizketa kolektiboz osatua dagoela, non dagokionean hitz egiten duen haur bakoitzak, besteak kontuan hartu gabe.

Piagetek azaldutako adibide batzuetan ikus daitekeen legez, haurrak hitz egitearen plazer hutsez hitz egiten du, inolako zentzurik aurkitzeko asmorik gabe. Piagetek txikiagotu egin zuen ariketa fonetikoaren eta hitz jokoaren garrantzia haurraren hizkuntzaren egituraketan, eta bere hizkuntzaren izaera ez-sozializatua azpimarratu zuen, bakarrizketak aztertuz erakutsi zuen bezalaxe. Ekintzari lotuak daude horiek, ekintza indartzeko edota ordezkatzeko eginak. Funtzionamendu egoentriko horretan, beretzat hitz egiten du haurrak, ozen pentsatuko balu bezala. Bakarrizketa kolektiboak lagunarteko hizkuntz jarduerak gertatzen direneko egoerak dira; batzuek efektu

indartzailea dute besteen gainetik, baina ulertuak izateko inolako kezkarik erakutsi gabe.

Hizkuntzaren forma egozentriko horiei hizkuntza sozializatua kontrajartzen zaie, zeinak testuinguruari eta elkarrizketatzaileari aldi berean egokituriko informazioa transmititzen duen, eta komunikazioaren funtzioa islatzen agindu, erregu eta mehatxuetan; eta berdin galde-erantzunen trukean. Piagetek dioenez, bere *Hizkuntza eta Pentsamendua* delakoan jasotako oharretan, hiru urteko haurraren ahozko produkzioen erdia eta zazpi urtekoaren laurdena da hizkuntza egozentrikoa. Beranduago, ordea, desagertu egiten da. Haurra adinean aurrera doan heinean, hizkuntza egozentrikoak jaisteko joera hartzen du, komunikazio aldera jotzeko. Modu horretan, geroz eta gehiago jartzen da elkarrizketaren eta informazioa trukatzearen zerbitzura. Hau da, Piageten esanetan, hizkuntza sozializatua deritzonaren zerbitzura.

Iritzi beraren haritik, haur hizkuntzaren egozentrismoak bere antolakuntza kognitiboa adieraz dezake, egoera naturalean. Egozentrismoa da, haurraren bizitzako lehen urteetan, kognizioaren alderdi guztiak bereganatzen dituen ezaugarria. Horregatik, haurra ez da gai bere ikuspuntu propioaren eta beste pertsonen ikuspuntuen artekoa desberdintzeko. Alabaina, sozializazio alderako urratsa eman duenaren isla garbia da pentsamenduaren deszentralizazio prozesuan adierazten den barne bilakaera; haurra errealitatea bere buruarekin identifikatetik besteen lekuan jartzeko gai izatera pasatzen da. Horrek badakar besterik ere, elkarren arteko trukeen elkarrekikotasuna inplikatzan duten deszentrazioak egiteko gai dela haurra. Orain, bere hizkuntzak gehiago jotzen du komunikazio aldera. Piagetentzat hizkuntza egozentrikoak ez du komunikazioa ezartzeko asmorik, denboraldi bateko adierazpena baino ez delako.

Kritika ugari sorrarazi ditu ikuspegi horrek, eta horien artean Vygotskyrena (1962) da nabarmenena. Berak

idatzitako *Pentsamendua eta Hizkuntza (Thought and language)* liburuan (1934an argitaratu zen, baina 1962 arte ez zen ingelesera itzuli), Piageten ideiei eskaintzen zien kapitulu bat «Le langage et la pensée chez l'enfant» (1923) liburutik hartuta. Piagetek haur-pentsamenduaren eta hizkuntzaren azterketari dagokionez, psikologiari eginiko ekarpen garrantzitsuak aitortuz ematen dio hasiera. Baina ez da ahaztu behar bere kritiken garrantzia ere, kontzeptuen formazioan pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko erlazioari dagokionez. Batez ere, eta besteak beste, hizkuntza egozentrikoa funtzio komunikatibo guztitik erantzia dagoela onartzearen aurka jartzen da Vygotsky.

Vygotskyren esanetan, hizkuntza egozentrikoak ez du adierazten komunikazio nahiaren ausentzia edo eza. Jarduera soziala da mintzatzea jatorriz beretzat, eta ezari-ezarian eta komunikazioa oinarri hartuta, mintzamina barneratzen joan ohi da eta pentsamendu bilakatzen. Egia da baita ere, Piagetek onartzen duela hizkuntza egozentrikoa deitzen duen hori egon bada-goela, eta are, barneratutako mintzamenaren abiapuntutzat hartzen du.

Piageten ikuspuntua jarraiki, hizkuntza egozentrikoaren ezaugarriak egiazatu ahal izan zituen, Piageten teoriak zuen desadostasuna frogatzeko egindako esperimentu andana batean, hain zuzen ere. Vygotskyrentzat hizkuntza egozentrikoak bere funtzio propioak ditu, baina ez da guztiz independentea, zeren ez da barneraturiko hizkuntza gisa sentitzen, eta haurrak ere ez du besteen hizkuntzatik bereizten. Halaber, ez da hizkuntza sozialaren berdina, baina egoera sozialen baitan bakarrik funtzionatzen du. Horrenbestez, besteentzako eta norberarentzako hizkuntzaren arteko trantsizioa adierazten du hizkuntza egozentrikoak.

Vygotskyk kontzeptu berri bat sartzen du, barne mintzamenarena. Mintzamen hori ez da norberak bere

buruarekin hitzez baliaturik hitz egitea (hori gerta badaiteke ere), hitzen esanahiekin baizik, eta ez hitzekin pentsatzeko prozesuaren baitan dagoenez. Mintzamina pentsamendu bilakatzen da eta bere egitura guztiz laburra da, eta desberdina mintzamen sozialaren parean.

Desadostasun garbia dago bi ikerlarien artean hizkuntza egozentrikoari ezartzen zaion garapen eta funtzioaren inguruan. Piageten ikuskeran, hizkuntza egozentrikoak bere pentsamenduaren egoera egozentrikoaren adierazpen izaten darraien bitartean, eta hori da haur-egoentzismo propioa gainditzearekin desagertzen deneko arazoia, Vygotskyrentzat barne hizkuntzaren aurretiko garapeneren etapa da aipatu hizkuntza.

Beraz, inboluzio bati lotua dago hizkuntza egozentrikoa Piagetentzat, haurra subjektibotasuna gutxitu eta sozializazioan aurreratzen doan heinean, eta hala, beherezko bidea jarraitzen du aipatu hizkuntzak, eskoladinarean atarian hutsera heltzeko. Alabaina, Vygotskyren jarreratik, desberdina da xedea Piagetek deskribatzen duenaren parean. Hizkuntza egozentrikoa garatu eta jaso egiten da, barneraturiko hizkuntza baterako bidean. Esan daiteke hizkuntza sozialaren eta barneraturiko hizkuntzaren erdibidean dagoela.

Hizkuntza egozentrikoari esleituriko funtzioarekiko, ekintzaren laguntzaile soil bat bailitzan kontsideratzen du Piagetek, pentsamenduaren garapenari begira inolako funtziorik bete gabe. Baina Vygotskyk haurraren portararen autorregulazioan jartzen zuen mintzamen egozentrikoaren papera; hots, adimen-orientazioaren lagungarri gisa, baita eragozpenak gainditzeko ere. Bestela esanik, norberarentzako hizkuntza dela pentsamenduari estuki loturik.

Piagetek adostasuna azaltzen du Vygotskyk bere lan eta ikuskera teorikoari buruz eginiko eta «Pentsamendua eta Hizkuntza» (1934) liburuan jasotako gogoetei buruzko iruzkinetan, Vygotskyk barneraturiko hizkun-

tzaren genesiaren inguruan egiten dituen baieztapenak direla eta, baita hizkuntzaren lehenengo funtzioa komunikazio orokorra izan behar duela esaterakoan ere. Alabaina, ez dago akordiorik mintzamen egozentrikoaren funtzioei dagokienez, zeren horrentzat eskolaurreko haurren hitzak beste pertsona baten ikuspuntua ulertzeko haur-eragozpenaren seinale baizik ez ziren. Bere oinarriko postulaturik defendatuz jarraitzen du; hots, haur txikien pentsamendua euren ikuspuntu propioan zentratua dagoela, nagusiki.

Vygotskyk zalantzan jarri zituen ondorio horiek. Izan ere, bere iritziz, hitz pribatua edo hizkuntza egozentrikoa gutxitu eta desagertu egiten da adinarekin, baina ez sozializatua izatera iristen delako, Piagetek uste izan zuen bezala, barneraturiko hizkuntza edo hitzezko pentsamendua izango delako baizik. Piaget bat dator Vygotskyk hainbat alderditan eginiko kritikei erantzuterakoan. Piageten meritua aitortu behar da, zeren bera izan zen haurraren hizkuntza egozentrikoan arreta jarri zuen lehen eta esanahi teorikoa atzeman zuena. Baina bere ikerlana adimen-jardueraren garapenaren azterketan oinarritu da, batez ere.

### *Irudikapena eta hizkuntza*

Kognitiboaren nagusitasuna eta hizkuntzak pentsamenduarekiko duen menpekotasunaren tesia defendatu du Piagetek, bere teorian oinarrituz. Ondoko bere lan honetan azaltzen da ikuskera hori: «La formation du symbole chez l'enfant» (1946). Eta hizkuntzaren aurretiko funtzio irudikatzailearen sorburuak ikertzen ditu hor, eta imitazioaren eta joko sinbolikoaren lehen adierazpenak aztertu zituen horretarako.

Piagetentzat gizabanakoa ingurunera egokitzeko modu bat da ezagutza: «adimena ekintzatik dator; eta

horrek, berriz, objektuak eta errealitatea transformatzen ditu. Asimilazio aktiboa eta operatiboa da funtsean ezagutza» (Psychologie de l'enfant). Honako honetan oinarritzen da bere azalpena: organismoaren eta ingurunearen arteko elkarrekintzek une bakoitzean halako oreka dinamiko batera bideratzen dutela, eta egokitzapen ahaleginak aldaketa eragiten duela, zenbait baldintzatan.

Egokitzapenak asimilazioa eta moldaketa inplikatzeko ditu. Lehenengo lehendik dauden egiturei informazio berria eransteari dagokio; bigarrena, berriz, informazio berriarekin izandako kontaktuen ondoren aurretiko egituretan gertatzen diren aldaketei dagokion. Bereganaturiko ezagutza aktiboki eraikitzen da; ez da, beraz, medioaren kopia geroz eta fidelagoaren emaitza. Haurrak bere ekintzak oinarri hartuz ezagutza orokortzen ematen duen urrats bakoitzean, lehen bereganaturikoa birmoldatzen du, eta elkarrekintza bat gertatzen da kanpoko medioarekin, baita ekintza-ildoekin ere; eta pentsamenduaren ildoekin beranduago.

Halatan, sorturiko egoerak estadio bat definitzen du garapenean, eta hortik abiatuta egingo dira estadio berri batera bideratuko duten egokitzapen prozesu berriak. Estadio sensoriomotorea da lehenengo garapen-aldia, eta zerotik hemezortzi edo hogeita lau hilabetera luzatzen da. Aldi horretan ezartzen dira, hain zuzen, ekintzako eskemak, eta hor lortzen da errealitatearen organizazio egonkorra ere.

Aldi horren ondoren, eta aurreoperatorioa deituriko hurrengo estadioan, hots, bi urtetik boatera doan aldiari dagokionean, oro har, gizabanakoak inguruko errealitatearekin duen erlazioa ez da pertzepzio eta mugimenduaren koordinaziora mugatzen; aitzitik gizabanakoaren ekintzaren eta ezagutzaren arteko nolabaiteko distantzia ezartzen da. Adierazle eta adierazi dualtasunak definituriko irudikapenean datza distantzia hori.

Alabaina, sinbolo irudikatzaileak esanahi bat izateko, behar-beharrezkoa da irudikatzen duenaren ezagutza bereganatzea. Beraz, irudikapenaren gaitasuna sinboloek irudikatzen duteneko ezagutzaren garapenaren arabera dago. Ezagutzarekiko lotura hori hizkuntza, keinu, joko, etab. bezalako irudikapen forma desberdinek partekatzen duten ezaugarria da.

Irudikapenak funtzio sinbolikoa eratzea dakar; hau da, adierazle eta adierazitakoaren desberdintasuna, hots, presente ez dauden adieraziak desberdindutako adierazien bitartez gogoratzea. Desberdintasun hori, ordea, ez da etapa sensoriomotorean gertatzen, aipatualdi horretako haurrak objektu, pertsona, eta abarretatik hartutako esanahiekin manipulatu egiten duelako, eta zantzu pertzeptiboak edo baldintzapen seinaleak dira erabiltzen dituen adierazle bakarrak.

Ez da funtzio sinbolikorik horietan. Baina irudikapen-gaitasuna adierazleen garapenarekin erlazionatua dago, hasi sensoriomotoreen indizeetatik eta adierazi ausente baten oroitzapena inplikatzeko duten sinbolo eta zeinuetarainoko guztian.

Piagetek diferentzia bat ezartzen du adierazia eta adierazlea bereiztea inplikatzeko duten sinbolo-mota orokorraren artean eta zeinuen azpi-motaren artean. Adierazle arbitrario eta konbentzionaletan eraikitzen dira horiek, hizkuntzaren kasuan bezala. Are gehiago, «sinboloak» deitura ematen die, zentzu zorrotzean, funtzio semiotikoaren produktu indibidual eta motibatuenei; hots, joko sinbolikoei, imitazio diferentiarri eta irudiei.

Piagetek imitazio eta joko sinbolikoaren adierazpenei buruz eginiko ikerketan jasotako ohar ugarietatik, bakar batzuk aipatuko ditugu adibide gisa. Haurrak, bere amaren bularra gogorarazten dion burkoaren muturrari eutsita, lo dagoenaren papera egiten du amaren ohean. Zerbait jan edo edango balu bezala egiten du, eskuan ezer eduki gabe, edota «avon» esaten du eskuak igurtziz eta

garbitzen ariko bailitzan. Objektuak manipulatzeko eratorritako irudimenezko esanahia emanez: kuboek autoen antza dute, esaterako.

Portaera horiek guztiek sinboloen erabilera adierazten dute, objektu baten itxurazko artikulazioa dagoelako eskemari buruz, baina egungo moldaerarik gabe. Sinbolo horien garapenak ez du sentoriotoreen erritualena baztertzen, irudikapena inplikatzeko baldin badu ere. Bistan da sinbolo ludikoaren ezaugarriak direla portaera horiek, joko motore arruntei kontrajarriz.

Haurrak imitazio diferituak egiten ari den «itxurak egiten ditu», objektuei esanahi desberdinak ematen dizkie, sinbolo gisa erabiltzen dituelako. Piagetentzat eskema sentoriotoreen bilakaeran eta ekintzen koordinazioetan bilatu behar da jarduera sinbolikoaren agerpen desberdinen jatorria. Portaera sentoriotoreen eta irudikapenezko portaeren arteko trantsizioa imitazioari esker segurtatzen da, zeinaren ondorioak, imitazio diferitua eta barneratua (irudi mentala) joko sinbolikoarekin eta hizkuntzarekin ia batera azaltzen diren. Funtzio berearen agerpenak direla kontsideratzen du, funtzio sinbolikoarenak.

Baina hizkuntzaren eta beste irudikapen moduen artean diferentzia nabarmena dagoela ere aitortzen du. Beste irudikapen formetan, adierazle eta adieraziaren arteko erlazioa berezkoa da; hizkuntza irudikapenaren izaera, oster, arbitrarioa da, eta gizartetik jaso. Hau da, hitz batek objektu bat irudikatzen du besteek hala izendatzen dutelako. Haur batek pospolo kaxa baten bitartez trenaren bagoia irudikatzen dueneko joko sinbolikoa adibide gisa hartzen du Bronckartek (1980), eta jarduera sinbolikoaren diferentzia zertan datzan adierazten: trena objektu fisiko gisa hartzen duen ekintza dago alde batetik, itxurazko bere ezaugarriaren baten eraginpean jokatuz; eta bestetik, ekintza hori hizkuntzaren zeinuei dagokienean. Adib. «trena» hitzaren erabilera objektu bera aipatzeko.



Funtzio sinbolikoa bilakaera psikologikoaren produktutzat hartuta ere, hizkuntzak badu produktu sozial gisa ere izaera konbentzional bat, eta beste irudikapen sinbolikoekiko nolabaiteko diferentzia eskaintzen du. Arrazoi horregatik, ona da hizkuntza eta komunikazio sozialak hizkuntzarekin duen lotura eta haurra konbentzio sozialean txertatzeak duen eragina aintzat hartzea. Nolanahi ere, imitazioaren garrantzia azpimarratzen du behin eta berriz Piagetek, funtzio sinbolikoa aipatzen duenean.

### *Imitazioaren zeregina*

Imitazioan oinarritzen dira portaera sinbolikoaren forma desberdinak, eta areago, hizkuntza bera imitazioaren testuinguruan jasotzen da. Irudikapenaren aurrefigurazioa da imitazioa, sentsomotore-aldian irudikapen gisako zerbait esan nahi du ekintza materialetan, baina ez pentsamenduaren baitan. Sentsomotore-aldiaren amaieran, imitazio orokortuaren jabetza hartzen du haurrak, eta horrek bide ematen dio aurre-irudikapenetik barne irudikapenera edo pentsamenduaren irudikapenera pasatzeko.

Errealitatean, berez dagokio funtzio sinbolikoari, edozein formatan izanik ere, pentsamendua eta ekintza bereiztea. Izan ere, hizkuntza ez da irudikapen-modu bat soilik, mekanismo kognitiboak (harremanak, sailkapenak...) txertatzen dituen tresna hagitz landua ere bada. Baina hizkuntz ikasketak ez ditu gaitasun espezifikoak inplikatzeko hizkuntza ikasten duen subjektuarengan Piagetentzat. Haurrak aparatu neuromuskular egokiari, bere adimenari eta imitazio-mekanismora mugatzen diren ikasteko gaitasun orokorreari esker ikasten du hizkuntza.

Egia esan, faktore txiki garrantzitsua da imitazioa hizkuntza ikasteko; haurrak pertsona helduaren mintzamenaren ereduak imitatu behar du, eta, gainera, Piage-

ten teorian, imitaziotik dator irudikapen oro. Alabaina, hizkuntza ez da ezagutzen duguna irudikatzeko, ez eta komunikatzeko medio soila ere, berez ezagutu behar den objektu ere bada. Piagetek ez du planteatu inolako hipotesirik hizkuntza ikasteko prozesuari dagokionez, ezta subjektuaren garapen intelektualean hizkuntzak ezagutza-objektu gisa duen paperari buruz hausnartu ere. Modu horretan, hizkuntza, berez, ez da garapen-iturri, Piageten ikuspuntutik. Abstrakzio enpirikoaren beste prozesu batzuek bideratzen dute, eta, batez ere, ekintzei eta beren koordinazioei aplikaturiko abstrakzio bihurkariak garapen egoera batetik besterako urratsa ematea.

### *Kognitiboaren eta linguistikoaren arteko elkarrekintza*

Piagetek ez du onartzen haurrak edozein eragiketa logiko bereganatu dezakeenik hizkuntza ikastetik. Berak eragiketa zehatzat dauzkanak (sailkapena, lerrokatzea eta itzulgarritasuna inplikatzan dutenak, oro har) eta bi eta zazpi-zortzi urte bitarteko operatiba-aldiaren funtsezko ezaugarriak direnak, haurren aldetik, objektuen manipulazioari eta errealitatearen maneiuari lotuak daude. Horien garapenak ez du hizkuntzarekin zerikusirik.

Egitura operatiboei dagokien ahozko informazioaren transmisioa egitura horiek ekintzen arloan edota eragiketarak barneraturiko ekintza gisa lantzen diren mailan bakarrik asimilatzen da. Garapen kognitiboa bideratzen duten barne mekanismoetan bakarrik kontzentratu zen.

Piageten eskolak eta H. Sinclair (*Acquisition du langage et développement de la pensée*, 1996) eta E. Ferreirok (*Les relations temporelles et le langage de l'enfant*, 1971) eginiko azterlanek, bereziki, izan duten helburua haurrak bere garapen linguistikoa aurrera egiteko eragiketa zehatzak menperatzeko beharra ote duen frogatzea izan da.

Sinclairrek orobat aztertu ditu kopuruen kontserbazio-nozioen garapena eta horiei dagozkien ahozko portaeren garapena, 4 urte eta erditik 8 urte bitarteko haurrengan. Piageten frogaren bitartez (likidoak ontziz aldatzea, kantitate berbera forma eta altuera desberdineko ontzietan botata), hiru kategoriatan sailkatu ditu subjektuak: kontserbaziorik eza, trantsizio-aldia, identitateaz karakterizaturiko kontserbazioa, konpentsazioa eta itzulgarritasuna. Aldi berean, subjektuek azterturiko eragiketen deskribapenetan esku hartzen duten sistema linguistikoak arakatu ditu. Kopuruak, kualitateak eta konparaketak deskribatzen dituzten terminoak sartzen dituzte sistema horiek; esaterako, *asko*, *gutxi*, *gehiago*, *gutxiago*, *handiagoa*, *txikiagoa*, etab. Subjektuek ulermen eta produkzio frogak jasan behar dituzte. Lehenengo puntuan, subjektuei aipaturiko terminoek jasotzen dituzten ahozko argibideak ematen zaizkie, eta beren ulermen egiaztatzeko bidea egiten, emaniko argibidearen aginduetara egokitzen denaren arabera. Bigarren puntuan, esperimantatzaileak egiten dituen ekintzen deskribapena eskatzen zaio subjektu bakoitzari, trataturiko nozioak jasotzen dituen egoera aurkezten dionean.

Bere azterlan esperimantalean, honako ondorio hau atera daiteke Sinclairrek jasotako erantzunetatik: subjektu guztiek ulertu dituztela emandako kontsigna eta azalpen guztiak. Alabaina, egoera azaltzeko terminoak erabili behar direnean, kontserbazio-nozioa erdietsi duten haurrak eta ez dutenak ez direla berdinak. Termino kuantitatiboak konparatiboki deskribatzeko, adibidez, eragiketa-faseko haurrak gai direla «honek besteak baino gehiago du», «gehiago du, besteak gutxiago» bezalako espresioak erabiltzeko. Aitzitik, eragiketa aurreko haurrek hain sintetikoak ez diren espresioak erabiltzen dituzte: «honek zati handia du, besteak zati txikia du».

Ferreirok aldi bateko harremanen maila operati-boaren eta espresio-moduen arteko harremana aztertu du,

aldiberekotasuna edo bi gertakizunen arteko segida, hain zuzen (aditzaren denborak, denborazko adberbioak, juntagailuak eta proposizioen ordena). Halako parekotasun bat atzeman zuen egitura operatiboen garapenaren eta aldiberekotasunaren forma linguistikoen artean.

Badirudi egintza hauen nabaritasunak hizkuntza pentsamenduaren bilakaeratik gertu dagoela erakusten duela. Behin hizkuntza bereganatutakoan, garapen kognitiboaren aurrerapenerako balioko du zalantzarik gabe; arrazoiketa edota formulazio-prozesu abstraktuei buruzkoak direnean, batez ere. Alabaina, Piagetek eragiketa formalei aurre egiteko beharrezko baldintzat hartzen du hizkuntzaren erabilera, hizkuntzak eragiketa zehatzetatik eragiketa formaletara pasatzea bideratzen duelako. Behin hizkuntzaren oinarriko izaera hori baieztitakoan, argi utzi nahi du, esanez, gaia beharrezko baldintza dela, baina ez nahikoa aipatu eragiketen eraikuntzarako. Bere esanetan, hizkuntza baino lehenagokoak dira egiturak. Horrek, funtzio sinbolikoarekin batera, kontzeptualizazioa errazten du, eta hizkuntzaren erabilera propioa da logika bereganatzearekin aberasten dena.

## **Piageten teoriaren ekarpenak eta mugak**

Piagetek nahiz bere jarraitzaileek hizkuntza funtzio sinboliko eta irudikatzailearen testuingururik zabalenean mantentzen duen hipotesiaren irmotasuna jartzen dute nabarian. Horri zor zaio honako baieztapena, gramatika unibertsalaren teoria formulatzen zuen jarrera chomskiar teorikoaren aurrean, kognitiboa linguistikora laburtzeko ezintasuna.

Alabaina, ez da harritzekoa Piageten eskolako iker-tzaileek Chomskyren teoriaren planteamenduari no-labaiteko kidetasuna sentitzea. Diferentziak ukatu gabe,

chomskiar unibertsal linguistikoak jaiotzetikoak dira, nolabait, eta Piageten eragiketetan prozesu genetiko baten ondorio dira. Hala, teoria batean zein bestean oinarrituriko azterlan desberdinek beren eragina izan dute hizkuntzaren azterketaren ikuspegi kognitiboaren garrantzian, konduktibismo menperatzaileari aurre eginez, hirurogeiko urteetan, batez ere.

Honekin batera, Piageten hizkuntzaren azalpenaren muga batzuk azpimarratu behar dira. Hizkuntzaren genesisia eta garapena gizabanakoaren garapen orokorraren baitan mantendu nahi izateak ez du aurrerabidea argitzen haurraren hizkuntzan. Hizkuntza hizkuntza jakin batean komunikatzeko medioa denez, haurrak inguruko helduek hitz egiten dioten hizkuntzan hitz egiten ikasten du. Horretan, haurrak nolabaiteko adimen-garapena erdiesteaz gain, komunikazio-hizkuntza ulertu behar du bere ingurune sozialean. Hau da, hitzen esanahia, hitzen erlazio eta aldaketa-erregelak, esaldien eta diskurtsoen loturak ulertu behar ditu.

Horrek guztiak zera adierazten du, egokitu behar dueneko mundu batean dagoela haurra, oso adin txikia duenetik, eta ez dela denboran eta espazioan banaturiko objektuen mundu batekin bakarrik topatzen, baita ahozko ingurunearekin ere. Eta horretara egokitu beharko du besteekin erlazionatzeko eta komunikatzeko.

Beste behin ere, Piagetek haurrak bere garapen kognitiboaren prozesuan tratatu behar zituen objektuen eta gertakizunen izaeraren gaiari garrantzi gehiegi ez eman izana adierazi nahi da. Era berean, erants dezakegu zernola sistema komunikatiboak, haurraren alorrari buruzko ikerketaren ideiak, hizkuntzaren berezitasunaren azalpen genetikoaren osa dezakeen.

## Erreferentzia bibliografikoak

- BRONCKART, J.P. (1977). Théories du langage. Bruxelles, Pierre Mardaga. (Teorías del lenguaje. Barcelona, Herder, 1985).
- CHOMSKY, N. (1985). Reflexiones sobre el lenguaje. Barcelona, Planeta de Agostini.
- DALE, P. (1980). El desarrollo del lenguaje. México, Trillas (Ed. orig. 1976).
- FERREIRO, E. (1971). Les relations temporelles dans le langage de l'enfant. Paris, Droz.
- KARMILOFF-SMITH, A. (1985). Language and cognitive processes from a developmental perspective. *Language and Cognitive Processes*, 1, 161-185.
- MCNEILL, D. (1970). *The Acquisition of Language*. New York, Harper.
- PIAGET, J. & INHELDER, B. (1966). *La Psychologie de l'enfant*. Paris, PUF.
- PIAGET, J. (1923). *Le langage et la pensée chez l'enfant*. Neuchâtel; Paris, Delachaux & Niestle. (El lenguaje y el pensamiento en el niño. Buenos Aires, Guadalupe, 1972).
- PIAGET, J. (1945). *La formation du symbole chez l'enfant*. Paris, Delachaux & Niestle. (La formación del símbolo en el niño, 1961).
- SAPIR, E. (1953). *Le Langage*. Paris, Payot.
- SINCLAIR, H. (1967). *Acquisition du langage et développement de la pensée*. Paris, Dunot. (Adquisición del lenguaje y desarrollo de la mente. Barcelona, Oikos-Tau, 1978).
- SINCLAIR, H. (1996). *Activités spontanées des jeunes enfants et objectifs pédagogiques des institutions préscolaires*. In S. Rayna, F. Laevers & M. Deleau (eds.), *L'éducation préscolaire — quels objectifs pédagogiques?* Francia, INRP et Nathan.
- VYGOTSKY, L. (1962) *Thought and language*. Cambridge, MIT Press. (Pensamiento y lenguaje. Buenos Aires, La Pléyade, 1973).
- WHORF, B. (1964). *Language, thought and reality*. Cambridge, MIT Press.



# 7

## PIAGETEN LOGIKA

*Jesus M. Larrazabal*

I.L.C.L.I.

Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

Piageti buruz asko hitz egin da gure herrian azken hamarkada hauetan, batez ere ikastolen sorrera zabalari eta hezkuntza metodoen inguruko eztabaida biziari esker. Hitz egin asko bai, baina zuzenean irakurri eta eztabaidatu ez hainbeste. Badirudi sarritan gure artean bigarren edo hirugarren eskuko Piaget bat erabili izan dela, iruzkigileren baten arabera eta gaztelaniara itzulia. Maiz entzun izan dut Piagetek hau edo bestea dio logikaz edo matematikaz, neure harridurarako Piageten obran inoiz horrelakorik ikusi gabe.

Lan labur honetan Piagetek logikaz eta arrazonamendu matematikoaz zuen ikuspegia azaldu nahi dut. Hone-tarako hark logikan idatzitako testu nagusiari helduko diot eta pasarte garrantzitsuenak emango ditut. Gogoan hartu hura ez zela ez logikari ezta matematikari ere izan. Arlo hauetan muga asko zituen. Muga horien barruan hark egindakoaren berri zehazki jakin nahi duenak jo beza Piaget beraren testuetara.

### **Testuingurua**

Oxfordeko unibertsitatean, urte askotako lan handiaren ondorioz, William eta Martha Kneale irakasleek argitaratutako logikaren historiako lan nagusian, *The De-*



*velopment of Logic* izenekoan (Kneale, 1962), ez da Jean Piageten izenik azaltzen. Egia da liburuaren azken kapituluak Fregeren ondotik gertatzen den matematikaren «krisiaren» inguruko logikagintzaren azterketara emanak daudela eta hor Piagetek, beherago aipatuko dudanez, apenas duela zer esanik.

Logikaren historian Piagetek lekurik ez izatearen arrazoa hauxe da: ez zen logikaria izan eta logikari buruz zuen ikuspegia zelaiaren bazter batean kokatua zegoen, Aristotelesen *Analitikoak* liburuetatik hasi, estoikoen lanekin segi eta Frege, Russell, Hilbert eta Tarskiren lanek osatutako ardatza kontuan hartuz gero. Areago, filosofia-rekin gertatzen zizaion moduan, ez zuen logika barrutik ezagutzen. Eta 1949an «*Traité de logique. Essai de logique opératoire*» izeneko liburua argitara eman zuenean (Piaget 1949) susmo eta erreakziorik gogorrenak sortarazi zituen logikarien artean, baita bere inguruan zeudenen artean ere. Honen adibiderik onena Beth 1950 artikulua- ren azken hitzak dira: «liburu hau akatsez betea dago, bai mailarik oinarritzkoenean bai goi mailan ere eta honek *Logika Tratatu* gisa erabat alferrikako bihurtzen du eta zientzia interes guztia kentzen dio»<sup>1</sup>. Evert Beth (1909-1964) ordurako Amsterdameko Unibertsitateko Logika eta Zientziaren Filosofia eta Historiako katedraduna zen eta, Tarskiren eraginez, ia erabat semantika logikora dedikatua; matematikaren oinarri logikoei buruz frantsesez liburu garrantzitsua argitaratu zuen urte horretan bertan

---

<sup>1</sup> Hitz gogorragoak ere erabiltzen ditu: *La tâche d'écrire le compte rendu d'un livre scientifique est particulièrement agréable s'il s'agit d'un livre qu'on admire; (...) elle est pénible dans les cas, heureusement rares, où ni les doctrines défendues par l'auteur, ni son argumentation ne donnent lieu à une appréciation favorable, et d'autant plus que l'auteur s'est fait estimer par des travaux antérieurs; dans ce dernier cas surtout, on aimerait mieux passer sous silence une publication médiocrement réussie.* Beth 1950, 258. or.

eta geroztik ezaguna egingo zuten taula semantikoen proposatzailea eta Padoaren teoremaren konbertsua den definigarritasun teoremaren frogatzailea izan zen. Gauzarik interesgarriena, ordea, hauxe da: Piagetek haintzat hartu zuela, neurri batez bederen, Beth filosofo eta logikari holandarraren kritika (liburua — aitortzen du Piagetek — sentimendu nahasiekin hartu omen zuten adituek) eta Jean-Blaise Grize logikari suitzarrari laguntza eskatu ziola 1949ko liburuaren bigarren argitalpena 1972an argitara emateko orduan, *Essai de logique opératoire* (ELO, aurrerantzean) izenburu berriarekin (Piaget 1972). Gehiago oraindik: Piagetek Bethekin batera lan garrantzitsu bat eman zuen argitara 1961ean Pariseko Presses Universitaires de France argitaldarian honako izenburu honekin «*Épistémologie mathématique et psychologie*» («*Études d'épistémologie génétique*» bildumaren 14. alean), era honetan epistemologikoa genetikoaren ikerketa proiektu zabalarentzat hain oinarritzkoa zen matematikaren epistemologiari bidea irekiz. Egia da, baita ere, Grizek ELOren berrikuspena egin arren, ez zuela konpromisorik hartu nahi izan Piageten logikaren ekarpenekiko.<sup>2</sup>

Logikaren objektua bakarra izan da historian zehar: *ondorioa* zer den aztertu eta formaren arabera mugatzea. Piagetek, ordea, ez du horretan interesik azaldu. Areago, arrazoitzea juizioen (proposizioen) segida inferentzialaren moduan hartu beharrean, kontzeptuen arteko lotura

---

<sup>2</sup> *Nous tenons enfin à exprimer toute notre reconnaissance à J.-B. Grize, qui a donc bien voulu se charger de cette réédition en utilisant notamment un symbolisme plus conforme aux usages des logiciens que celui dont nous nous étions contentés avec nos préoccupations plus constructivistes que formalisatrices. Le lecteur lui en saura gré, et, si notre collègue a renoncé à une formalisation du «groupement» lui-même, c'est pour les raisons déjà indiquées tenant à cette situation exceptionnelle d'une structure qui, en tant que «naturelle» demeure très proche encore de son contenu qualitatif.* (ELO, xvi. or.)

sinplean oinarritzen du, justu samar estoikoen erregelak salbatuz, Aristotelesen silogistika errotik kritikatzeko.<sup>3</sup> Nahikoa du egitura logikoak aurkitu eta aurkeztearekin. Haren *Saiakeraren* (ELOren) lehen zatia proposizio barruko eragiketei buruzkoa da, klase eta erlazioei buruzkoa hain zuzen. Bigarren zatia proposizioen arteko eragiketei buruzkoa. Hemen proposizioen kalkulu atipiko bat aurkezten da eta ohar sinple bezain bitxiak (historikoki okerrak ere bai) egiten dira silogistikaz, azken hau proposizioen kalkulura bideratu nahirik, bide batez Hilbertek egindakoa ulertu gabe kritikatu. Piagetek, itxura guztien arabera, ez zuen Russellen logizismoaren obra nagusia, Whiteheadekin batera egindako *Principia Mathematica* (1910-1913), ezagutu eta haren burua lotuagoa zegoen Boole eta algebrari logikoen ikuspegira edo, hobeto esan, ikuspegi horren zati batera edo nola edo halako estilora, logikaren formalizazio algebraikora, kontuan hartu gabe formalizazio hori, besterik gabe, dedukzioak algebran egiteko zela, dedukzioa amaitu ondoren berriro logikara bueltatzeko. Agerian dago Piageten zaletasun hau *Saiakera* osoan zehar. Benetako arazoa liburuaren bigarren zatian dagoen seigarren kapitulu- luan dago: *Dedukzioaren oinarriak: axiomatika eta bi baliotako logikaren «taldetzeak»*. Hor ikusten da haren joera *boolearra*, formalizazio logikoa, besterik gabe, eragike-

---

<sup>3</sup> Saiakeran «proposizio barruko» eragiketak zer diren definitu ondoren, honela dio: *Pour ce qui est des rapports entre les jugements et les raisonnements, on voit immédiatement l'ambiguïté que la logique classique laissait subsister dans la notion de la structure formelle du raisonnement... (...) tant les inférences immédiates entre propositions générales et spéciales ou singulières que les inférences médiatees ou syllogismes, envisagées par la logique d'Aristote, reposent sur la distinction du «tous» et du «quelque» en un sens qui intéresse surtout les opérations intrapropositionnelles...C'est donc fonder le raisonnement sur les concepts, en extension... ou en compréhension (par une hiérarchie de prédicats). Mais on peut aussi fonder le raisonnement sur la seule combinaison interpropositionnelle des jugements.* (ELO, 35. or)

tentzako egitura algebraiko bat deskribatzea izango balitz bezala, Russellek eta Hilbertek axiomatikaren esparruan egindakoa ulertu gabe eta Tarskik semantikan zabaldutako bidea haintzat hartu gabe. Hiru logikari handi hauek «atomistatzat» hartzen ditu, logikaren barruan konsistentziaren bila dabiltzanak itxuraz, eta ez bera bezala osotasun operatiboen bila, haurraren eboluzioa medio, eragiketak erabat modu abstraktu batean egiten direnean (14-16 urtetik aurrera) eraikita dauden egitura horien bila.

Grize 1987 testuan, ELOren logika *salbatu* ezinik, benetan inferentziaren teoriarik egiten ez delako, hauxe esango zaigu: Piagetek logikan egindako lana «metalogikoa» da. Oso oker dabil honetan Grize. Logikaz beste nonbaitetik esaten dena ez da, besterik gabe, *metalogika*, ez bada bederen zentzurik hutsalenean. Lehen aldiz hitz hori 1159ean idatzitako obraren izenburuan erabili zuen John of Salisbury Parisen Abelardo maisuarekin *Dialektika* ikasitako logikari gazteak. *Metalogiconen* lehen aldiz Erdi Aroan Aristotelesen *Organon* osoa hartzen da kontuan, ikasi, aztertu eta komentatzeko, logika *loquendi vel disserendi ratio* gisa hartuz, hau da *ratio disserendi* edo dialektikara eramanez (gogoan izanik, jakina, Aristotelesen argi laga zuela arrazonamendu frogazkoaren eta dialektikoaren artean ez zegoela ezberdintasun logikorik). Hogeigarren mendean metalogika egiterakoan, *metamatematikaren* transposizioa egiten da eta logikaren kalkuluaren eta semantikaren propietate nagusiak aztertzen dira (batez ere, bien artean zubi egiten dutenak), logikaren historian zehar lortu diren emaitzarik garrantzitsuenak lortuz. Ez dago, beraz, metalogikarik Piageten lanean, ezta logikaren filosofiaren arrastorik ere.

ELOren sarreraren hasieran argi dago: pentsamendua- ren eragiketak aztertzea interesatzen zaio Piageti. Honexegatik gogoko du Booleren lana, batez ere 1854ko «*An Investigation of the Laws of Thought, on which are founded the Mathematical Theory of Logic and Probability*»,

sarritan goraiatzeko duena. Egia da «pentsamendu»aren logika egin nahi izatea logikaren historiaren hasieran bertan dagoela, momentu batzuetan indar gehiagorekin azpimarratu izan bada ere. Gogoratu, besteak beste, Port-Royaleko Arnaulden eta Nicoleren «*La Logique, ou l'art de penser*» (1662) edo Stuart Millen «*A System of Logic*» (1843). Arazoa honetan datza: pentsatzea zer den aitzin-suposatzen dela eta maiz aukera metafisiko ezberdinen arabera gauzatzen direla suposizio horiek, gaur egungo gogoaren filosofiak argi laga digunez. Ez al da, ba, pentsatzeaz ari Aristoteles *Organon* guztian, kontzeptuez, ondoren judizioez eta gero argudioez teoria egiten duenean, hain zuzen argudioetan ondorioak ateratzea logikaren —silogistikaren— eskuetan jarritz?

Piagetek logikaz duen ikuspegia ez da, ordea, aristoteliarra. Haren logika epistemologia genetikoaren zerbitzuan dago. Tresna da, bai, Aristotelesen kasuan bezala eta estoikoen kasuan ez bezala, baina psikologia genetikoak behar omen duen tresnetako bat (analisi historiko-kritikoe-kin batera), hain justu eraikuntza operatiboen osotasunak duen egitura formalizatu ahal izateko. Horretarako eman omen zien Piagetek lekua logikariei 1952an Genevan sortutako Epistemologia genetikorako nazioarteko Zentroan. Formalizazioa, haren ustez, prozesu etengabea delako, egituren eraikuntzaren arabera egin beharrekoa, alde batetik; bestetik, oinarri-oinarritik hasi beharrekoa, hau da, *taldetze*<sup>4</sup> eragiketarik, honen gainean sortu eta sostengat-

---

<sup>4</sup> Taldetze eragiketaren formalizazioa ezin izan zion Grize logika-riak Piageti eskaini eta honek etsi egin zuen: *Or, ces difficultés sont très significatives, soit qu'on parvienne un jour à une telle axiomatisation, mais bien moins facilement qu'on obtient celle des treillis ou des groupes, soit que les résistances rencontrées demeurent insurmontables. (...) il semble s'avérer que plus une structure demeure proche de son contenu et moins facile en est la formalisation.* (ELO, xiv). Horra, ba, eraikinaren zimendua formalizatu ezinik.

zen direlako klaseak, zenbakiak eta erlazioak eta, ondoren, konbinatoria, kuantifikazioa, multzoen arteko eragiketak, egitura algebraiko elementalak... eta hemendik aurrera matematikan nahi den guztia. Positibismo logikoa gogor kritikatzeko du Piagetek, logikaz eta epistemologiaz eskola horrek defenditu zuena enpirismo tradizionalaren eta positibismo gauzazalearen akatsak akritikoki onartu zituelako. Piageten ELO irakurtzerakoan arerioa zein den garbi dago, baina garbi dago baita ere hogeigarren mendeko logikaren garapenaren enborra hortxe ikusten duela eta, jakina, hau ez da horrela. Honen lekuko Frege eta Russellen logizismoari leporatzen dizkion hutsegiteak (ez horien lanen barruko *ezintasun* teknikoak) edo Hilberten formalismoari buruz esaten dituen gauza harrigarriak (Brouwerren intuizionismoa ere ez omen zuen Piagetek ongi ulertu, Beth *dixit*). Grize 1987 testuan esaten zaigu Piagetek logika egin zuenean ez zuela *Principia Mathematica* ezagutzen, justu-justu dibulgazio mailako Russellen 1919ko *Introduction to Mathematical Philosophy*, gainera 1928ko itzulpen frantsesean. Ez zuen ezagutzen haren atomismo logikoaren filosofia, ezta Fregeren Kontzeptugrafia (1879) edo Aritmetikaren oinarriak buruzko liburuak (*Grundlagen* 1884; *Grundgesetze* 1893, 1903) ere, aipatu, Bethek zioen bezala, hauetako bat edo beste aipatzen duen arren. Oker ibili zen Piaget hogeigarren mendeko logikaren garapena ebaluatzerakoan, kontuan izanda ELO 1972an eman zela argitara, 1949an zeuzkan akatsak mantenduz.<sup>5</sup>

---

<sup>5</sup> Hauxe esaten da Beth 1950 artikuluan: *L'Auteur reproche à la logique symbolique courante de se borner, pour ainsi dire, à étudier les «coups» particuliers, et de négliger entièrement «la conduite de la partie». Ce reproche me paraît particulièrement injuste; il doit dériver d'un malentendu assez profond. En effet, il y a toute la métalogue, il y a les domaines des preuves de non-contradiction, d'indépendance, de saturation, des recherches sur le problème de la décision, domaines, bien entendu, dont l'Auteur ne dit pas un seul mot. Toute tentative*

## Logika: zer eta zertarako

Logikaren objektua mugatzerakoan Piagetek adierazten digu logikak egia formala aztertzen duela. Egiaz ezagutu zientziek egiten dute, ez logikak. Eta egia buruzko teoriak epistemologia arduratzen da, ez logika. «Egia» ezinbesteko kontzeptua da eta «egiazko» ezinbesteko (meta)predikatua epistemologia eta logika egin ahal izateko. Bi hauen arteko ezberdintasuna, ordea, oso garrantzitsua da nahasketarik gordinenean ez erortzeko. Piageten arabera, ezagutz(e)a bi eratan azter daiteke: subjektuaren eta objektuaren arteko harreman moduan eta forma soilaren moduan (hau da, subjektuaren baitan egia lotuta ematen diren jardueren moduan). Bi hauetako lehenbiziko moduaren azterketa epistemologiari dagokio eta bigarrenarena logikari. Horregatik, logikak ezagutzaren analisi formala du objektu. Bereizketa honek epistemologia ezagutzaren oinarrian jartzen du eta logika tresna bihurtzen du. Epistemologia genetikoaren ikerketa programa zabaldu zuenean Piagetek egin zuen lehen gauza epistemologia egiteko filosofiaren historian hartutako bide tradizionalen kritika izan zen. Zientzien ondoan egindako epistemologian zorrotz kritikatu zituen epistemologia «metazientifiko» eta «parazientifiko» (hemen, fenomenologia batez ere) izenez deitu zituenak, baita «zientifiko» batzuk ere (bereziki, positibismo frantsesa eta positibismo logikoa). Epistemologia genetikoa zientziaren barruan, ez ondoan, egin behar zen, besteak beste, Cournot, Brunschvicg, Bachelard, Koyré, Meyerson, Poincaré, Brouwer, Gonthier, Cavailles, Lautman eta Cassirerrek erakutsitako bidean.

---

*de définition de la notion de théorie déductive fait d'ailleurs défaut. Ce manque de tout effort sérieux —malgré la présence d'un chapitre particulier consacré aux «fondements de la déduction»— pour relier la logique des propositions, des classes et des relations à une théorie de la déduction nuit également à la façon dont l'Auteur développe la logique des propositions. (260. or.)*

Horregatik, metodo psikogenetikoei metodo historiko-kritikoak eta analisi formalizatzailea erantsi behar zitzairen, epistemologiaren kezka nagusia hauxe omen delako: nola joaten da hazten ezagutza?

Logikak subjektuaren jarduera batzuk ditu aztergai: egia formalari lotutakoak, hain zuzen. Egiari buruzko ikuspegian, oro har, korrespondentista da Piaget, proposizioen eta munduaren esperientziaren arteko harreman hori filosofikoki zehazten ez duen arren. Nahikoa du, ordea, jarrera hori egia formala proposizioen arteko akordio moduan hartzeko. Logika ez da zientzien metodologia. Metodoen azterketa zientzia beraiei dagokie Piageten ustez. Horren ondotik epistemologia dator eta gero logika, honek proposizioen konbinazioan kontraesanak kenduz, esperientziaren teoriarik egin gabe. Ezagutzaren forma soila aztertzen duela esaten denean, ezagutzaren objektuaren berezitasunez inolako ardurarik ez duela esaten da. Hau da, logika *formala* adierazpen enfatikoa dela. Aristotelesek *Lehen Analitikoetan* ez zigun besterik erakutsi. Forma, ordea, zeren forma? Logikaren lege edo erregelek zeren egitura eskaintzen dute? Piageten aukera teorikoa oso argia da: ez hizkuntzarena, ez komunikazioarena, pentsatzearena baizik. Egitura logikoek pentsamenduaren legeak ematen dituzte. Baina, ez era estatiko batez, pentsatzean egiten diren eragiketen azterketa eginez baizik. Logika dinamikoa egiteko modu bat litzateke hau. Jakina, gaur era estandarrean logika dinamikotzat hartzen den esparrutik oso urrun. Piageten teorian ekintzaren logika baten aurrean gaude, psikologia genetikoa oinarrian duela, konduktismoa kritikatu.

Oinarrian du psikologia, baina logika ongi bereizten da hortik. Pentsamenduaren eragiketen lege errealak aztertu eta esplikatzea psikologiaren lana da. Eragiketa horien egitura formala ematea, hau da, horien baliozkotasun formala finkatzea logikaren lana da. Eragiketa horiek —dio Piagetek— ekintza orekatuak dira. Hasteko, ekintzak dira, sub-



jektuaren jarduera batzuei lotuak eta, hortaz, psikologiaren aztergai. Gainera, ekintza horiek gehienetan subjektuen arteko lankidetzan eta komunikazioan gertatzen dira eta, hortaz, psikosozologiaren aztergai bihurtzen dira, elkarrekintzan koordinazio orekatua lortzen dutenez. Ez dago zalantzarik: maila ezberdinetan zehatz mugatuta dabilta psikologia eta logika, batak oinarria eta besteak laguntza elkarri eskainiz, elkarren arteko kontraesanean erortzeko arriskurik gabe. Ez da Piageten meritu txikia esparruak hain garbi bereiztea, psikologismoak logikaren historian kalte handiak egin dituelako. Objektu eta metodoetan ezberdin dira psikologia eta logika, aztertzen dituzten gai eta arazoak korrespondentzian izanik. Honelaxe dio Piagetek (ELO, 15. or.): *pentsamenduaren psikologiak eta soziologiak funtzionamendu errealean aztertzen dituzten eragiketa gituren axiomatika da logika*.<sup>6</sup>

Hemeretzigarren mendeko bigarren zatiko eta hogeigarren mendeko lehen zatiko logikaren garapenari esker lortu da psikologia eta logika elkarrengandik ongi bereiztea. Halaxe aitortzen du Piagetek. Orduan egindako logika hori «matematikoa» da, zentzu bikoitzean. Batetik, Boole eta haren eskolaren zentzuan, algebra erabiliz logika tradizionala egiteko. Bestetik, Frege-Russellen logizismoaren, Hilberten formalismoaren, Brouwerren intuizionismoaren eta Tarskiren zentzuan, hau da, logika matematikaren oinarrien zerbitzuan jarriz. Piagetek, lehenago aipatu ditudan

---

<sup>6</sup> Honela segitzen du: *La correspondance des problèmes est très claire. D'abord, tous les problèmes soulevés par la formalisation logique peuvent correspondre à des questions psychologiques et sociologiques. (...) Inversement, toute structure atteinte par les opérations mentales de l'individu ou par une coopération interindividuelle soulève le problème logique de sa formalisation possible... Mais, s'il y a ainsi correspondance possible des problèmes, il y a indépendance radicale des méthodes. C'est cette indépendance des méthodes qui, seule, assure, par ailleurs, la correspondance des problèmes.* (ELO, 15. or.)

arrazoiak medio, balio askoz handiagoa ematen dio logika egiteko erabili izan den lehen erari, psikologiarekin harremana bermatzen diolako. Bigarren eratik «axiomatika» nozio lausotu samarra jasotzen du. Falta zaiona logikaren dedukzio ikuspegi argi bat da, bai kalkuluan bai semantikan. Hau, berez, gauza oso larria da, proposizioen barruko nahiz proposizioen arteko eragiketen berri (sarritan, modu bitxi batez) ematea ez baita nahikoa, dedukziorako bideak aztertu eta finkatzen ez badira.

### **Arrazonamendu matematikoa**

Logikaren ikuspegi horrek ez dio uzten Piageti logika eta matematikaren arteko erlazioa ongi planteatzen. Matematikaren «erredukzioa» logikara gai itxia zen Piaget logika egiten hasi zen garairako. Logizismoak eman zituen ematekoak. Intuizionismoaren bidea ez zen matematikan sartu, konstruktibismo forma batzuk zabalpena lortu arren. Formalismoaren helburua lortezina zela frogatu zuen Gödelek. Piagetek ez zuen ezertxo ere esateko esparru horretan. Horregatik, metodo logiko eta matematikoei buruzko «eztabaidan» parte hartu nahi izan zuen. Ez zuen, ordea, ezer substantiborik proposatzeko. Horrela bakarrik uler daiteke bi metodo horiei buruz Piagetek zuen jarrera defenditzeko esandako hau: *logika eta matematikaren autonomia erlatiboa eta bata bestearikiko erredukzio partziala*. Logika behean dago. Matematika, bere konplexutasun eta aberastasunarekin, gainean dago.<sup>7</sup> Erredukzio hitza ez da batere egokia. Baina, okerragoa dena hauxe da: etorkizunean erredukzioa,

---

<sup>7</sup> Eta hauxe dator jarraian: *Mais un tel schéma est naturellement à prendre dans un sens heuristique, en laissant ouvertes les frontières et les possibilités de réduction future. (...) Il se produit alors entre l'inférieur et le supérieur le même double courant d'assimilation réci-*

zentzu batean nahiz bestean, eman daitekeela sostengatzea. Honetan agerian uzten du Piagetek ez logikari ez matematikari ez dela, idatzi zuen garaian idatzi zuelako hori. Erredukzioaren orde, «asimilazioa» erabiltzeak lausoa sortzen du, agian deliberatua.

Ez da harritzekoa, orduan, *Saiakeraren* (ELOren) azken kapituluan arrazonamendu matematikoaz Piagetek dioena hain urrun geratzea arrazonamendu horretaz matematikaren filosofiaren enborrean, historian zehar eta bereziki hogeigarren mendean, eztabaidatua izan denetik. Labur esanda, berak duen logikaren ikuspegiaren menpeko bihurtzen du bere burua eta erreparorik gabe jaurtitzen du ikuspegi hori matematika osora, logika «intentsiboa» aski ez dela esan eta «estentsiboa» ere behar dela seinalatuz (bi terminu horiek, hain zuzen, normalean logikan duten esanahietatik erabat urrun). Argi dago matematikaren barne oinarritzea (analisiaren aritmetikatzea, historikoki Dedekindek bukatu zuena, ondoren Peanok axiomatikara eramanez) ez zuela Piagetek ulertu. Ezta matematikaren oinarrien «krisian» emandako erantzunak ere. Galdetu ere galdetzen du (inolako zentzurik gabeko galdera) ea inferentzia matematikoak proposizioen logikara *erreduzi* daitezkeen (ELO, 368. or.).

Behin eta berriro Fregeren lana ahazten du Piagetek, arrazonamendu matematikoan silogistikak dituen mugak aipatzerakoan. Errekurrentziazko frogaz hitz egiterakoan, indukzio printzipioaren erabilerari buruz esaten dituen gauzak lekuz kanpo daude eta nahasmendua sortzen dute Poincaréren definizio inpredikatiboen kritika eta indukzio infinitu ezin formalizatuaren ideia eta Brouwerren intuizionismo filosofiko-logikoaren artean. Are gehiago hori bera balio askotako logikarekin lotzen denean.

---

*proque qu'au sein de tous les couples de sciences se trouvant dans la même situation...* (ELO, 19. or.)

Silogistika ez da nahikoa arrazonamendu matematikorako. Egokia ere ez horren berri emateko. Oro har, logikaren esplikazioa dedukzio matematikoarentzat ez omen da nahikoa eta ez omen da horrela matematikarien eraikuntza deduktiboen berri ematen. Itxuraz, orokortzea omen da arazoa: logikak eskaintzen omen duen orokortzea.

Piageten ustez logika berriak, silogistikak bezala, zatia eta osoaren arteko erlazioaren berri ematen du; horrekin batera konplementutasunaren berri ere bai. Besterik ez. Eta erlazio *intentsibo* hauetan ez omen da agortzen matematika. Zatitik zatirako erlazio *estensiboak* ere ba omen daude matematikan. Hortik logikaren mugak. Egituren arteko jokia argitzea omen da arazoa. Joki erreala, ez bakarrik formala, kontraesanik ezaren logika estandarra gauza ez omen delako matematikako kontraesanik eza azaltzeko.<sup>8</sup>

Piageten *Saiakera* liburuaren (ELOren) azken paragrafoa kontuan hartzekoa da, bukatu bukatzen duelako logika klasikoaren aurkako esaldi batekin eta, itxuraz, berak azaldu nahi izan duen logikaren laudorioarekin. Logika estandarra pobreegia omen da matematikara aplikatzeko

---

<sup>8</sup> Hitzez hitz honelaxe dio Piagetek: *L'interprétation dictée par le schéma usuel de la «forme» logique et du «contenu» non encore formalisé logiquement tendrait à faire du non-formalisable une réalité extralogique et même, en principe, suspecte de paralogisme, puisqu'échappant partiellement à la juridiction considérée comme absolue, du principe logique de non-contradiction. Mais on peut concevoir une autre interprétation tout aussi légitime : les structures arithmétiques pourraient bien constituer des formes plus riches que les formes logiques et ces dernières ne parviendraient alors pas davantage à englober les formes supérieures à elles que la partie n'est apte à s'intégrer le tout ; en ce cas, la non-contradiction de l'arithmétique ne saurait être démontrée dans l'arithmétique, non pas parce que l'arithmétique contiendrait des propositions ni vraies ni fausses (relativement aux opérations arithmétiques elles-mêmes), mais parce que la non-contradiction logique serait d'une espèce trop peu affinée pour s'appliquer adéquatement à la non-contradiction mathématique.* (ELO, 387. or.)

eta gauza ez omen da edonola aberatsago bihurtzea. Pent-  
samenduaren (kasu honetan pentsamendu matematikoaren)  
dinamismo errealekin kontaktuan segi nahi badu, identi-  
tatean eta konplementutasunezko kontraesanik ezan jartzen  
dituen oinarriak gainditu egin behar omen ditu, eragiketa  
mekanismoen itzulgarritasuna ematen duen printzipio erre-  
gulatzaile orokor baten alde eginez. Ez da bukaera txarra  
berak printzipio moduan defenditu duena defenditzeko.  
Asmoak asmo, ordea, Piagetek ez zuen asmatu logikan  
lan ona egiten, logika psikologiatik zuzen bereizi ondoren,  
psikologian lortzen zuena logikan formalizatzeko gauza  
izan ez zelako. Ez zuen lortu arrazonamendu matema-  
tikoaren muinean dauden arazoez jabetzea ere, eragiketen  
egituraz kezkatuagoa zegoelako arrazonamendu beraren  
nondik norakoaz baino. Bide bat zabaldu zuen episte-  
mologia egiteko, psikologiaren gainean. Bide hori bera  
erabiltzen ez bada ere, gaur zientzia kognitiboan horixe da  
oinarri-oinarrizko jarrera teoriko eta praktikoa.

### **Erreferentzia bibliografikoak**

- BETH, E.W., 1950, À propos d'un «Traité de Logique». *Methodos* II (6-7): 258-264.
- GRIZE, J.-B., 1987, Operatory logic, in: Inhelder, B., A. de Caprona and A. Cornu-Wells (eds.), *Piaget today*. London: Erbaulm.
- KNEALE, W. and M., 1962, *The Development of Logic*. Oxford: Clarendon Press.
- PIAGET, J., 1949, *Traité de Logique. Essai de logistique opératoire*. Paris: Armand Colin.
- PIAGET, J., 1972, *Essai de logique opératoire*. Paris: Dunod.

**HIRUGARREN ZATIA:**

Itzulpenak



## 8

### ADIMENA, BALIOAK, IKERKETAREN FILOSOFIA

*Richard Evans eta Jean Piaget*

**Evans:** Alda dezagun momentuz gaia. Estatu Batuetan eztabaida interesgarria dago Kaliforniako Unibertsitateko Dr Arthur Jensenen txosten bati buruz (1969). Txosten hori *Harvard Educational Review* izeneko aldizkarian argitaratu da. Jensen doktoreak Estatu Batuetan *Programme Headstart*<sup>1</sup> esaten dioguna kontuan hartzen du eta uste du horren porrota ez dagoela agian ingurune defaboretuetan hazitako haurren ingurunea behar bezala zabaltzeko irakasleek duten ezintasunean. Haren ustez benetako arazoa haur beltzen genetika mailako gutxiegitasun posibleetan datza. Haren irudiko, nahiz adimen mota batean —adimen konkretuan gehienbat— beharbada ezberdintasunik izan ez, balegoke adimen abstraktu mota bat okerrago garatua izango litzatekeena haur beltzeengan, arrazoi genetikoak medio. Zer uste duzu?

**Piaget:** Bi ohar dauzkat. Lehenbizi, begien bistakoa da faktore genetikoek adimenaren garapenean badutela

---

<sup>1</sup> Programa honen helburua familia pobreetako haurrei laguntzea zen, batez ere gaur afroamerikar esaten diegunetakoei, eskola atzerapenak gutxiagotzeko asmoz (*ohar hau itzultzailearena da*).



eragina. Baina egin dezaketen guztia ahalbide batzuen sorrerara mugatzen da. Faktore genetikoek ez dute zer ikusirik ahalbide horien gauzatzean. Honek esan nahi du gizakiaren gogoan ez dagoela bat-batean bertan kokatzen den sortzerik gabeko egiturarik. Gure elkarrizketa osoan zehar azpimarratu dudanez, gure gogo egitura guztiak eraiki egin behar dira. Horrela, ba, faktore genetikoak edo heldutasun mailako gaiak ez dira nahikoa aldi bakoi-tzean benetan gertatzen dena esplikatzeko.

**Bigarren oharra:** Nola neurtzen du Jensenek adimena? Performantzia emaitza batzuk sinpleki oinarritzat hartuz edo konpetentzia, barne egitura, hauteman nahi dugu? Beldur naiz oso horrelako azterketetan beti emaitzak neurtzera jotzen dela eta begien bistakoa da emaitzak aldatu egingo direla gizarte ingurunearen arabera. Ni neuk ez dut inolako uste onik adimen kozianteetan oinarritutako neurrietan edo performantziaren beste edonolako neurritan ere. Oro har, beraz, Jensenen ondorioa oso eztabaidagarria iruditzen zait.

**Evans:** Adimenaren neurketaren aitzindari izan ziren Bineten eta Simonen taldearekin Parisen zinenean, badakit zu zeuk ere arlo horretan lan egin zenuela. Ez al zinen garai horretantxe hasi Binetek eta Simonek adimena neurtzeko erabiltzen zituzten premisa batzuk zalantzaz jartzen?

**Piaget:** Bai. Jakina denez, Parisera iritsi nintzenean ikasle gisa, Binet hila zen, baina Simonek Burten adimen testen frantsesezko bertsio normalizatu bat egiteko enkargua eman zidan. Hasiera beretik harritu ninduen ez zen izan haurraren erantzuna, erantzun faltsuen zergatia baizik. Ni hasi nintzen bilatzen ea zergatik haurrak ez ziren gai gauza batzuk ulertzeko —adibidez, zatien inklusioa osoan—. Hor, testen estandartzea baino arazo askoz interesgarriagoak zeudela konturatu nintzen.

**Evans:** Beste era batez esanda, alderdi kualitatiboek eman zioten hasiera prozesu guzti horri.

**Piaget:** Horrelaxe da. Hau ez da Binet-Simonen testen kritika. Test hauek zerbitzu handia eskaini dute. Baina arazoak sortu ere bai. Esate baterako, Binet-Simon eskalan haurrak hamar bat urte dituenean jabetu egin behar du pisuen seriatzeaz, luzerenenaz zazpi bat urterekin egiten duen bitartean. Zergatik ezberdintasun hori? Arazo liluragarria. Hain zuzen, emaitza estatistikoetara mugatu beharrean, horixe zen nik aztertu nahi nuen arazo mota.

**Evans:** Goazen orain beste esparru batera. Piaget doktorea, zure obran aztertu dituzun arazo orokorrei begiratu, nik uste dut zeure iritzia ematea oso interesgarria litzatekeela. Zein da, zure ustez, zeure ekarpen esanguratsuenena?. Galdera hau konplikatu da, zure lanek filosofian, matematikan, psikologian ekarpenak egin dituztelako. Baina, zure obra osorik hartuta, zein ekarpen iruditzen zaizu garrantzitsuenak?

**Piaget:** Ba, nik uste dut gehienbat nire egitekoa arazo batzuk eraikitzea izan dela -diziplinarteko ikuspuntu honen faltan, beste ikertzaile batzuei ihes egin zaiena. Garapena perspektiba epistemologiko batetik hartuta, arazo mordo bat azaltzen da argi, begien bistara, eta harrigarria gertatzen da nola inork ez dituen lehenago ikusi. Har dezagun kontserbazioaren adibidea. Hain da bistakoa: duela belaunaldi asko horren kontzientzia izan behar genuen, baina ikuspegi epistemologikoa heldu arte zain egon behar izan dugu.

**Evans:** Honek beste galdera batera garamatza. Epistemologia bezalako sistema filosofiko ez-enpiriko batek sistema psikologiko enpiriko batera pasatzeak —zuk epistemologia genetikoaren esaten diozuna— ez du simplea izan behar. Zein dira diziplinarteko joan-etorri honetako zailtasunak?

**Piaget:** Erantzutea ez da erraza. Baina ohar batzuk dauzkate egiteko. Epistemologo guztiek, edozein eskola-koa izanda ere, inplizitoki dei egiten diote psikologiari. Kontsiderazio psikologiko guztiak uxatu nahi dituztela

esaten dutenean ere, honek posizio psikologiko bat hartzea esan nahi du. Positibista logikoek psikologiari ihes egitea posible dela diote, logika hizkuntzara, sintaxi orokorrera eta semantikara erreduzi daitekeela sostengatuz. Beraiek diotena dioten arren, posizio psikologikoak hartu dituzte. Ez dezagun ahaztu hipotesi psikologiko inplizito guztiak egiaztatuak izan daitezkeela eta hala izan behar dutela. Egiaztatze hau falta zaio epistemologiari eta filosofiari. Egiaztatzearen eremuan sartzen garenean betiko arazoak tratatzen ditugu, baina zehatzago bihurtzen dira. Gertaerek horiek argitzen laguntzen dute.

**Evans:** Sistema filosofiko batetik sistema psikologiko batera pasatzean aurkitu dituzun zailtasunen artean aipa ditzagun zure ikerketa metodoari buruzko kritikak. Psikologiaren «esperimentu eskema» tradizionala honetan datza, hipotesi bat jarri eta egiaztatu, era bat baino gehiagotan egin daitekeena. Maiz, zeure ikerketa proiektuek ez dute eskema tradizional hau segitu eta horrek kritikak sortu dizkizu. Nola erantzungo zenioke honi?

**Piaget:** Ahal dudan erarik sinpleenean. Eman dezagun ikertzaile batek haurraren garapenaren eremuan esperimentu bat aitzinikusi duela; aurretik hipotesi bat formulatu du eta, bere esperimentuan, hipotesi hori ona edo txarra den jakiten saiatuko da. Horrelako egoera batean guztia kanalizatua dago, elementu bakoitzak alde aurretik jarritako eskema batean integratu behar du. Neure arazoa haurren eta helduen arteko ezberdintasunak, edo estadio batetik besterako ezberdintasunak aurkitzea zen. Ezberdintasun hauek determinatzeko askatasun handienarekin jokatu behar da, miatu egin behar da. Has tapenean plangintzatu egiten bada, dena faltsutzen da. Benetan interesa duen guztia baitezpada aitzinjarritako proiektu orotik kanpo dago. Zerbait berria bilatzen dudalako ez daukat hain zuzen esperimentu eskemarik. Niretzat, esperientzia bat ongi ateratzen da espero ez den zerbait ematen duenean. Orduantxe bihurtzen da pizgarria.

**Evans:** Konforme al zinake zure obra hipotesi esana-hi-emaileen produkzio moduan ikusiko balitz?

**Piaget:** Horixe zen nire helburua.

**Evans:** Ezberdintasun agerikoa dago hipotesien bila ibiltzearen eta horien egiaztatzearen artean. Honek ikerketa induktiboaren eta ikerketa deduktiboaren arteko kontrastera eramaten gaitu, ebatzia ez den arazo batera, jakina. Hurbilpen induktibo bat hartuz, hurbilpen deduktibo guztiak baztertzen al dira?

**Piaget:** Ez beti. Bien artean harreman garrantzitsuak daude. Nire lanetan beti saiatu naiz —sarritan lankideen laguntzarekin— egitura batzuk formalizatzen. Formalizazio hauetatik abiatuz, egitura hauen dedukzioak egin daitezke eta dedukzio hauek askotan ikuspuntu berriak eta esperientzia induktibo berriak sortarazten dituzte. Elkarrekintza dago.

**Evans:** Zure obrari eskainitako liburu berri batean (1969) Phillips psikologo amerikarrak zure metodoaren kritika egiten du. Harvard Unibertsitateko Robert Rosenthalen lan berriak (1966) hartzen ditu oinarritzat, hark sostengatzen baitu ikertzaileak espero dituen gauzek emaitzetan eragina izan dezaketela. Hor hipotesiek jadanik beren konfirmazioa daramate. Rosenthalek sostengatzen du gure ikerketen zati handi batek haxe egiten duela, bilatzen duguna aurkitu, ez dugula behar bezala haintzat hartzen ikertzailearen alde zureko posizio hartua. Phillips doktoreak uste du kritika hauek zure lan batzuei edo zure taldeko batzuei aplikatzeko modukoak direla. Zer uste duzu honetaz?

**Piaget:** Uste dut oker dagoela. Ikerketan indukzioari eta dedukzioari buruz esan berri dudanez, ni hipotesi minimoetatik abiatzen naiz. Emaitzak argitaratzen direnean, arakatu egiten dira eta orduan mugatzen da hipotesien eta gertaeren arteko lotura. Baina, gehienetan ni hipotesi oso inkompletoetatik abiatu naiz, batzuetan faltsu ere suertatu direnak. Gertaerei sinpleki segituz, heldu izan

naiz aitzinikusia nuen guztitik zeharo ezberdina den gauza batera.

**Evans:** Laburbilduz, zuk diozu ezin zaizula salatu zeure ikerketetan aldez aurreko posizioa hartzen duzunik, ez baituzu aldez aurreko posiziorik.

**Piaget:** Bai, halaxe da gutxi gorabehera.

**Evans:** Hau hipotesien formalizazio graduaren funtzioan egongo da.

**Piaget:** Bai.

**Evans:** Zure ustez zeure obran egin duzun ekarpenik garrantzitsuenaz galde egin dizudanean, ez dituzu garapen moralari buruzko hasiera hasierako lanak aipatu. Badakizu amerikarrak hain daude moralitatera emanak, zure lanetan horietxetan bereziki daude interesatuak. Errepasso bat eskainiko zenioke eremu horretako ikerketen puntu nagusiei?

**Piaget:** Ontasun jainkoarra, benetan historia zaharra da! Egun batean, lankide batek hauxe esan zidan: «Gertaerak eta frogak oso ongi daude, baina zer pasatzen da balioez hitz egiten dugunean? Ohar hauek eman zioten lehen bultzada haurren juizio moralari buruzko nire lanei. Beraz, nik juizio morala juizio logikoarekin paraleloan aztertu nuen. Betiko eran, hasieran hipotesiak ebitatu, espero ez nituen gauzak aurkitu nituen: adibidez, zazpi urte ingurura arte obedientzian eta autoritatean oinarritutako jokabide moralaren eta gero, justizia ideia eratzen hasten denean, kooperazioan oinarritutako jokabide moralaren arteko ezberdintasun handia. Justizia ideia hau ez da zimendatzen helduaren autoritatearen gainean eta sarritan autoritate horren kaltean agertzen da. Haurren beraien arteko berdintasun harremanetan oinarritzen da. Bazirudien honek guztiak paralelismo bat zuela estadio aitzinoperatzailearen garapenarekin eta juizio logikoaren eremuko eragiketa zehatz eta formalen estadioarenarekin.

**Evans:** Orain beste alderdi batera pasa nahi nuke, beharbada pertsonalagora. Badakit zeure bizitza abera-

tsean gizaki handi askorekin izan duzula harremana. Galde egin al diezaizuket zein miresten dituzun gehien?

**Piaget:** Einsteinek sakon markatu ninduen, guztiaz interesatzen zelako. Gure kontserbazio esperientziei buruz galdetu zidan eta harrituta geratu zen kontserbazio nozio hori garapenean hain berandu datorrela jakin zuenean. Honek argitu egiten zion pentsamendu arrazionala lortzeko dagoen zailtasun izugarria.

**Evans:** Einsteinez aparte, ba al da beste pertsonalitate garrantzitsurik berarekin topatzerakoan markatua sentitzeko modukorik?

**Piaget:** Gogoan daukat elkarrizketa oso aberasgarri batzuk izan nituela Oppenheimerrekin. Pertzepzioaren egitekoaz izan zen. Hasieran ez zuen ulertzen zer esan nahi nuen hauxe nioenean, pertzepzioa ez da guztia, ekintzara subordinatuta dago. Baina, subordinazio honek pertzepzioaren eginbideak indartzera zetorrela azkenik ulertu zuenean, orduan neure ikuspuntuaren alde jarri zen. Elkarrizketa hauek asko eman didate. Pizgarria zen hainbeste garrantziko gizon bat ikustea bere esparrutik kanpoko arazo batean gogoeta egiten eta haren gogoeta faseak bereiztea.

**Evans:** Estatu Batuetara eta mundu osora egindako bidaiatan ikasle eta irakasle asko topatu dituzu. Ez zaituzte beti ulertu. Zein dira zeure ustez zure obran dauden gaizki aditutako gauzak?

**Piaget:** Bereziki gaizki ulertua izan dena eraikuntza nozio funtsezkoa izan da, hau da, ez subjektuan ez objektuan izaterik gabeko egitura berriak direnaren eta eraiki egiten direnaren ideia. Nire lagun Berlynek (1965) artikulu bat idatzi zuen ni neo-behaviorista naizela esanez, eta horretarako oinarria ezagupen fisikoaren izaerari buruzko nire tesietan hartu zuen, eta abar. Lau urte geroago, Montereyen izandako sinposio batean, Beilinek hitzaldi batean neo-maturazionista nintzela esan zuen eta

nire ideietan pixka bat barneratuz gero guztia innatoa, guztia barrutik datorrela aurkitzen omen da.

Ba, ni ez naiz ez bata eta ez bestea. Guztia barrutik dator, jakina, baina erregelatze eta eraikuntzaren bidez. Berriaren eraikuntza ideia hau da ulertarazteko zailena.

**Evans:** Zure ideietatik abiatzen direla esaten duten ikerketa proiektuak eta zeuri gaizki etorriak eta atsegabeak iruditzen zaizkizunak ezagutu al dituzu?

**Piaget:** Zoritxarrez, maiz gertatzen da.

**Evans:** Adibide zehatzak emango zenituzke?

**Piaget:** Ez, ez, ez datozkit gogora. Baina lan haue-tako batzuen akats nagusia honetan dago, nire lana eta nire ideiak zatitu egin dituzte. Jendea errebertsibilitatea ikertzeraz sartzen da eta axolagabe ahaztu egiten dituzte gaiaren beste alderdi guztiak. Kontserbazioa aztertzen dute eta egiturak axolagabe ahaztu. Eraikuntza nozioaz gain, nire beste ideia nagusia hau da: eraikitzen diren egiturak egitura osoak dira. Honek esan nahi du estadio jakin batean eragiketa ezberdin guztien artean elkarrekin-tzak daudela. Beraz, eragiketa bat aztertzea beste elementuetatik isolatuz proiektu osoa faltsutzea da.

**Evans:** Honek esan nahi al du aldizkarietan argitaratutako eta zure obraren ondorio gisa agertutako ikerketen zati handi batek gaizki ulertu handienak eta beste ikerketa zorigaiztokoak sortarazteko arriskua duela? Beste hitzekin esanda, borobilean bueltaka eta alfer samar.

**Piaget:** Nahi baduzu.

**Evans:** Zertan ari zara lanean gaur egun? Zein dira etorkizunerako zure ametsak?

**Piaget:** Ene! Proiektu berriak beti alde aurretik ikusi gabeko arazoetatik datoz. Azken urteotan kausalitatea aztertu dugu. Gure ikuspuntua asko aldatu da.

Gaur arte beti subjektuaren eragiketaz aztertu genituen. Baina kausalitatea aztertzerakoan objektuekin egiten dugu lan eta subjektuaren ulerpenari oposizioa egiteko horiek jartzen duten erresistentziaz arduratzen

gara. Eta, alta, guk ikusi dugu kausalitatearen garapenak dituen estadioak konparagarriak direla garapen operatzaileak dituenarekin, salbu kasu honetan eragiketak objektuei zaizkiela atribuitzen. Hau da, objektua egile operatzailearen moduan hartzen da, beste objektuetan operatzen duena, eta abar. Eragiketak objektuei atribuitzen bazaizkie, orduan goititzen den arazoa hauxe da: gure ekintza propioen egitekoa zein den eta gure ekintza propioen ezagutza nola hartzen den. Nola aurkitzen ditu haurrak bere ekintza propioetan alde batetik objektuen arteko kausalitate harremanak eta beste aldetik gogo eragiketak? Horra arazo berri bat: bi abstrakzio moten arteko harremana, abstrakzio batzuk objektuetan oinarrituta, besteak ekintzetan. Bi abstrakzio mota hauen arazoan murgilduta gaude eta oraindik ez dakigu honek nora eramango gaituen. Hain justu, urritik aurrera jaso ditugun datuak aztertzen ari naiz. Hau guztia ez zen batere espero eta beste horizonteak irekiko dizkigu. Horregatik, nik ez dut etorkizunerako proiektu zehatzik<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Geroztik, gainera orokortze prozesuak, «morfismo» edo korrespondentzien eboluzioa eta «possible»etara irekitzeko era ezberdinak aztertu ditugu.





## 9

### ZER GARRANTZI DU PIAGETEK?<sup>1\*</sup>

*Margaret Boden*

Centre for Research in Cognitive Science  
University of Sussex

Hainbat eratan interpreta daiteke *Zer garrantzi du Piagetek?* galdera. Lehenengoa, historia intelektualaren gai gisa: *Izan al du eraginik?* Galdera horren erantzuna ez da hainbeste esan zuenaren arabera, gehiago da esan duela gehienez uste denaren arabera, eta inola ere ez esan zuena zuzena ote zenaren arabera. Bigarrena, galdera bat, zeinaren erantzunak erabakiko lukeen haren eragina zoritxarrekotzat edo ontzat jotzen duen batek: *Garaikideenak baino zuzenagoak al ziren haren ikuspuntuak?* Hirugarrena, norberaren ulertze maila historikoari dagokion galdera, harenari baino gehiago. Galdera horren erantzuna aldatu egin daiteke, printzipioz, aurreko galderari emandako erantzuna gogoan izanda: *Zuzen al zebilen?* Eta laugarrena, egun duen garrantziari buruzko galdera, ez garrantzi historikoari buruzkoa: *Egun hutsetik hasi behar duen bati, hura psikologiari egindako ekarpen iraunkorretik hasita irakurtzea aholkatu behar al zaio?*

---

<sup>1</sup> \*Testu hau 1979an argitaratu zuen Bodenek *Piaget* izeneko liburuan, hain zuzen bukaerako 8. kapituluari. Itzulpen hau Larraitz Zubeldiak egin da.

Honako hauek dira lau galdera horiei dagozkien erantzunak, hurrenez hurren: *Bai, oso; Bai; Bai eta ez; eta Bai, baina...* Aurreko kapituluetan daude inplizituki erantzun horiek eta horien nolakotasunak, baina onuragarria litzateke esplizitu egitea ondorioan, Piageten lanaren sendotasuna eta ahulezia laburbildu eta alderatu ahal izateko.

Eragin ikaragarria izan du psikologian Piagetek, bereziki bere azken urteetan. Ordurako oinarri filosofiko batera aldatuta zegoen amerikar psikologia esperimental. Gehiago zetorren bat haren hurbiltzearekin oinarri hori, mendearen lehenengo erdiko behaviorismo positibista baino. Argi dago, gero eta eragin handiagoa duen psikologo «ekologisten» eskola bat dago. Haur jaioberria (eta heldua) munduaren pertzepziozko aurkitzean dagoela sartuta erabat uste dute, ez hori intelektualki eraikitzean<sup>2</sup>. Baina euren aurkari teoriko garrantzitsuentzat hartzen dute Piaget, eta gure ezagutzaren oinarriak ematen dituzten heredatutako egitura edo mekanismo biologikoetan jartzen du bere enfasia eurentzat. Ez ditu beti onartzen Piageten psikologiaren ezaugarri epigenetikoak haren idazlanak ondo ezagutzen ez dituen jendeak. Beraz, batzuetan pentsatzen da hark esan zuela aurrez eratu eta garatzen direla garatzealdiak, helduaren bidez, edo ingurumen baldintzek eragiten dituztela, eta ez direla sortzen haurraren munduarekin duten elkarrekintza dialektikoaren bidez. Oker ulertutako ideia horietako edozeinetan oinarritutako heziketa programek (esaterako) benetan aldarrikatuko dute Piagetengan oinarritu direla, baina gaizki ulertu dute haren jarrera.

Eragin oso txikia izan du Piagetek biologian. Ulergarria benetan. Izan ere, bere ikuspuntu ez-ortodoxoak ez

---

<sup>2</sup> J. J. Gibson, *An Ecological Approach to Visual Perception* (Houghton-Mifflin, 1978).

zeuden biologo teorikoen arreta erakartzeko bezain argi azalduta; gainera, kontuan hartuta aldarrikapen biologiko onartezinak ere egin zituela. C. H. Waddingtonek ere, zeinaren biologia epigenetikoari dion Piagetek begikotasun handiena, baztertu egiten ditu Piageten funtsezko aldarrikapenak (esaterako, logikaren bilakaeraren halabeharrezkotasun biologikoa). Hala ere, ardatz nagusian, bat dator Piageten hurbiltzea biologia modernoaren garapen nabarmen batzuekin.

Filosofian ere ez du lortu Piageten lanak hark espero zuen aitorpena (nahiz eta biologo baino filosofo gehiagok irakurri duten). Ez dagokie hainbeste bere idazlanetako iluntasunei eta logikako okerrei, baizik filosofia doktrina arruntari, zeinaren arabera psikologia teorikoak, enpirikoki oinarritutako diziplina gisa, ezin duen garrantzirik izan gai erabat filosofiko, epistemologikoentzat. Batek pentsatzen badu, Piageti jarraiki, ezin direla garbi bereizi gai psikologikoak eta epistemologikoak, baliteke batek deitoratzea haren eragin filosofikoa handiagoa ez izana. Etengabeko tradizio filosofikoan kokatuta dago tinko, zeinaren baitan Kant den bere hurbileneko kide intelektuala. Baina Kant Hume enpiristari mintzo zitzaion bezainbeste mintzo zaio Piaget Kant natibistari, kantiar epistemologian baztertuta zeuden garapen gaietan konzentratzea eskatuz.

Hasierako eta erdialdeko urteetan zehar, behavioristak ziren Piageten garaikide psikologiko nagusiak, gestaltistak eta freudiarrak. Atzera begiratuta, batek esan dezake ikaste teoria behaviorista baino sakonagoak eta emankorragoak zirela hura egiten ari zen galderak, eta ematen ari zen erantzunak. Egitura psikologikoari buruzko ideiak, buru operazio eta aldaketa kognitiboek buruzkoak eta sortzetiko printzipio kognitiboek buruzkoak, zeintzuen arabera antolatu eta ikasten duen haurtxoak bere esperientziatik, guztiak ziren garrantzitsuak, eta teoria behavioristaren guztiz kontrakoak. Ges-

taltistek eta freudiarrek, biek zuten hark gogo egiturari buruz zuen kezka, eta bat zetozen harekin esatean teoria psikologikoak kontuan hartu behar zituela introspektziora eramanezin diren gogo prozesuak. Baina gestaltistek baztertu egiten zituzten garapen kognitiboaren arazoak; freudiarrek (garapenari buruzko gaietan zentratzen zirenek), aldiz, arreta handiagoa jartzen zuten emoziozko eta motibaziozko fenomenoetan kognizioan baino. Nolanahi ere, Freudek gauza gehiago esan zuen psikologia kognitiboaren errealitatearen gainean Piagetek psikodinamikaren gainean baino, nahiz eta Piagetek leku bat egiten duen motibazioarentzat eta emozioarentzat bere sistema teoriko osoan<sup>3</sup>.

Askotan azaltzen da azken puntu hori gaur egun Piaget ebaluatzerakoan. Gogoaren giza eta motibazio alderdiak baztertzea egotzen zaio, normalean. Halako neurri batean, galduta dago kritika hori, inork ezin baitu guztia egin, eta defendatzeko modukoa da batek erabakitzea fenomeno kognitiboan kontzentratuko dela, eta ez motibaziozkoan. Puntu bateraino, gauza bera esan liteke psikologiaren gizarte alderdiei kontrajarritako alderdi indibidualei buruz. Baina bada puntu bat kognizioa, edo ezagutza, aztertzeak giza faktoreei arreta eskatzen diena. Esate baterako, amaren eta haurtxoaren arteko elkarrekintza pertsonalak, haurtxoa hizkuntzaz jabetu aurretik eta jabetzen ari dela, oraindik orain bihurtu dira garapenari buruzko azterketaren gune, eta antolatze kognitiboan duten funtzioaren inguruko egungo galderak ez dira atera piagetiar hurbiltze zehatzetik. Oraindik garrantzitsuagoa dena, ezagutzari lotuta dago hertsiki hizkuntzaren gi-

---

<sup>3</sup> Ikus P. A. Cowan, *Piaget with Feeling: Cognitive, Social and Emotional Dimensions* (Holt, Rinehart & Winston, 1978); Piageten gehiegizko «kognitibismo»aren kritikarako, ikus D. W. Hamlyn, *Experience and the Growth of Understanding* (Routledge & Kegan Paul, 1978).

zarte fenomenoa (heziketa erakundeen baitakoa nahiz kanpokoa), eta batek espero dezake psikologo kognitiboak arreta handia jarriko diola horri. Alabaina, hizketa egozentrikoaren gainean egindako hasierako lana salbu (orain aho batez onartzen da nahasia dela neurri handian), ez du aztertu arretaz hizkuntza Piagetek. Piagetiarrek, noski, uste dute hizkuntza baino lehenagokoak direla ezagutzaren oinarrizko antolatze printzipioak, orobat egitura logikoak; eta ez alderantziz. Eta aldarrikapen teoriko horrekin lotutako azterketa egin dute (adibidez, haur gorren garapen kognitiboari buruz). Baina gogoan izanda Piageten azterketa askotarikoa eta ugaria dela, harrigarria da nola ez zioten arreta handiagoa jarri hizkuntzari fenomeno kognitibo gisa, horri dagokionez Piagetek duen jarrera teorikoa gorabehera. Gizarte izaerari garrantzia gutxiagotu arren, osokiago aitortu beharko lukete hizkuntzak duen garrantzia gizabanakoarengan (edo subjektu epistemikoarengan), eragin kognitibo gisa.

Oraintsuko ikerketa esperimentalak erakutsi du oker zebilela Piaget puntu askotan; hala nola, haurrek, adin jakin batean, gaitasunik ez izatean pentsamendu «aurreratuago» bateko hainbat mota gauzatzeko, edo pentsamendu horien aurrekariak gauzatzeko (adibidez, P. Bryantek adierazitako pertzepzio bidezko inferentzia iragankorrak). Eta helduak, aldiz, ez dira batek, Piageten teoriak jarraiki, espero dezakeen bezain logikoak euren arrazoitzearen gehiengoan. Ilogismo hori ez da ohartasun falta hutsa edo hutsegitea, baizik oinarrizkoa da konplexua den eta etengabe aldatzen ari den munduan funtzionatzen duen adimenean. Garrantzi epistemologikoa eta psikologikoa du, hortaz. Gero eta zalantza zago bihurtu da aldien kontzeptua, eta egungo psikologo askok ukatu egingo lukete adimen sensoriomotor mota desberdin bat dagoela, zeinaren printzipioak haurtxoaren adimenaren erabat bestelakoak diren. Baina batek ez luke ahaztu behar esperimentu

horietako asko (baita teknika oso berrien ezagupena har dezaketanak ere) ez zirela egingo Piageten lehenengo-lehenengo aldarrikapenengatik izan ez balitz. Konjetura eta errefutazio prozesu gisa deskribatu dute zientzia —eta norbaitek sortu behar du aurretik konjetura, inork errefutazioa eman ahal izan dezan.

Puntu zehatzetan egindako hutsegiteak baino eragozpen garrantzitsuagoa da Piagetek egindako akats orokorra azalpen teoriko alternatiboen aukera aintzat ez hartzean, eta bere esperimenduak horiek baztertzeko bezain arretaz prestatzean. Maizegi, baita bere azkeneko ikerketan ere, hain era informalean aurkeztutako ebidentzian oinarritzen da Piaget, non ia anekdotikoa den izaeran. Hala, Bryantek, esaterako, ez du zalantzan jartzen ez Piageten oharrik, ez horiek bat datozen Piageten teoriarekin; baina zalantzan jartzen du aldarrikapen bat, Piageten teoriak bakarrik eman dezakeela horien berri. Gainera, uste du bere esperimendu arretatsuek, arretaz pentsatutako esperimenduzko kontrolak dituztenek, bere jarrera teorikoa berresten dutela eta erakusten Piagetenak erabat faltsuak direla. Bryanten kasua onartu edo ez, batek nahiko luke Piageten esperimenduen eta teoriaren arteko kontzeptuzko erlazioak lotuago egotea.

Neurri batean, erlazio horiek lotuagoak ez direlako da posible, askotan, Piageten aldarrikapenak zuzentzea ebidentzia berri, itxuraz kontraesana dakarren bat kontuan hartzeko. Baina baliteke, batzuetan, gogorregia iruditzea aukera hori erosotasunerako; iradokiz bere teoria oso dela lausoa, ezin egiaztatu ahal izaterainokoa. Esate baterako, bere aldarrikapenak —hau da, adimen normala duten gorputz-adarrik gabeko haurtxoak ez direla oinarritzko erronka berak garapen sensoriomotorrari buruz dituen ikuspuntuentzat—, edukia kenduta bakarrik berreskuratu ahal izateko arriskuan jartzen du bere teoria. Hala eta guztiz ere, ezin da ukatu garapen sensoriomotorrari buruzko bere azalpen teorikoa heuristiko

sendoa izan dela arazo psikologikoak formulatzeko eta azterketa enpirikoak sustatzeko, arlo horretan.

Azkeneko zentzu horretan egiten dut nik ere oreka bere nozio zeharo lausoaren indar heuristikoen alde. Era askotako arazo psikologikoak (eta biologikoak) batzeko erabili du nozio hori, eta psikologoak bultzatzeko fenomeno psikologiko guztien ingurura (kanpokora eta barrukora) egokitzera eta hori aldatzeko elkarrekikoak eta autorregulaziozkoak diren prozesuak bilatzera. Oro har, *feedback* zibernetikoarekin identifikatzen du autorregulazio psikologiko hori; eta ikusi dugu *feedback* hori ez dela egokia, bere zentzu tradizionalan, prozesu horiek adierazteko. «Feedback»a edo «oreka» hedatu (batzuek ordezkatu esango lukete) egin beharra dago psikologia kognitiboak, orain dela gutxi, adimen artifizialaren eta konputazio teoriaren testuingurutik hartutako informazio prozesatze kontzeptuekin.

Gero eta eragin handiagoko indarra da hurbiltze konputazionala egungo psikologian, nahiz eztabaidatua izan oraindik, eta Piagetek hainbatetan adierazi du begiko duela. Ikuspegi horretatik begiratuta, laudagarria da Piageten teoria, auto-eratzeko buru egituretan eta aldaketa kognitiboetan arreta «kantiarra» jartzen duelako, eta behin eta berriz errepikatzen dituelako eguneroko (baita haurrenak ere) psikologiaren fenomenoak azpian dituen konplexutasunak, introspektiboki sinpleak direnak. Baina egungo (informazioa prozesatzearen) konplexutasun psikologikoak handiagoa izan beharra dauka oraindik, eta hori adierazteak —oraindik lortzeko dagoenak— Piagetek berak erabiltzen ez dituen kontzeptuak (nahiz eta piagetiar batzuek erabiltzen dituzten) eskatuko ditu. Esan nahi baita, kontzeptu konputazional zehatzak eskatuko ditu, eta horien arabera formulatu, plan baten arabera eratu eta ebaluatu ahal izango dira teoriak eta esperimentuak. Dena dela, oraintsu sortutakoak izaki (eta egungo garapenaren egoeran desegoki samarrak oraindik go-



goaren aberastasunerako), anakronikoa litzateke Piageti (jada laurogeita hiru urte ingurukoa) aurpegiatzea ez zituela erabili. Gaiari gehiago lotzen zaiona da orekatzearen gainean egiten zuen interpretazio zibernetikoa (baita gogoaren inplikazio egituretan jartzen zuen arreta formalista ere) bat zetorrela funtsean hurbiltze berriago —eta potentzialki emankorrago— horrekin.

Laburtuz, kritika guztiak gorabehera, ikuspegi psikologiko eta espekulazio teoriko asko dago aurkitzeko, eta jakin-mina pizten duten oharpen enpiriko eta esperimentu ezinago zorrotz ugari, Piageten lan aitzindarian. Heziketa, garapen eta kognizio psikologia, guztiak ukitu ditu bere pentsamenduak. Eta psikologiaren testuinguru zabalagoa interesatzen zaienez, arazo garrantzitsuak eta oraindik konpondu gabekoak dakartza zientzia indibidualen arteko (adibidez, biologia eta psikologia) harremanaz, zientziaren eta filosofiaren artekoaz eta ezagutzaren eta jakinduriaren artekoaz. Arazo zientzifikoak eta filosofikoak zorrotz bereiz daitezkeela uste dutenek ere (nire ustez, oker) azalpen epistemologikoa eskura dezakete hark espazio, denbora, kausa eta objektibotasunaren gaineko haurren ezagutza garatzeari buruz ematen duen esplikaziotik —izan ere, hark esan beharrekotik askok lagun dezake, beharbada, horien moduan filosofikoki oinarritzko diren kontzeptuen analisi kontzeptuala egiten. Beraz, honako hau esango lioke batek egun azterketa psikologikoak eta epistemologikoak erakartzen duen norbaiti: «Irakurri Piaget. Gogoan izan normalean lausoa dela eta askotan oker dabilela, eta badirela egitura eta prozedura konplexutasuna duten eta oraindik formulatu gabe dauden alderdiak, gogoaren baitan; berak aurrez ikusi gabekoak, itxura denez. Baina bai —irakurri Piaget».

**ERANSKINAK**



# 1

## ELBIRA ZIPITRIAREN IKASTOLAKO IKASLEAK

*Aitzin oharra:* Elbira Zipitriak ez zuen ikasleen zerrendarik utzi. Zerrenda hau ikasle batzuen artean osatua da, eta hutsuneak eta akatsak dituela ziur gaude. Abiapuntu bezala argitaratzen dugu, zuzendu edo osa dezaketenek beren ekarpenak egin eta zerrenda zuzena osatzen joan dadin. Ekarpenik egin nahi duena jar daiteke harremanetan liburu honen arduradunekin. Ikasleak sarrera urtearen arabera sailkatuak daude.

<b>1943</b>	Migel Mari	Egia		ikus ( <sup>1</sup> )
	Xabier	Garaialde	Maiztegi	(1943-49)
	Mari Koro	Larrea		(1943-47)
<b>1944</b>	Itziar	Goenaga	Barrena	(1944-47)
	Ana Mari	Isasa	Ezpeleta	(1944-47)

---

<sup>1</sup> Elbirak, 1943tik hasi eta 1946an bere etxean ikastola jarri arte, ikasle hauek izan zituen:

Migel Mari Egia, Egiatarren etxean. Down sindromeari zuzendutako heziketa berezia jaso arren zerrendan sartu dugu, eskolaz kanpoko ekitaldi askotan ikastolako ikasleekin elkartzen zelako.

Patxi eta Begoña Arriola Iriondo (1943-44) Arriola familiaren etxean, haiekin batera hasi ziren zerrendaren hasierako bi ikasleak (X. Garaialde eta K. Larrea).

1944-46 urteetan zerrenda hasierako bost ikasleek Asentxi Goenagaren etxean ibili ziren eta gero Elbiraren etxera pasatu ziren.

<b>1945</b>	Gorka	Lesca	Ezpeleta	(1945-49)
<b>1947</b>	Juan Roke	Alday		(1947-51)
	Jose Luis	Arza		(1947-51)
	Joxe Inaxio	Gurmendi	Olabiaga	(1947-51)
<b>1949</b>	Arantxa	Arrazola	Arantzadi	(1949-53)
	Arantxa	Gurmendi	Olabiaga	(1949-53)
<b>1950</b>	Koro	Aldanondo	Arregi	(1950-54)
	Mertxe	Aldanondo		(1950-54)
	Anton	Mendizabal	Cristóbal	(1950-54)
	Juan Mari	Uzkudun		(1950-54)
	Itziar	Zumalabe	Castro	(1950-54)
<b>1951</b>	Xabier	Arrazola	Arantzadi	(1951-55)
	Izaskun	Busto	Sistiaga	(1951-55)
	Itziar	Gurmendi	Olabiaga	(1951-55)
<b>1952</b>	Jexux Mari	Aldanondo		(1952-54)
	Xabier	Arzelus	Domínguez	(1952-56)
	Iñigo	Garaialde	Maiztegi	(1952-56)
	Idoia	Garmendia	Estornes	(1952-56)
	Emilio	Gonfaus	Martikorena	(1952-56)
	Patxi Xabi	Leska	Ezpeleta	(1952-56)
	Koro	Rekarte	Barriola	(1952-56)
	Mertxe	Uzin	Sarasola	(1952-56)
	Koro	Zumalabe	Goenaga	(1952-56)
<b>1953</b>	Joxe Mari	Arrazola	Arantzadi	(1953-57)
	Mari Koro	Iturriotz		(1953-...)
	Nekane	Mendizabal	Frutos	(1953-57)
	Iñaki	Usandizaga	Arantzadi	(1953-57)
	Ander	Zinkunegi	Arzelus	(1953-57)
	Olatz	Zumalabe	Castro	(1953-57)
<b>1954</b>	Lourdes	Aldanondo	Arregi	(1954-58)
	Jon Mirena	Antza	Etxegoien	(1954-58)
	Mari Koro	Egaña	Iturriotz	(1954-58)
	Arantza	Plazaola	Errezola	(1954-58)

<b>1955</b>	Elixabete	Alba	Orbegozo	(1955-59)
	Martin	Arrazola	Aranzadi	(1955-59)
	Idoia	Mendizabal	Cristóbal	(1955-59)
	Mikel	Mendizabal	Frutos	(1955-60)
	Maite	Rekarte	Barriola	(1955-59)
	Jon Andoni	Zinkunegi	Arzelus	(1955-59)
	Joxe Migel	Zumalabe	Goenaga	(1955-59)
<b>1956</b>	Garbiñe	Antza	Etxegoien	(1956-60)
	Mikel	Arrazola	Aranzadi	(1956-60)
	Iñigo	Busto	Sistiaga	(1956-60)
	Arantzazu	Garaialde	Maiztegi	(1956-60)
	Mari Axun	Iradi	Dorronsoro	(1956-60)
	Marta	Santamaria	Ibarburu	(1956-60)
	Itziar	Urtasun	Berroa	(1956-60)
<b>1957</b>	Jon Ander	Aizpurua	Arzelus	(1957-61)
	Mari Kontxi	Aldanondo	Arregi	(1957-61)
	Mikel	Mendizabal	Cristóbal	(1957-61)
	Itziar	Plazaola	Errezola	(1957-61)
	Joxe	Rekarte	Barriola	(1957-61)
	Amale	Zinkunegi	Arzelus	(1957-61)
<b>1958</b>	Idoia	Antza	Etxegoien	(1958-62)
	Joxe Ramon	Barandiaran		(1958-62)
	Miren	Dorronsoro	Iraeta	(1958-62)
	Beñat	Garmendia	Estornes	(1958-62)
	Opatxo	Rodríguez	Iraeta	(1958-62)
<b>1959</b>	Koruko	Aizarna	Rementería	(1959-63)
	Xabier	Arregi	Zubiarrain	(1959-63)
	Koro	Iradi	Dorronsoro	(1959-63)
	Xabier	Muñoz	Otaegi	(1959-63)
	M. Angeles	Urkola	Ubiria	(1959-63)
	Lide	Zinkunegi	Arzelus	(1959-63)

<b>1960</b>	Itziar	Aizarna	Rementeria	(1960-64)
	Malen	Arrazola	Arantzadi	(1960-64)
	Lurdes	Muñoz	Otaegi	(1960-64)
	Koro	Navarro		(1960-64)
	Mikel	Plazaola	Errezola	(1960-64)
	Arantxa	Rodríguez	Iraeta	(1960-64)
<b>1961</b>	Itziar	Aizpurua	Arzelus	(1961-65)
	Mikel	Dorronsoro	Iraeta	(1961-65)
	Koro	Garmendia	Estornes	(1961-65)
	Miren	Izagirre	Urkiola	(1961-65)
	Joxe Mari	Urreaga		(1961-65)
<b>1962</b>	Mikel	Antza	Etxegoien	(1962-66)
	Eugenio	Barandiaran	Oñederra	(1962-66)
	Belen	Hernández	Ezeiza	(1962-66)
	Manueltxo	Larrea		(1962-66)
	Joxan	Muñoz	Otaegi	(1962-66)
<b>1963</b>	Agustin	Arrazola	Arantzadi	(1963-67)
	Tere	Barrenetxea	Arregi	(1963-67)
	Itziar	Izagirre	Urkiola	(1963-67)
	Xabier	Larrea		(1963-67)
	Lurdes	Muñoz		(1963-67)
	Iñigo	Urreaga		(1963-67)
<b>1964</b>	Imanol	Antza	Etxegoien	(1964-68)
	Andoni	Barandiaran	Oñederra	(1964-68)
	Arantxa	Barrenetxea	Arregi	(1964-68)
	Jexux	Larrea		(1964-68)
	Imanol	Muñoz	Otaegi	(1964-68)

ikus <sup>2</sup>

---

<sup>2</sup> 1968an Orixe ikastola ireki eta Elbira eta bere ikasleak hara pasatu ziren.

<b>1965</b>	Nekane	Barandiaran	Oñederra	(1965-68)
	Feli	Barrenetxea	Arregi	(1965-68)
	Arantxa	Hernández	Ezeiza	(1965-68)
	Xabier	Izagirre	Urkiola	(1965-68)
	Arantza	Odriozola		(1965-68)
	Eneko	Zinkunegi	Arzelus	(1965-68)
<b>1966</b>	Imanol	Barrenetxea	Arregi	(1966-68)
	Jon	Cambronero		(1966-68)
	Iñigo	Dorronsoró	Iraeta	(1966-68)
	Andoni	Etxebeste		(1966-68)
	Iñaki	Hernández	Ezeiza	(1966-68)
	Julen	Idarreta		(1966-68)
	Mikel	Izagirre	Urkiola	(1966-68)
<b>1967</b>	Jon Paul	Aizarna	Rementería	(1967-68)
	Mikel	Aizpurua	Arzelus	(1967-68)
	Xabier	Etxebeste		(1967-68)
	Jon Aitor	Mujika		(1967-68)
	Onintza	Zinkunegi		(1967-68)





## 2

### ZIPITRIAREN ESKOLAKO ABESTIAK

#### **Aurkibidea**

Agur Xuberoa.....	179
Aingeru batek Mariari.....	179
Aintza zeruan .....	180
Aita nun egiten du.....	181
Aitak eman daut dotea .....	181
Akerra ikusi degu.....	182
Ator, ator .....	183
Damu det, Jauna.....	183
Dan, dan-dan .....	184
Elurra mara-mara ari du .....	185
Elurra tellatuan.....	185
Ene berrerosteko .....	185
Ermitatxo bat eidazu .....	186
Erriko festa.....	186
Errodrigotxo joan zanean.....	187
Errodrigotxo Baltzategi'ko .....	188
Errota berriko .....	188
Etxean ba det ama .....	188
Eskualdun makila.....	189
Euskalerria .....	189
Euzkadi'ko mendiak .....	190
Ezpartiñak .....	190
Goazen, goazen guziok .....	191
Goiko mendian.....	191
Gure errietatik gatoz .....	191

Gurtu zagan beti.....	192
Ikusten duzu goizean.....	193
Iñaki Deunari (Neologismoa) .....	194
Iruñako perietan .....	195
Iruten ari nuzu .....	195
Itsasoko izar .....	196
Itsasoa laño dago.....	196
Ixil-ixilik .....	196
Ixil-ixilik arkitutzen da .....	197
Jainko ederra .....	197
Jauna nere biotzak.....	198
Jesukristori kendu ezkeru.....	198
Jon Doni Mikel .....	198
Katu zar bat ba degu .....	199
Kristo gure errege .....	200
Ogi ta ardo doneak.....	200
Ogi zerutik .....	201
Oi, Betleen! .....	201
Oi, udaberriz! .....	202
Olentzero.....	202
Orain esango degu.....	203
Ori'ko txoria Ori'n.....	204
Orra gure goi janari.....	204
Orra or goiko.....	204
Sebastian bakarra .....	205
Solferino'ko itxua .....	205
Tinter tanter.....	205
Torizu Zeruko Aita .....	206
Trakatan, trakatan.....	207
Txantxangorria.....	208
Txori urretxindorra.....	208
Txoriñoa kaiolan .....	208
Urrundik ikusten dut .....	209
Urruti nere menditik.....	209
Zatozte kristauak.....	210
Zugana gatoz.....	210

### **Agur Xuberoa**

Agur Xuberoa  
bazter guzietako xokorik ederrena.  
agur Atarratze  
zurekin ditut ametsarik goxoenak.  
Biotzaren erditik  
bortzetan elki deitadazut asperena.  
zu utziz geroztik  
bizi naiz tristerik,  
abandonaturik,  
ez baita erririk  
Paris ez besterik,  
zu bezelakorik.

### **Aingeru batek Mariari**

Aingeru batek Mariari  
dio graziaz betea,  
zeruko Jainko Semeari  
emanen diozu sortzea.  
Jainkoaren nai saildua  
nigan dedila egiña,  
izan nadin bai bere Ama  
bainan geldituz Birjiña.  
Jainkoaren Seme maitea  
gizatasunez da jazten.  
Oi, ondasun egiazkoa  
Jauna gurekin egoten.

## **Aintza zeruan**

Aintza zeruan,  
aintza zeruan,  
aintza zeruan Jaunari,  
eta pakea,  
eta pakea lurrean gizoneri.  
Aurtxo txikia jaio berria  
negarrez estalpetxoan,  
Ama gaixoa aldamenetik  
galdez gaixoak zer zuan.  
Seakatikan kontuz artzen du  
eta jarri du altzoan.  
Bular goxoa eman nai eta  
gaixoak artzen etzuan.  
Zer dezu maite? Maite zer dezu?  
Olako negar estuan.  
Nork egin dizu? Nork egin zuri?  
eta jaso du besoan.  
Jakin nai dezu Ama Birjiña  
aurrak negarrez zer zuan:  
Artzai artean soldadu zar bat  
antxen iksuten bai zuan.  
Pakea nai du, aurrak pakea,  
ez soldadurik munduan.  
Zerua dakar lurrera eta  
gerrarik ez da zeruan.

## **Aita nun egiten du**

Aita nun egiten du  
kukuak kabia?  
txantxangorri kabian  
lapurtuz tokia.

Aita nun egiten du  
poxpoliñak kabia?  
Gari-soro erdian  
poliki jarria.

Aita nunegiten du  
txepetxak kabia?  
Gaztain-txulo gordean  
goroldiz josia.

Aita nun egiten du  
gabontzak kabia?  
Elizako sapaian  
sagutxo josia.

## **Aitak eman daut dotea**

Aitak eman daut dotea  
neurea, neurea.  
Urdeñoa bere kumeeekin,  
oilasko loka bere txitoekin,  
tipula korda eiekin. (bis)  
Otsoak jan daut urdea  
neurea, neurea.

Axeriak oilasko loka,  
arratoinak tipula korda.  
Adio neure dotea. (bis)

## **Akerra ikusi degu**

Akerra ikusi degu baratzean jaten,  
makilla ikusi degu aker ori jotzen.  
Makillak akerra, akerrak artoa, akerra ken!  
Gure artotik akerra ken!  
Sua ikusi degu makil ori erretzen,  
ura ikusi degu su ori itzaltzen.  
Urak sua, suak makilla, makillak akerra, akerrak artoa, akerra ken!  
Gure artotik akerra ken!  
Beia ikusi degu ur ori edaten,  
soka ikusi degu bei ori lotzen.  
Sokak beia, beiak ura, urak sua, suak makilla, makillak akerra,  
akerrak artoa, akerra ken!  
Gure artotik akerra ken!  
Xagua ikusi degu soka ori etetzen,  
katua ikusi degu xagu ori jaten.  
Katuak xagua, xaguak soka, sokak beia, beiak ura, urak sua,  
suak makilla, makillak akerra, akerrak artoa, akerra ken!  
Gure artotik akerra ken!  
Atsoa ikusi degu katu ori jarraitzen  
albea ikusi degu atso ori zemaitzen.  
Albeak atsoa, atsoak katua, katuak xagua, xaguak soka, sokak  
beia, beiak ura, urak sua, suak makilla, makillak akerra, ake-  
rrak artoa, akerra ken!  
Gure artotik akerra ken!

## **Ator, ator**

Ator, ator mutil etxera  
gaztaña ximelak jatera,  
gabon gaba ospatutzeko  
aitaren ta amaren ondoan.  
Ikusiko duk aita parrez ta  
ama ere poz atsegiñez.  
Eragiok mutil  
aurreko danbolin orri,  
gaztañak erre artean (bis)  
txipli txapla pun!  
Gabon gaba pozik  
igaro daigun.

## **Damu det, Jauna**

Damu det, Jauna, biotz guzitik  
Zu naigabetu izana,  
ez, ez geiago pekaturlkan  
nere Jaungoiko laztana.  
Miñaren miñez Jesus maitea  
daukat biotza lerturik,  
ikusirikan nere bizitza  
dana pekatuz beterik.  
Zure oinetan orain naukazu  
begi-biotzak urtutzen,  
barru-barruko negarrarekin  
barkazioa eskatzen.



## Dan, dan-dan

Dan, dan-dan! Maria ta Josepe Belenen, Josepe Belenen  
Kras kris-kras! etxe gabe Gabon izan arren. (bis)  
Dan, dan-dan! Nor da emen, jauregi onetan, jauregi onetan?  
Kras, kris-kras, zein da deika gauko amarretan? (bis)  
Dan dan-dan! Eske gabiltz gauko ostatuaren, gauko ostatuaren  
Kras kris-kras, ostaturik ez dago ba emen. (bis)  
Dan, dan-dan! Nor da emen etxetxu onetan, etxetxu onetan?  
Kras, kris-kras, zein da deika gauko amaiketan? (bis)  
Dan, dan-dan! Beartsu bi, edeki eiguzu, edeki eiguzu.  
Kras, kris-kras, aberats bi artuak ditugu. (bis)  
Dan, dan-dan! Jo dezagun estalpe onetan, estalpe onetan.  
Kras, kris-kras, sar gaitezen ortxe ilunbetan. (bis)  
Dan, dan-dan! Amabiak Belen'go torrean, Belen'go torrean.  
Kras, kris-kras, aingeruak zeruko atean. (bis)  
«Dan, dan-dan! Aintza goian ta pakea emen, ta pakea emen.  
Kris, kris-kris, Jesu Kristo jaio da Belen'en.» (bis)  
Dan, dan-dan! aingeruak dan dan danboliña, dan dan danboliña.  
Kris, kris-kris, artzaitxoak kris kris kriskitiña. (bis)  
Dan, dan-dan, bart Belen'en eta bart Belen'en, eta bart  
Belen'en,  
Kris, kris-kris, jaio zaigu Jesutxo Nazaren. (bis)  
Kris, kris-kris, jaio zaigu Jesutxo Nazaren, Jesutxo Nazaren  
Dan-danok sar gaitzala Berak zerura. Amen. (bis)

## **Elurra mara-mara ari du**

Elurra mara-mara ari du,  
zuritu du mendia,  
arditxoak sartu dira otz-otzez  
txabol, txabol zarrean.  
Nik ba daukat bildots txikia  
ementxe seaskatxoan,  
baña jango duen otsorik  
ez da sortu munduan.

## **Elurra tellatuan**

Elurra tellatuan,  
zakua lepuan,  
ibilli bearko degu  
aurtengo neguan,  
rau! rau rau rau,  
rakataplau!  
Au dek umoria  
utzi alde batera  
euskaldun jendia,  
rau! rau rau rau,  
rakataplau! (bis)

## **Ene berrerosteko**

Ene berrerosteko  
Gurutzean il ziñena.  
Ene zigortutzeko  
bide eman dizutena.  
Esker txar ni Zuretzat,  
benez otoi barka Jauna.  
A! Oroi zaite odola  
enetzat eman duzula. (bis)

## **Ermitatxo bat eidazu**

Ermitatxo bat eidazu  
esan zendun, egin degu;  
ditun utsak zeuk edertu.  
Zure esanera euskal edesti  
Kriston gorputz-gintza degu;  
Bein-berriz esan zaiguzu,  
bein-berriz entzun nai degu:  
Ama pozik al zaitugu?  
Zure betiko irri-parreak  
baietz erantzuten digu.  
Ama pozik ta pozik gu  
zurekin Ama Arantzazu  
Magnificat dabesagu. (bis)

## **Erriko festa**

Erriko festa biaramonean,  
berak zekiten txoko batean,  
lau andre, iru muxurdin,  
bat alarguna,  
jarririk itzalean,  
ari xabal bat belaunen gañean  
ari ziren, ari ziren trukean.  
Zer ote duten nik jakin nai  
pitxarrarekin beste jaun ori;  
zorroa du biribila,  
moko me-mea,  
tente xutik egoki,  
zaatoa ote den nago ni  
anpatua, anpatua ederki.

## Errodrigotxo joan zanean

Errodrigotxo joan zanean  
ardiengana mendira,  
antxen zegoan Birjiña arantzan  
artzaitxoari begira:  
Errodrigotxo Baltzategi'ko  
ermitatxo bat eidazu,  
ermitatxo bat eidazu eta  
nerea izango zera zu.  
Iru latatxo zazpi tellatxo  
asteko asko dituzu.  
Eliza aunditzen danean biar  
geiagorik bearko du;  
nere euskal seme on askok emen  
izango dute ostatu,  
izango dute ostatu eta  
euskal meza nun opaldu.  
Geroko batez negu otza zan  
Erregetako bezpera,  
oitura zanez gau artan ere  
bazan bijili bilera.  
Iñigo zaldun gazte ezaguna  
euskal anaien legera,  
Arantzazura promes eginda,  
elurra Aizkorrin bera,  
aren bekoki sutua al'ere,  
ez zen otzak erki-bera.

Zer amesten zun,  
zerk beartzen zun  
alako erroitz artera?  
Bide berriak asmotan eta  
indarra dator artzera;  
antxen zegoan Ama irriparez  
lensemeari begira:  
Iñigo zaldun Loiola'koa  
ermitatxo bat eidazu  
ermitatxo bat eidazu eta  
nerea izango zera zu.  
Iru latatxo, zazpi tellatxo  
oiek gutxitxo dituzu.  
Euskal fedeak euskal eleizak  
aundiagoa bear du,  
zurekin dagon Euskal-erria'k  
bitarteko zu nai zaitu  
berez ezin dun elizagintza  
zurekin nai du osatu.  
Orretarako egingo zaitut  
erri santu onen santu.  
Zer geran iñork galde baleza  
esan Loiola-Arantzazu;  
zer geran iñork galde baleza  
esan Loiola-Arantzazu!

## **Errodrigotxo Baltzategi'ko**

Errodrigotxo Baltzategi'ko  
zorioneko artzaia  
ik entzun uan lendabiziko  
zeru deiaren kanpaia.  
Zorioneko kanpaia eta  
zori obeko artzaia,  
zori onena zuk Euskalerra  
ba dator zure garaia.  
Errota berriko  
Errota berriko Erromaldo  
errota pikatzen ei dago.  
A, a, a, a, a.  
Errota berriko Erromaldo.

## **Etxean ba det ama**

Etxean ba det ama  
Jainkoak emana,  
Zeruan beste Ama,  
Maria laztana.  
Bi ama, ta bietan  
Maria onena,  
bien eskutik noa  
ni Josurengana.

## **Eskualdun makila**

Begiztatua nuen aspaldi mendian  
mizpirondo zuzen bat sasien erdian.  
Anditzerat utzi dut eta arrekila  
aurten egin dut nire eskualdun makila.  
Bi erroden gainean joaten ez ikasi,  
burni-bidetan aldiz sabela naasi.  
Bainan, non dut karroza? Non dut berebila?  
Oinez beti banoa eskuan makila.  
Igandean goiz-goizez txamarra emanik,  
etxeke-andreari agur bat erranik.  
entzun eta oiuka dorreko ezkila,  
ni banoa arturik eskuan makila.  
Nire sakela naiz ontsaño miatu  
jin zait bein gizon bat, bainan zer gertatu?  
Segurki ez du erran batere ez nekila  
ibiltzen eskuetan eskualdun makila.

## **Euskalerrria**

Ara zein alai dagon  
gure sorterrria  
aritz, pago ta lizar  
bikainez jantzia.  
Alde bateko mugan  
itxaso ugaria,  
arkaitza jo ta astintzen  
bere apar txuria.  
Saroi oparutsuak,  
kerizpe geldia,  
baserritxoak nunai  
ta nunai pakea.  
Mendi-gain bakoitzean  
txabola txikia,  
artalde bat ondoren,  
gero, gurutzia!

## **Euzkadi'ko mendiak**

Ori mendi ttonttorreko  
pagoaren punttan,  
punttaren punttan,  
Ori'ko txoria kantari,  
txiru liru li, txiru liru li,  
nork kantatuko ote du  
soinutxo ori?  
Aizkorri'ko ttonttorreko  
arantzaren puntan,  
punttaren punttan,  
erbi-iñudea dantzari.  
Triki triki tri, triki triki tri,  
nork dantzatuko ote du  
dantza arin ori?  
Aralar'ko ttonttorreko  
larrunarri punttan,  
punttaren punttan,  
Pernando ta Bertsolari.  
Zuk neri ziri, nik zuri ziri,  
iñork onduko ote du ziriket ori?  
Anboro'ko ttonttorreko  
arkaitzaren punttan,  
punttaren punttan,  
sorgiñak kontu kontari.  
Ujuju juju, ijiji jiji,  
nork ixilaziko ote du algara ori?

## **Ezpartiñak**

Ezpartiñak urratuta  
zapatarik ez,  
Ernion gelditu nintzen  
oñeko minez.  
Auxen dek egia,  
zortziko berria,  
iru txiki ardorekin  
librako opilla!

## **Goazen, goazen guziok**

Goazen, goazen guziok  
Birjiña Amangana  
eskeintzera biotzez  
loretxo eder bana. (bis)

## **Goiko mendian**

Goiko mendian elurra dago,  
errekaldian izotza.  
Neu zugandik aske nago ta  
pozik daukat biotza.  
Goiko mendian elurra dago,  
errekaldian izotza.

## **Gure errietatik gatoz**

Donostiatik gatoz  
gaur Arantzazura  
Mariaren aurrean  
otoitz egitera.  
Fedea sendotuta  
burnia bezela  
etsaiak botatzeko  
danak, danak bera. (bis)  
Inpernua zapaldu  
mundutzarra astindu  
Luzifer deabrua  
betiko garaitu.



## **Gurtu zagun beti**

Gurtu zagun beti  
Jesus Jainko Jauna,  
sakramentu ontan  
gurekin dagoena.  
Jesus maitea zan  
azken aparian  
Bera eman nairik  
ardo ta ogian.  
Gureztat zalarik  
iltzeko aurrean,  
maitasunak zeukan  
biotza mendean.  
Gurtu zagun beti...  
Ogia arturik  
mintzo da Jainkoa:  
au da ene gorputz  
zuek jatekoa.  
Orobat arturik  
ontzian ardoa:  
au da ene odol  
isuritzekoa.  
Gurtu zagun beti...  
Jan-edan zazue  
guziok ontatik  
zuekin bat nadin  
izan oraindanik.  
Egizue gero  
egin dedana Nik  
gaurko Nere itzak  
gogoan izanik.  
Gurtu zagun beti...  
Apostolueri  
miñez esan die:  
Ni gaur saldua naiz,  
biar ilko naute.  
Aitarenganako  
denbora zait bete,  
ona orain zenbat  
zaituztedan maite.  
Gurtu zagun beti...

## **Ikusten duzu goizean**

Ikusten dezu goizean  
argia asten danean  
menditxo baten gañean,  
etxe txikitxo aurre-txuri bat  
lau aitz aundiren artean  
Iturritxo bat aldean,  
txakur txuri bat atean?  
An bizi naiz ni pakean.  
Naiz ez izan gaztelua  
maite det nik sorlekua  
aiten aitek autatua.  
Etxetik urrun zait iruditzen  
nunbait naizela galdua.  
Antxen ni bai naiz sortua  
an utziko det mundua,  
galtzen ez ba det zentzua.

## **Iñaki Deunari (Neologismoa)**

Iñaki, gure zaindari aundia  
Jesusen Lagundia  
zuk bildu  
eta indartu dezu,  
ez da ez etsairik  
jarriko zaizunik  
iñolaz aurrean  
gaurko egunean  
naiz betor Luzifer gogaiztoa  
utzirik inperua.  
Zure Lagundia  
beti da beldur gabe  
bere jaun ta jabe  
da Jesus aundia.  
Garaitu ditu zure Lagundiak  
etsaiak!  
Ez dauka eleizak  
ez Euskal Erriak  
ez dauka bildurrik  
iñungo aldetik.  
Iñaki or dago,  
beti indartsuago  
dauka Lagundia  
sugarrez betea,  
guda-guda nairik,  
ikurriña zabalik  
Gau ta egun  
gu guziok pakea dezagun  
Beti, gau eta egun.

## **Iruñako perietan**

Iruñako perietan  
iragan Sanferminetan (bis)  
eun zaldi arribatu  
Andaluzia'tik tropan.  
Merkatu ederra zaukan  
zaudelarik bi lerrotan.  
Ba zen pikar ta xuria  
artan bota dut begia. (bis)  
Andaluzak egin zautan  
bi ontza urren galdia.  
Eskeini orduko erdia  
«Artzak, ire duk zaldia».  
An nintzen arrapatua  
aginduaz damutua. (bis)  
Urruntzeko izan banu  
iru arditen lekua,  
gizonez inguratua  
irudi preso artua.

## **Iruten ari nuzu**

Iruten ari nuzu  
kiloa gerrian,  
ardura dudalarik, (bis)  
nigarra begian (bis)  
Ezkon miña dudala  
batzuk oi diote.  
Nik ez dut ezkon miñik, (bis)  
gezurra diote (bis)

### **Itsasoko izar**

Itsasoko izar  
lagun ekaitzetan.  
Argi egin zaiguzu(bis)  
azken orduetan (bis)  
Egiozu Josuri  
otoitz Andre Mari  
zuzen bizi gaitezen (bis)  
orain eta beti (bis)

### **Itsasoa laño dago**

Itsasoa laño dago  
Baionako alderaño.  
Nik zu zaitut maiteago  
txoriak bere umeak baño.  
Itsasoan ura lodi,  
ondarrrik ez du ageri.  
Nere maitea ikustearren  
igaroko nuke igari.

### **Ixil-ixilik**

Ixil-ixilik daude  
kaian barrenean  
ontzi txiki politak  
uraren gañean.

## **Ixil-ixilik arkitutzen da**

Ixil-ixilik arkitutzen da,  
ixil-ixilik mundua;  
ez da mendian ezer entzuten  
ez bada ontzaren oiua.  
Ixilik dago tantai gañean  
lengo txori berritsua,  
lumatxo bigun arro tartean  
gorderik bere burua.  
Gero goiz zabal miragarria  
urrez apaintzen danean,  
otoitz egiñik beti bezala  
oerutzen geranean.  
Gau izartsuak estaltzen gaitu  
lainuzko maindirepean  
errugabeko lo-lo goxoa  
egin dezagun pakean.

## **Jainko ederra**

Jainko ederra  
on-ona eta aundia!  
Zeruko Aita,  
oiuka Zure aurtxoa:  
Gora Jainkoa  
zure nauzu oso-osoa.

## **Jauna nere biotzak**

Jauna nere biotzak deitzen zaitu,  
zatozkit bada laister, ene Jesus.  
Intzik ez dutenean loretxoak  
Laister gelditzen dira igartuak.  
Ni ere ilko niñuke Zu gabeak  
Egiaz sinisten det or zaudela  
ene Jaun eta ene Jaungoikoa,  
zatoz Josu maitea biotzera.

## **Jesukristori kendu ezkerro**

Jesukristori kendu ezkerro  
oben eginaz bizitza,  
baldin ez badet negar egiten  
arrizkoa det biotza,  
guztiok lagun oroi dezagun  
bere minezko eriotza.

## **Jon Doni Mikel**

Jon Doni Mikel aiza ezazu illuna  
Jainko begiak ekar daigun eguna.  
Arrekin aitona, arrekin amona  
pozik jauzi bitez ba dute osasuna.  
Neska, mutil, ume, senar, emazte,  
alor, mendi, zelai, beorrak aske,  
pozaren zirrara barnean bezate  
naigabe-nekeak zokora zaitezte!

## **Katu zar bat ba degu**

Katu zar bat da dugu, Moro du izena.  
Burutik oñetaño beltza da dena,  
baiñan beltzagoa du ark bere barrena.  
Odol orde du, noski, zañetan edena.  
Katu gaiztoena,  
zikoitz maltzurrena,  
beidatu zekena,  
al dan okerrena,  
ongi egin eta gaizki artzen duena. (bis)  
Xagu eizean berriz tentelu zozoa,  
laster joaten zaizkio denak txulora.  
Lukainka muturrari begi ernegoa.  
Ura arrapatzeko bila iskintxo.  
Beti txarra asmoa,  
okerrerakoa,  
ostutzen iaioa,  
artako jaioa,  
amaika aldiz eraman du urdai txonkoa. (bis)  
Beti kuxkux maipean, arin txonkatila,  
irikitzen badaki tajuz maratila.  
Gure sukalde artan bada iskanbila.  
An daramakiela katuak opila,  
amandreak itz mila,  
eskuan makila,  
ura ume pila,  
denak katu bila.  
Bera, berriz, gordetzen a zer mutila! (bis)



## **Kristo gure errege**

Kristo gure errege  
agurtu dezagun,  
zeru-lurren jabe  
aitortu dezagun.

## **Ogi ta ardo doneak**

Ogi ta ardo doneak,  
baita gure buru,  
apaizaren bitartez  
eskeintzen ditugu.  
Bedeinka itzazu, Jauna,  
gure ardo ta ogi,  
Jesusen gorputz-odol  
ditezen itzuli.  
Jesusen gorputz zati  
gu ere baigera,  
artu gaitzazu, Jauna,  
arekin batera.

## **Ogi zerutik**

Ogi zerutik etorria  
Zu zera gure poz guzia.  
Bildots santua ona emen  
Munduko gaitzak kentzearren,  
sagrarioan non dagoen  
lurra zeruaz bat egiten.  
Gauza guzien egillea,  
zeru ta lurren erregea,  
gure artean bizitzea  
zer zoriona dan gurea!

## **Oi, Betleen!**

Oi, Betleen!  
Ara egun zure garaia  
Oi, Betleen!  
Argi bai-du dizdiratzen,  
zugandik eldu den argiak  
betetzeitu bazter guztiak.  
Oi, Betleen! Oi, Betleen!  
Ez dut deusik!  
O! Jesus, Zuri eskeintzeko  
ez dut deusik!  
Biotz obendun bat baizik.  
Eskerrak Zuri biurtzeko,  
ainbeste emaitza ordaintzeko,  
ez dut deusik! Ez dut deusik!

## **Oi, udaberriz!**

Oi, udaberriz! Aloña maldan  
elorriaren lorea  
elorriaren loretan lore  
Birjiña errugabea  
Birjiña errugabea!  
Oi, udaberriz! Aloña maldan  
(elorriaren lorea)  
min du errekak utzi bearra  
alako txoko maitea  
alako txoko maitea!

## **Olentzero**

Olentzero, buru aundia,  
entendimentuz jantzia,  
bart-arratsian eran omen du  
amar arruko zagia.  
Ai! urde tripaundia  
eran omen du, eran omen du  
Ai! urde tripaundia  
eran omen du zagia!  
Orra, orra,  
gure Olentzero,  
pipa ortzetan dula  
exerita dago,  
kapoiak baditu,  
arraultzatxuakin,  
biar meriendatzeko  
zatu arduakin (3 aldiz).

## Orain esango degu

Orain esango degu  
Josutxoren bizitza,  
abesti politik entzun  
nai duanik ba'litza.  
Abesti politik entzun  
nai duanik ba'litza,  
orain esango degu  
Josutxoren bizitza.  
—Joakin eta Ana,  
alaba nun dezuten.  
—Ez dagola, ez, etxean,  
ez dagola, ez, emen.  
Jerolim'en dago  
gure Jabe jauresten...  
Ez dagola, ez, etxean,  
ez dagola, ez, emen.  
Simeon aiton zarra  
dago Jerolim'en:  
—Mirentxo nexka polita  
ikusi dezun emen.  
—Uso txuri batek zizun  
emen izena Miren,  
orain ezkonberri dago  
gaxoa Nazaret'en.

Josepe gizon ona  
bizi da Nazaret'en:  
—Nun dezun zure usoa,  
nun dezun zure Miren.  
—Lanean gaxotxoa,  
lan ta otoitz egiten,  
Mesias salbatzallea  
etor dedin lenbailen.  
Mesias salbatzallea  
ba'dator ba oraintxen,  
Jauna'ren mandataria  
orain dator zeruren.  
—Agur, agur, Mirentxu!  
agur, bai, agur, Miren!  
Zu izango zera (i) ama  
Aitaren Semearen.  
—Nola diteken ori,  
ori nola diteken.  
—Goikoak emango dizu  
bere itzal ta arnas goien.  
Birjin izango zera  
beti ama izan arren.  
—Birjin ta ama nadila,  
diazun bezela. Amen.

## **Ori'ko txoria Ori'n**

Ori'ko txoria Ori'n  
pakean da bizitzen,  
ango larre sasietan  
ez da ura unatzen.  
An zen sortu, an aunditu,  
an asi zen maitatzen,  
an bere ume artean  
gozoki du kantatzen. (bis)

## **Orra gure goi janari**

Orra gure goi-janari  
Jesus bildots otzana,  
mundukoen pekatuak  
barkatzen dituana.  
Jauna artzen degun guziok  
barka pozez alkarri,  
Ogi au izan dakigun  
pakezko goi-lokarri.

## **Orra or goiko**

Orra or goiko areztitxo baten  
kukuak umeak egin ditu aurten.  
Kukuak egin, amilotsak jan.  
Auxe gure kukuaren zoritxarra zan.  
Lara, lara, lalara ...

## **Sebastian bakarra**

Sebastian bat bakarra zeruan,  
Donosti bat bakarra munduan,  
eta zer santua, eta zer erria,  
eta zer da gure Donostia.  
Donostiako Gaztelupeko  
Joxe-Mari zar eta gazte (bis)  
kalerik kale tanborra juaz  
umore ona banatzen dijoaz,  
Joxe-Mari!

## **Solferino'ko itxua**

Armak artzera deitu niñuen  
gazterik sorte etsaiak,  
urrundu nintzen erri aldera  
itzuliz usu begiak. (bis)  
Zoritxarrean baidut ikusi  
Solferinoko egia,  
alperrikan dut geroztik deitzen  
iduzkiaren argia. (bis)  
Betiko gaua, gau lazgarria  
begietara zait jausi.  
Ene erria, ene maiteak  
inoiz ez bear ikusi. (bis)

## **Tinter tanter**

Tinter tanter  
ail ekarrak adarra  
einen daiak txirola  
zertaz?  
gaztenalaida politaz  
txirula mirula kantari  
baldin baiz izerdi  
kris kras, atera adi!

## Torizu Zeruko Aita

Torizu Zeruko Aita,  
Jainko aundi betikoa,  
torizu guk eskeiñia,  
bai ogi ta bai ardoa.

Apaiz ta erri  
elkar arturik  
emen gauzkatzu  
ernai jarririk  
Gurutzekoa  
berritu nairik.

Torizu Zeruko Aita...

Gorputz-animak,  
biotz garbia  
artu gure Jaun,  
artu guzia,  
eman ordainez  
grazi-bizia.

Torizu Zeruko Aita...

Meza au dedila  
guzion alde  
barkapen gure  
utsak bezate  
ta ildakoak  
betiko pake.

Torizu Zeruko Aita...

Eliz-dirua  
ta ondasunak,  
dana Zuretzat  
neke ta lanak,  
Zuretzat ere  
parre-negarrak.

Torizu Zeruko Aita...

## Trakatan, trakatan

Trakatan, trakatan, iru errege  
trakatan, trakatan, Belen'era,  
Belen'en jaio dan Jesu aurtxo  
trakatan, trakatan, jaurestera.  
Beltxor'ek, trakatan, zaldia  
beltza,  
Kaxpar'ek, trakatan, zaldi  
gorri;  
trakatan, trakatan, Baltaxar  
zarrak  
zaldia, trakatan, txuri-txuri.  
Trakatan, trakatan, izarra dute  
ain bide luzean gidaria,  
trakatan, trakatan, Jerosolim'a  
oraintxe eldu dira ia-ia.  
—Erodes jauna nun dan  
Errege Nazaren? (bis)  
—Zuek nai dezutena,  
erregerik onena,  
ea dan Belen'en?...  
Erodes azal zuri,  
barren beltz gaiztoa! (bis)  
Itz leunak mingañean,  
bai, baña biotzean  
zorroztu aiztoa...  
Trakatan, trakatan, izarra  
berriz

len bezain argi ta dizdizari,  
trakatan, trakatan,  
Belen'erarte  
bideko pozkille ta gidari.  
Etxe baten gañean  
izarra gelditu... (bis)  
Etxearen ttattarrak  
ta ango ez ta bearrak  
nola ez arritu?  
Barruan Maria ta  
Aur maitagarria; (bis)  
irurok auspezturik  
ta kutxak zabaldurik  
eskeiñi berria.  
Beltxor'ek urre gorri,  
Kaxpar'ek kekiña; (bis)  
Aurrak Baltaxar'ena  
onetsi du geiena:  
mir-ale min-miña.  
Trakatan, trakatan, iru errege  
trakatan, trakatan, Sortaldera,  
Jesus jaio dala ume guztiei  
trakatan, trakatan, esatera.  
Jesus jaio dala ume guztiei  
trakatan, trakatan, esatera  
ta txintxo diranei zapatatxuan  
jostallu politik ematera.



## **Txantxangorria**

Udara joan ta egun illunak  
ondoren datozenean,  
eguzkia ta gure poz denak  
ezkutatzen diranean,  
Zer ari zera orla kantari  
ordurik ixillenan?  
Zer ari zera txantxangorria? (bis)  
aiñ era kupigarrian?  
Papar gorri txikia lertzeko zorian  
lumetan bil-bil arro  
dadukazunean?  
Ez dakit nola negar  
guziak batean  
kabitzen diran zure  
kolko politean. (bis)

## **Txori urretxindorra**

Txori urretxindorra  
udan da kantari,  
zere orduan baitu  
mendian janari.  
Neguan ez da ageri,  
baldinbait ez da eri  
udan etor baledi  
kotsola nainte ni.

## **Txoriñoa kaiolan**

Txoriñoak kaiolan  
tristerik du kantatzen, (bis)  
duelarikan  
zer jan, zer edan,  
basoa desiratzen  
zere zere  
askatasuna zein eder den!

## **Urrundik ikusten dut**

Urrundik ikusten dut  
ikusten mendia  
beraren gibelean  
baitut nik erria.  
Jadanik dut aditzen  
zorion aundia!  
Joale maitearen  
asperen ezta.  
Joale, zer ote duk  
ik egun erraiten?  
Urrunera zer berri  
ote duk igortzen?  
Mendiak edoipetik  
ditek iardesten,  
ik errana zerura  
ditek barreatzen.

## **Urruti nere menditik**

Urruti nere menditik  
joan nintzen dirutu nairik. (bis)  
Urritietan ene biotza  
naigabez erdibiturik  
gelditu nintzan tristerik,  
pake santua galdurik.  
Gogoan nuen etxea  
gaztaña artean gordea. (bis)  
Mendixka baten an ageri zan  
eliza txukun maitea  
bertako ezkil dorrea  
ainbat oroitzez betea.  
Ez naiz ez, Jauna, geiago  
ene menditik joan gogo. (bis)  
Atxurra nere lagun dedala  
baserrian naiz biziko,  
Zuri eskerrak emango  
pakez bete nauzulako.

## **Zatozte kristauak**

Zatozte kristauak  
pozez Belen'era  
Jesus aingeruekin ikustera.  
An jaioa da guztion Errege.  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun gure Jauna.  
Aingeru mintzora  
ardiak utzirik  
artzaiak irrintziz datoz askara.  
Gu ere arin goazen bertara.  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun gure Jauna.  
Betiko Aitaren  
betiko dirdaia  
ikusi aragiz itzaldua.  
Aur Jaungoikoa, oialez bildua.  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun gure Jauna.  
Lastoan etziña,  
gugatik beartsu,  
besoz ta biotzez dezagun laztandu.  
Ain maite gu, ta guk ez au maitatu?  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun  
Ots, jauretsi dezagun gure Jauna.

## **Zugana gatoz**

Zugana gatoz erruki eske,  
Aita Jaungoiko Santua,  
barka zaiguzu, garbi gaitzazu,  
damu degu pekatua.

## **Elbira Zipitria Irastorza**

Zumaia 1906 — 1982 Donostia

Elbira Zipitria andereñoa haurren irakaskuntzan egin da ezaguna, batez ere; 1936ko gerra aurreko irakaskuntzak asko zor dio; askoz gehiago 1942-1970 bitartekoak.

1982ko abenduaren 26an itxi zituen begiak.

Euskaldun eta euskaltzale handi batek utzi gintuen.  
Euskaltzale eta pedagogo handia.  
Asko zor diot. Asko zor dio Euskal Herriak.

(Dionisio Amundarain)



errian ta zabal izatu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea